



Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetzaren** arloan sortutako dokumentuen bilduma

1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea

3. Biktimak

4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

2016ko urria
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkibidea

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra.	5
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. Abiapuntua.	9
2. dokumentua. Biktimen inguruko politika eta ekimenen kudeaketari buruzko txostena. Aldi bereko hamabost lan-ildo eta zentzuzko batasun bat.	17
3. dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren harremana biktimekiko 2013 eta 2014 urteetan zehar.	31
4. dokumentua. KREIk egindako azterlanen laburpena.	41
5. dokumentua. Gertu Programa.	63
6. dokumentua. Eraikiz Programa.	73
7. dokumentua. Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri.	83
8. dokumentua. 1960 eta 1978 artean Giza Eskubideen urraketak jasandako biktimen Balorazio Batzordearen txostena.	125
9. dokumentua. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Legea.	141
10. dokumentua. Batera konpromisoa.	161

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren. Azaroaren 20an, X. Legegintzaldiari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak. Abenduaren 13an, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakari izendatu zuten. Sailburuak lanpostuaz jabetu ondoren, abenduaren 18an, lehen aldiz bildu zen gobernu-kontseilua.

Hamalau hilabete lehenago, 2011ko urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen. Zenbait hamarkadaren ondoren, indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabe ekin zioten Legegintzaldi bati euskal politikak eta gizarteak.

Hori horrela izanik, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak hartu zuen lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzari atxikita, eta Lehendakariaren mende. 2013ko urtarrilaren 30ean, Jonan Fernandez izendatu zuen Lehendakariak Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi.

Idazkaritza horrek sail ezberdinetara atxikitako bi zuzendaritza bildu zituen egitura berean: Biktimen Zuzendaritza –ordura arte, Herrizaingo Sailaren mende zegoen– eta Giza Eskubideen Zuzendaritza –aurretik, Justizia Sailaren barruan zegoen. Hala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren egitura berriak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bakar bat izan zuen, Monika Hernando buru zuela.

Legegintzaldi honetan, 14 plan estrategiko onartu ditu Eusko Jaurlaritzak; horietan lehena, 2013ko abendukoa, Bake eta Bizikidetzaren Plana izan zen. Horren ondorio dira, hain zuzen, 18 ekimen eta programa eta jarduera ugari. 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana garatzeko prozesuan, hainbat dokumentu sortu dira Legegintzaldi honetan. Liburu-bilduma honek, bada, dokumentu nagusienak biltzen ditu zazpi liburukitan.

Hona hemen zazpi liburuon izenburuak: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzaren kultura eta Giza Eskubideak. Hirugarren liburu honek biktimen politika publikoen arloari dagozkion dokumentuak jasotzen ditu.

Liburu honen aurkezpena

Biktimen politika publikoak kudeaketa-eremu garrantzitsu bat dira, bai eta zaila ere. Biktinek merezi duten egiari, justiziarri eta konponketari eragiten diete. Hildako pertsona maite bat galtzeak uzten duen hutsune ikaragarriarekin dute zerikusia, eta, gure kasuan, terrorismoak eta indarkeriak eragiten dituzten giza, familia eta gizarte zauri sakonekin.

Kasu gehienetan, ez dago pairatutako kalteak konpontzerik, eta giza baldintzaren sentikorrena eta baliotsuena kaltetzen da. Pertsona maite bat hiltzen dutenean, erakundeen jardunak aringarria baino ezin du izan; nolana ere, beharrezkoa da, biktimak merezi duen errekonozimenduaren ikuspegitik.

Legegintzaldi honetan egindako lana islatzeko, bi abiapuntu nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, autokritika; izan ere, kasu askotan, erakundeen jarduna berandu iritsi da, eta, askotan, egindakoa ez da nahikoa izan. Bigarrenik, aurreko gobernuek eta lantaldeek egindako lana errekonozitzea. Azken lau urte hauetan ondo egin denak aurreko lantaldeek garatu zuten lan ona du oinarri, bai eta urte hauetan zehar Legebiltzarreko taldeek egin duten lankidetzaren ere. Eremu honetan, apaltasunez jokatu behar da, beste edozer eremutan baino gehiago.

Legegintzaldia dokumentu batekin hasi zen, hasierako asmoen adierazpen batekin. «Biktimei buruzko Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen oinarriak» izeneko 1. dokumentuak Legegintzaldiaren hasierako ikuspegia biltzen du, eta oinarrien eta hasierako proiektuen arabera egituratzen da. Hasierako abiapuntu hori asko zabaldu da geroa, Bake eta Bizikidetzaren Planaren esparruan garatutako ekimenak direla eta.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren lanak kritikak jaso ditu. Zenbait unetan eta zenbait sektoretatik, behin eta berriz esan da Eusko Jaurlaritza ez dela inplikatu ETaren terrorismoaren biktimekin. Ondorioz, bi dokumentu osatu ziren, bi unetan, akusazio hori egitate objektiboekin gezurtatzeko.

«Biktimen inguruko politika eta ekimenen kudeaketari buruzko txostena. Aldi bereko hamabost lan-ildo eta zentzuzko batasun bat» izeneko 2. dokumentua 2014ko irailean aurkeztu zen, eta argitu zuen urte eta erdi eskasean Eusko Jaurlaritzak hamabost jarduketa-ildo aktibatu zituela, gehienak ETaren terrorismoaren biktimekin erlazioan. «Eusko Jaurlaritzaren harremana biktimekiko 2013 eta 2014 urteetan zehar» 3. dokumentua 2015eko martxoan aurkeztu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak urte horietan zehar biktimekin erlazioan zer ekitaldi eta bileratan parte hartu zuen adierazten du.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiako Euskal Institutuak akordio bat dute, eta, horren arabera, terrorismoaren biktimen beharrek erlazioan dutako alderdiak jorratzen dituen azterlan edo ikerketa bat egiten du urtero. «KREIk egindako azterlanen laburpena» izeneko 4. dokumentuak 2013an, 2014an eta 2015ean egindako ikerketen ondorioen atalak jasotzen ditu.

Azterlan horietako lehenean, ikerketa kualitatiboa egin zuen Euskadin bizi diren eta hilketen zeharkako biktimak diren pertsonekin. Besteak beste, bi ondorio atera zituen: biktima askok tratu pertsonalizatuago baten beharra sumatzen zuten eta biktima askok memoria eraikitzeke prozesuetan parte hartu nahi zuten beren testigantzak emanda. Liburu honen 5. dokumentuak Gertu Programa du hizpide; hots, bi eske horiei erantzuteko aukera eman duen ekimena. Alde batetik, harreman pertsonalizatua izan da hildako biktimen senide diren eta Euskadin bizi diren 300 bat pertsonarekin, dela telefono bidez, dela aurrez aurre. Bestalde, ehun biktimaren baino gehiagoren testigantzak grabatu dira, eta Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutura sartu.

Orain dela bi legegintzaldi eman ziren biktimen testigantzak ikasgeletara eramateko lehen urratsak. Joan den Legegintzaldian, biktima hezitzaileen zenbait esperientzia abiarazi ziren. Eta azken lau urte hauetan, nabarmen hedatu da ekimena. «Adi-adian» dokumentua horren isla da (6. liburuan jasotzen da 4. dokumentu gisa). Programa horren ondorioz, 2014ko urtariletik 2016ko ekainera, 132 saiotan parte hartu dute biktinek ikasgeletan. 15 eta 18 urte arteko 5.171 ikaslek parte hartu dute horietan.

Joan den Legegintzaldian egin zen Glen Cree esperientziak edo biktima hezitzaileen programek eta Adi-adian esperientziak harremanetan jarri dituzte terrorismoaren eta mota ezberdinetako indarkeriaren biktimak. Gertu programak zenbait biktimengan berdinen artean elkar entzuteko elkarrizketa sortzeko beharra jarri zuen agerian. Testuinguru horretan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak biktimen artean biktimek elkarri hitz egiteko eta entzuteko Eraikiz Programa (6. dokumentua) bultzatu zuen, eta biktimen zenbait talde dinamizatu zituen helburu horrekin. Talde horietako lehenengoak –Adi-adian programan parte hartzen zuten biktimez osatuta batez ere– elkarrizketa-saio askoren ondoren adostuta partekatutako ondorioak publiko egitea erabaki zuen. Ondorioak, bada, 2015eko irailaren 11n aurkeztu ziren, Gogora Institutuaren egoitzan.

2015eko irailaren 4an, 1960tik 2010era bitartean terrorismoaren edo indarkeriaren hildako biktimak izan zituzten 130 udalerritako alkateak bildu zituen Lehendakariak. Ekitaldia Gogora Institutuaren egoitzan egin zen, eta alkate bakoitzari bere udalerriri buruzko koaderno bat eman zien Lehendakariak. Koadernoetan, bada, udalerrri bakoitzarekin erlazioatutako hildako biktimei buruzko datu eta informazio eskuragarria bilduta dago. Bilduma honetan ezinezkoa denez 130 koadernoak birsortzea, Getxoko udalerriri dagokiona jaso dugu, adibide modura, 7. dokumentuan («Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri»).

Erretratuen 130 dokumentuak hemen kontsulta daitezke: <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/informazioa/udal-erretratuak/r48-pazmapas/eu/>. Azpimarratu behar da koadernotxo horietako bakoitza tokiko datu-base moduko bat dela. Ez da biktimei ofizialki errekonozimendua emateko dokumentu bat, bizitzarako eskubidearen aurkako urraketan kasuei buruzko informazio-dokumentu bat baizik, eta, gainera, zalantza kasuak, zalantza egiletzako kasuak eta egiaztatze eta ikerketa handiagoa behar duten kasuak biltzen ditu. Informazio-zerrenda hori osatzeko, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak errekonozitutako biktimei buruzko datu-base bat du. 2016ko urrian egongo da eskuragarri Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren web gunean.

Aurreko Legegintzaldian, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat onartu eta abiarazi zuen, 1960tik 1978ra artean poliziaren gehiegikeria pairatu zuten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko. Legebiltzarraren babes handia eta askotarikoa izan zuen Dekretuak. Legegintzaldi honetan garatu da, eta 187 biktimari errekonozimendua eta ordaina emateko balio izan du. 2016ko otsailaren 20an, errekonozimendurik jaso ez duten biktimei buruzko hausnarketa-jardunaldi bat egin zen Donostiako Kursaal jauregian, eta Lehendakariak biktimei errekonozimendua emateko ekitaldia egin zuen, euskal erakunde guztien izenean. Ekitaldi horretan, bada, «1960 eta 1978 artean giza eskubideen urraketak jasandako biktimen balorazio batzordearen txostena» izeneko dokumentua aurkeztu zen; biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko egindako kudeaketan berri ematen du. 8. dokumentu gisa biltzen da liburu honetan.

Aurreko prozesuaren jarraipen gisa, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan zituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko lege-proiektua onartu zuen, bai eta Eusko Legebiltzarrera bideratu ere. Legea 2016ko uztailaren 28an onartu zen, eta 9. dokumentu gisa jaso da.

Azkenik, Batera Konpromisoaren testua 10. dokumentu gisa jaso da. Bildumaren amaierarako utzi da, garrantzitsua delako eta biktimen politika publikoetan paradigma berrietara garamatzen hausnarketa bat biltzen duelako. Batera Konpromisoaren bidez etapa berri bat irekiko da biktimen politikan; hala, horiek iraganaz gain etorkizuna ere kontuan izan dezaten eta biktimen eta gizartearen arteko bizikidetzarako batasuna sustatu dezaten.



1. dokumentua

Abiapuntua

Abiapuntua

2013ko maiatza

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

I. Erreferentziazko esparrua

“Botere publikoen betebeharra da giza eskubideen urraketan biktimen eskubideak errespetatzea, babestea eta gauzatzea (...)”. Horrela dator jasoa lotesten gaituzten nazioarteko itun desberdinetan. Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren biktimen, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketaren arloan darabilen politika publikoak ardatz eta erreferentzia-esparrutzat hartzen du nazioarteko legediak horiei buruz ezartzen duena.

Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 8. artikuluan, Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.3 artikuluan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 13. artikulua agindutakoa oinarritzat hartuta, nazioarteko zuzenbideak bi erreferentzia nagusi ditu: batetik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an emandako 60/147 Ebazpena, giza eskubideen urraketan biktimei buruzko printzipio eta jarraibideak ezartzen dituena, eta, bestetik, 29/2012 Biktimen Europar Zuzentaraua.

Erreferentziazko esparru horren espirituari eta edukiari jarraiki, biktimen alorreko barne-legeria bete behar da, eta lege- eta administrazio-tresna berriak sortu behar dira, giza eskubideen urraketan biktima guztien eskubideak errespetatzeko, babesteko eta gauzatzeko betebeharra osatzen laguntzeko.

Ildo horretan, eta X. Legegintzaldi honetarako Eusko Jaurlaritzaren biktimen alorreko politika publikoak zehazterakoan, ezinbestekoa da esanbidezko errekonozimendua egitea Eusko Jaurlaritzak, zailtasunak gorabehera eta testuinguruaren eta gaiaren beraren konplexutasunari aurre eginez, azken hiru legegintzaldietan ildo horretan egin duen lan eraikitzailearentzat. Zeregin hori amaituta dago, eta egiteke dagoenaren oinarri sendoa da.

II. Abiapuntuak

- Gobernuek errespetatu, errespetarazi eta barne-legerian aplikatu behar dituzte giza eskubideen urraketen biktimen alorreko nazioarteko zuzenbide humanitarioa eta giza eskubideen nazioarteko arauak.
- Diktadurari lotuta memoria historikoko prozesuak irekita daudela kontuan hartuz, biktimen politika publikoaren esparru honetan 1960. urtetik aurrera gertatu ziren urratzeak sartzen dira, herrialde honetan politikari lotuta egon zen indarkeriaren ingurukoak denak.
- Esparru horretan, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen ondorioz kalte larria jasan duten pertsonak dira biktimak. Heriotza izanez gero, senideak dira biktimak, ezarritako ahaidetasun-mailaren arabera
- Nazioarteko estandarren arabera, pertsona bat biktimatzat joko da urraketa egilea identifikatuta, atxilotuta, epaituta edo kondenatuta egon edo ez.
- Biktimen eskubideak zehatzak eta espezifikokoak dira, eta argi eta garbi zehaztuta daude giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan. Hiru kontzeptutan laburbiltzen dira: egia, justizia eta erreparazioa.
- Biktima guztiak errekonozitu eta erreparatu ahal izateko, lehenik eta behin, giza eskubideen urraketa guztiak ikertu eta ikusarazi behar dira, salbuespenik egin gabe, eta alde bateko eta besteko urraketa alderatu, konpentsatu edo deuseztatu gabe.
- Biktimen politika publikoak inolako diskriminaziorik gabe garatu behar dira, urraketa horretarako aldarrikatutako arrazoa edo motibazioa edozein izanik ere, edo egileak edo arduradunak edozein izanik ere.

III. Helburua

- Biktimek egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko duten eskubideak bete daitezela laguntzea, nazioarteko legeriak eta zehazkiago Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpenak ezarritakoari jarraiki.
 - Egia.** Giza eskubideen urraketen inguruko egia ezagutzeko beharrezko bitartekoak arbitratzea, eta biktimen eskura urraketen eta erreparazio-mekanismoen inguruko informazio egokia jartzea.
 - Justizia.** Biktimei laguntza egokia ematea, justizia benetan eta berdintasunean jasotzeko eta bidezko prozedura inpartzial bat izateko eskubidea gauzatzeko aukera izan dezaten.
 - Erreparazioa.** Erreparazio egokia eskaintzea, urraketa bakoitzaren larritasunaren arabera. Horrek esan nahi du leheneratzeko, erreparatzeko, birgaitzeko, gogobetetzeko eta ez errepatatzea bermatzeko kontzeptuak aintzat hartu behar direla.

IV. Irizpideak

- Ez da ahaztu behar biktimak banan-banan hartu behar direla aintzat, esanahi kolektiboa izan badezakete ere. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak pertsonalizazioari emango dio lehentasuna, baita biktimizazio modu berriak saihesteari ere.
- Biktimenganako sentsibilitateari eutsiz, arlo horretako politikak testuinguru biktimologiko eta kriminologiko guztiak errespetatu behar ditu, diskriminaziorik gabe eta urraketa batzuen eta besteen arteko alderaketa, konparazio edo konpentsaziorik egin gabe.
- Legegintzaldi honetan, biktimen alorreko politika publikoa bakerako eta bizikidetzaren normalizaziorako planaren parte eta eragile da, honako bi ardatz nagusi hauetan oinarrituta:
 - Iraganari begirada kritikoa egitea, ETaren terrorismora zein indarkeriaren edozein modutara jotzea edo giza eskubideen edozein urraketa deslegitimizatzeke, eta egindako urraketen banalizazioa edo ukazioa.
 - Etorkizunari prebentzio-begirada ematea, berriro ez gertatzea bermatzeko, giza duintasunarekiko, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko zalantzarik gabeko konpromisoan oinarritutako gizarte- eta hezkuntza-proiektu baten bitartez.

V. Ardatzak eta jarduketa-ildoak

Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan duen politika publikoak hiru ardatz nagusi izango ditu. Hirurek erantzungo diote zehatz, gainera, biktimei dagozkien hiru eskubide garrantzitsuenei. Ardatz bakoitzak bi lan-ildo izango ditu:

•**Egia**

- Gertatu zena ikertzeko, argitzeko, informatzeko eta aitortzeko proiektuak eta prozesuak bultzatzea.
- Iraganaren memoria kritiko eta demokratiko bat partekatzen bideratuta dauden proiektuak sustatzea.

•**Justizia**

- Biktimei justizia lortzeko ematen zaizkien laguntza zerbitzuak mantentzea.
- Oraindik ebatzi ez diren giza eskubideen urraketari lotutako kasuak argituko dituzten ikerketak eta azterketak egiten laguntzea.

•**Erreparazioa**

- Mantener los programas de asistencia, apoyo y reparación a las víctimas del terrorismo.
- Terrorismoaren biktimei laguntzeko eta haien kalteak arintzeko programak mantentzea.
- Gaur egungo legediaren babesik gabe geratu diren biktimei laguntzeko eta haien kalteak arintzeko programak osatzea.

VI. Proiektu nagusiak

I. Egia. Gertatutakoa argitzeari eta memoria kritikoari lotutako proiektuak.

- **Argitzeko proiektuak.** Giza eskubideak urratu direla frogatzen duen oinarritzko txosten bat prestatzea, kasuak argitze aldera lehentasunezko jarduketak ezartzeko. Bi jarduketa azpimarratu behar dira: aitortpena eta konponbidea falta duten giza eskubideen urraketaren biktimei buruzko azterlan bat, eta torturari buruzko azterlan zientifiko eta independente bat.
- **Memoria.** Bake eta Bizikidetzaren Planean memoria politikei buruz jasotakoa ikusi. Zehatzago, Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuaren proiektua; Terrorismoaren Biktimen Memoriala, eta Memoriaren Eguneko oroitzapen adostuaren proiektua.

II. Justizia. Biktimei justizia lortzeko laguntza egokia emateko proiektuak.

- Biktimei Laguntzeko Zerbitzua mantentzea, baita Auzitegi Nazionalean biktimei lagunduko dieten bulegoa sortzeko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin sinatu den hitzarmena ere.
- Informazioa bilatzea eta ematea, datu-baseak eratzea eta ikerlanak eta azterlanak agintzea, oraindik ebatzi ez diren giza eskubideen urraketa-kasuak argitzen laguntzeko.

III. Erreparazioa. Egoera leheneratzeko, kalteak ordaintzeko, gogobetetzeko eta horrelakoak berriz gertatuko ez direla bermatzeko proiektuak.

- Terrorismoaren biktimei laguntzeko, haien kasua aitortzeko eta konponbidea emateko prozesuekin aurrera egitea.
- Entitate sozialekin elkarlanean aritzea. Biktimei laguntzen dieten elkarteei diru-laguntzak emateko urteko deialdia mantentzea, baita Fundación de Víctimas del Terrorismo eta Fundación Fernando Buesa fundazioekin sinatutako hitzarmenak ere.
- Parte-hartzea bultzatzea. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin koordinatuta eta batera lan egiten jarraitu dadin bultzatzea. Horrez gain, mintegiak eta topaketak egingo dira elkarteekin eta biktimekin.
- 107/2012 Dekretuaren ondoriozko prozesua osatzea. Horrek bi zeregin dakartza: batetik aurkeztu diren espediente guztiak kudeatzea eta, bestetik, biktima guztiak aitortzeko eta haien egoera konpontzeko prozesuak osatzeko tresnak prestatzea.
- Hezkuntza. Bake eta Bizikidetzaren Planean hezkuntza politikei buruz jasotakoa ikusi.



2. dokumentua

Biktimen inguruko politika eta ekimenen kudeaketari buruzko txostena

(2013-2014)

Aldi bereko hamabost lan-ildo eta zentzuzko batasun bat

Biktimen inguruko politika eta ekimenen kudeaketari buruzko txostena (2013-2014)

Aldi bereko hamabost lan-ildo
eta zentzuzko batasun bat

Gasteiz, 2014ko irailaren 24a

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren jardun orokorraren barruan, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen biktimen inguruko politika publikoak berariaz esku hartzeko oso esparru esanguratsu bat dira, bai neurriaren aldetik, bai garrantziaren aldetik. Bada, txosten honen helburua da objektiboki eta xeheki azaltzea zer-nolako lana egiten ari den gaur egun esparru honetan Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

Batetik, legealdi honetan eta aurrekoetan, biktimen inguruko politika publikoak konpromiso egonkor eta jarraitu bat izan dira. Egun esparru honetan egiten ari garen guztia etengabeko eraikuntza baten emaitza da, elkarren ondotik emandako hainbat urratsena. Ildo horretan, txostenaren helburua ez da gobernu hau egiten ari denaren balioa nabarmentzea, baizik eta azken hamabost urteetako gobernuak elkarrekin egin duten bidearen emaitza nabarmentzea. Orain arteko ekarpena ezagutzeko eta eskertzeko modu bat da, ezinbestekoa baita egungo egoera ulertzeko. Horra txosten hau egin izanaren lehen arrazoia.

Bestetik, biktimen inguruko gai guztiek lehen mailako arreta mediatiko, politiko eta parlamentarioa erakartzen dute. Iraganean, gehiegitan, zoritxarreko eztabaida kirrinkari eta ez oso konstruktiboak piztu izan ditu biktimei lehentasuna emateak. Biktimei buruzko eztabaida publikoan, gehiegizko amorrua izan da, eta gainditu egin beharko genuke. Objektibotasun-, zorroztasun- eta zintzotasun-plus bat eman behako genuke.

Behartuta gaude, beste edozein esparrutan baino gehiago, esparru honek zuzeneko eragina duelako giza eskubideen urraketa larri eta bidegabeak jasan dituztenengan eta haien sendeengan. Polemika destruktiboak saihestera behartuta gaude, biktimizazio gehiagorik ez izateko. Hori da, hain zuzen ere, txosten hau egin izanaren bigarren arrazoia: arrazionaltasun eta baretasun handiagoko egoera bat eraikitzen laguntzea, datu objektiboak emanda esparru honetan egiten den lan zehatzari buruz.

Bestalde, gobernu ororen betebeharra da informazio gardena ematea. Izan ere, biktimei buruz hitz egiten eta eztabaidatzen entzuten du gizarteak, baina oso litekeena da ez jakitea zer egiten ari garen zehazki esparru honetan. Are gehiago, biktima askok aitortu digutenez, ez dakite zehazki erakunde batzuek eta besteek zer egiten duten dagozkien eskubideen alorrean, alegia, egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideen alorrean. Alde horretatik, txosten honen helburua da gizarte osoak eta, oso bereziki, kaltetueneke merezi duten informazioarekiko eta gardentasunarekiko konpromisoa betetzea. Horixe da dokumentu honen hirugarren arrazoia.

Azkenik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekimenez, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren aurrean aurkeztuko dugu txosten hau, 2014ko irailaren 24an egingo duen bileran. Parte hartzeko gune bat da Kontseilua, oso biziki eta argiro elkarren kontrako ikuspegiak eztabaidatzen dituen, begirunez betiere, eta, legealdi honetan, Eusko Jaurlaritzari buruan sartu zaio edukiz jantzi behar dituela foro horren bilerak

Azken batean, esandakoa gorabehera, edo esandakoagatik beragatik, itxaropena izateko gune bat da Kontseilua, elkarrizketarako gune bat delako. Elkarrizketan datza elkarrekin bizitzeko eta bizikidetzara bidezkoa izateko itxaropena. Hau da, Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin duen konpromisoa da txosten hau egin izanaren laugarren arrazoia.

1. Eusko Jaurlaritzak biktimen inguruan aplikatzen duen politika publikoaren oinarriak

1.1. Nazioarteko erreferentziako esparrua

“Botere publikoen betebeharra da giza eskubideen urraketen biktimen eskubideak errespetatzea, babestea eta gauzatzea”. Horixe diote, behinik behin, lotetsi egiten gaituzten nazioarteko zenbait tratatuk, eta nazioarteko legediak ildo horretan dioena dute ardatz eta erreferentziazko esparrutzat Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen biktimen inguruan aplikatzen dituen politika publikoek.

Estatuak bere gain hartzen dituen betebeharren parte den heinean, barne-zuzenbidearen atal bat da nazioarteko zuzenbidea, Espainiako Konstituzioko 96.1. artikulua arabera. Era berean, horixe da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: Espainiako Konstituzioko 10.2 artikulua dioenez, “Konstituzioak onartzen dituen funtsezko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta gai horiei buruz Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen eta akordioaren arabera interpretatuko dira”.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea ez da erreferentzia erretoriko edo apaingarri bat, baizik eta arauzko agindu lotesle bat, etika politikoaren gutxienekoak unibertsalki mugatzeko eta bateratzeko aukera ematen diguna. Eusko Jaurlaritzaren ustez, baina, ez du lotetsi bakarrik egiten. Aitzitik, arauzko esparru horrekin erabat konprometituta ere badago Eusko Jaurlaritza: pentsatzekoa denez, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, eskubide zibil eta politikoen nazioarteko itunek eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak lotesten eta konprometitzen dute.

Giza eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 8. artikulua, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 2.3. artikulua eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 13. artikulua arabera, bi erreferentzia nagusi ditu nazioarteko zuzenbideak biktimen alorrean: batetik, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16koa, giza eskubideen nazioarteko arauen urraketa garbien biktimek eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekursoak aurkezteko eta ordainak eskuratzeko eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta jarraibideak ezartzen dituen, eta, bestetik, 2012/29/EB Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseilu Europarrarena, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena.

Erreferentziazko esparru horren espirituari eta edukiari jarraituz, biktimen inguruko barne-legeria bete behar da, eta tresna legezko edo administratibo berriak sortu behar dira, giza eskubideen urraketen biktima guztien eskubideak errespetatzeko, babesteko eta gauzatzeko eginbeharra betetzen laguntzeko.

1.2. Arauzko barne-esparrua

Honakoak dira biktimen inguruko politika publikoetan eragina duen arauzko barne-esparruen erreferentzia nagusiak:

Estatuan:

- 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituena.
- 29/2011 Legea, irailaren 22koa, terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babestekoa.
- 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haien osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan:

- 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei aitortzea eta erreparazioa egitekoa.
- 55/2010 Dekretua, otsailaren 23koa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarena.
- 290/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena.
- 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa.
- 426/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua aldatzen duena.
- 157/2014 Dekretua, uztailaren 29koa, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea arautzen duena.

1.3. Eusko Jaurlaritzaren helburuak biktimen alorrean

- Bere aukeren eta eskumenen esparruan, biktimek egitarako, justiziarako eta ordainerako eskubideak erabili ahal izan ditzaten laguntzea, nazioarteko legediak eta, zehazki, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpenak xedatzen dutenari jarraituz.
 - **Egia:** Giza eskubideen urraketen inguruko egia jakiteko beharrezko bitartekoak erabakitzea eta urraketei eta ordain-mekanismoei buruzko informazio egokia ematea biktimei.
 - **Justizia:** Laguntza egokia ematea biktimei, aukera izan dezaten justizia benetan eta berdintasunean erabiltzeko eta bidezko prozedura inpartzial bat izateko eskubidea erabiltzeko.
 - **Ordaina:** Ordain egokia eskaintzea, urraketa bakoitzaren larritasunaren arabera. Horretarako, nolana ere, beharrezkoa da lehengoratzeko, ordaintzeko, birgaitzeko eta gogobetetzeko kontzeptuak eta ez errepikatzea bermatzeko kontzeptua edukiz janztea.

1.4. Irizpideak

horretan, Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak pertsonalizazioari eman behar dio lehentasuna, baita biktimizazio mota berririk ez sortzeari ere.

- Biktimekiko sentsibilitateari eutsiz, alor honetako politikak testuinguru biktimologiko eta kriminologiko guztiak errespetatu behar ditu, diskriminatu gabe eta urraketa batzuk eta besteak parekatu, konparatu edo berdindu gabe.
- Legealdi honetan, bakerako eta bizikidetzaren normalizaziorako plan baten parte eta eragile da biktimen inguruko politika publikoa, bi ardatz nagusi hauek hartuta oinarri:
 - Iraganari kritikoki begiratzea, zilegitasuna kentzeko ETAK terrorismora jo eta inork edozein indarkeria mota erabili edo giza eskubideak urratu izanari, baita urraketak hutsaltzeari eta ukatzeari ere.
 - Etorkizunari zuhurtziaz begiratzea, berriz ez gertatzea bermatzeko, giza duintasunarekiko, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromiso argian oinarritzen den gizarte-hezkuntzako proiektu baten bidez.

1.5. Esku hartzeko ardatz eta ildoak

Eusko Jaurlaritzak biktimen inguruan aplikatuko duen politika publikoa hiru ardatz nagusitan oinarrituko da, eduki zehatzez janzteko biktimen hiru eskubide nagusiak. Era berean, bi lanildo izango ditu ardatz bakoitzak:

- **Egia**
 - Gertatutakoa ikertzeko, argitzeko, jakinarazteko eta aitortzeko proiektu eta prozesuak sustatzea.
 - Iraganaren kontakizun kritiko eta demokratiko bat bateratzeko proiektuak sustatzea.
- **Justizia**
 - Biktimek justiziara jo ahal izateko laguntza- eta babes-zerbitzuei eustea.
 - Ikerketa eta azterlanen bitartez, argitzeko dauden giza eskubideen urraketak argitzen laguntzea.
- **Ordaina**
 - Terrorismoaren biktimei laguntza, babesa eta ordaina emateko programei eustea.
 - Egungo legediaren arabera orain arte babes gabe geratu diren biktimei laguntza, babesa eta ordaina emateko programak osatzea.

2. Eusko Jaurlaritzak biktimen alorrean martxan jarri dituen jardueren zerrenda eta deskripzioa

Eusko Jaurlaritzak biktimen alorrean aplikatzen duen politika 2013-2016rako Bake eta Bizikidetzaren Planaren barruan dago. Bada, biktimei dagokienez, elkar osatzen duten bi ardatz nagusi garatzea xedatzen du Planak: batetik, biktimak aitortzeko eta haiei babesa eta ordaina emateko ildo nagusien jarraipenaren alde egiten du, eta, bestetik, politikak berritzea proposatzen du, egungo behar berriei erantzuteko. Xedapen horri esker, bi ataletan egituratu dezakegu txosten honen bigarren atala: batetik, jarraipena emateko ekintzak ditugu, eta, bestetik, jarduera berriak.

2.1. Jarraipena emateko jarduerak

I. Terrorismoaren biktimentzako laguntza eta haienezko laguntzen kudeaketa, ekainaren 19ko 4/2008 Legea eta azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak terrorismoaren biktimei laguntzen die, 290/2010 Dekretuak, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duenak, xedatzen duenarekin bat. Ildo horretan, kalte materialengatiko espedienteak bideratzen ditu —zorionez, gero eta gutxiago—, eta, batez ere, laguntza psikologikoa, ikasketetarako laguntza, lan-arloko laguntza eta etxebizitzarako laguntza emateko espedienteak, terrorismoaren biktimen oinarritzeko beharrei egokiro erantzuteko, betiere, Eusko Jaurlaritzaren barruan etxebizitza- eta enplegu-arloko eskumenak dituzten sailekin elkarlanean eta haiekin koordinatuta.

II. Espainiako Gobernuak 29/2011 Legearen eta 671/2013 Errege Dekretuaren bidez terrorismoaren biktimei ematen dizkien laguntzen kudeaketa

2014ko irailaren 19an, terrorismoaren biktimek 29/2011 Legearen arabera zegozkien kalte-ordainen osagarriak eskatzeko epea amaitu zen, eta, horregatik, joan den urtean, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak horren berri eman die Euskadin bizi diren terrorismoaren biktimei, eta eskabideak Barne Ministerioaren aurrean bideratzen lagundu die. Horri esker, zenbait kasu identifikatu ditu, kalte-ordainak hartzeko eskubidea galduko zuketanak Gertu programaren bidez biktimekin zuzeneko harremanetan jarri ez balitz. Gainera, GALen eta antzeko erakundeen biktimei kalte-ordainak ukatu izana salatu du Eusko Jaurlaritzak, eta gaiari buruzko irizpen juridiko bat eskatu dio Kriminologiaren Euskal Institutuari, laguntzak ukatu izana legez kontrakoa eta nabarmen bidegabea zela ondorioztatzen duena.

III. Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua

Ekainaren 19ko 4/2008 Legearen bidez, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sortu zen, terrorismoaren biktimek dagozkien gai guztietan parte hartzea bideratzeko eta gaiaren inguruko politika zehatzak abiaraztea proposatzeko administrazio publikoei, eta, otsailaren 23ko 55/2010 Dekretuaren bidez, haren osaera, izendapen-sistema, funtzionamendu-araubidea eta eginkizunak arautu. Legealdi honetan, urtebete pasatxoan, bost aldiz bildu da Kontseilua, eta hitz egiteko eta ikuspegiak erkatzeko esparru bizi eta aberasgarri bat izan da.

IV. Aldizkako harremanak terrorismoaren biktimen elkarteekin

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak aldizkako harreman egonkorra du biktimen elkarteekin, bai Euskal Autonomia Erkidegokoekin, bai Estatukoekin, eta, legealdiaren hasieratik, behin baino gehiagotan jarri da harremanetan guztiekin.

V. Terrorismoaren biktimei laguntza, elkartasuna eta babesa ematea bultzatzeko proiektu eta elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia

Urtero kaleratzen da, eta terrorismoaren biktimen Estatu osoko erakunde eta elkarteek parte har dezakete, norgehiagokan, honakoak bultzatzeko: laguntza, orientabidea eta giza babesa ematea terrorismoaren biktimei; biktima bihurtu dituzten delituekin lotuta Auzitegi Nagusian egiten dituzten epaiketetara laguntzea biktimei eta haien senideei; laguntza psikosoziala ematea biktima eta zaintzaileei; eta terrorismoaren biktimei buruzko foro, ikastaro eta mintegiak antolatzea eta balio etiko eta demokratikoak sustatzeko heziketa-proiektuak prestatzea. Diru-laguntzei esker, 20 bat elkarte 40 bat ekimen sustatzen dituzte urtean, eta, 2014an, 290.000 eurokoa da aurrekontua.

VI. Diru-laguntza izendunak

- Terrorismoaren Biktimak Fundazioa: Urtero, Terrorismoaren Biktimak Fundazioarentzako 54.000 euroko ekarpena ezartzen du Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren aurrekontuak.
- Fernando Buesa Fundazioa: Gobernu Kontseiluak 2000ko abenduaren 26an onartutako erabakiarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Fernando Buesa Fundazioari atxiki zitzaion, laguntzaile. Eusko Jaurlaritzak urtero berritzen du konpromisoa, eta, aurrekontuen bidez, 32.800 euroko diru-laguntza izenduna ematen dio.
- Kriminologiaren Euskal Institutua: 2011tik, Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuak ikerlan bat edo gehiago egiten du urtean, Biktimen Zuzendaritzaren ekimenez, biktimek egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideak erabili ahal izateko jarduera eta politikak diseinatzeko. 2014an, diru-laguntza izenduna 47.000 eurokoa izan da. 2013an, berriz, ikerlanaren ardatza “erailketen zeharkako biktimen nahigabe eta esperantza” izan zen, eta Gertu programa diseinatzeko oinarria izan zen haren emaitza.

VII. Euskal Herriko Unibertsitatearekiko lankidetzak-hitzarmena, “Esperientzia traumatikoetako biktimei laguntza emateko espezialista” graduondoko berezko titulua emateko ikasketak garatzeko

EHUK eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko eta Justiziako sailek sinatu zuten, 2007ko abenduaren 5ean, eta urtero berritu dute, tituluaren kostuak finantzatzen laguntzeko. Ur-

tean 25 bat ikaslek egiten dute graduondokoa, eta, gaur egun, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortu zenetik, Eusko Jaurlaritzak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez egiten du hitzarmenerako 50.000 euroko ekarpena.

VIII. Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen biktimen Balorazio Batzordearen sustapena eta koordinazioa

2012ko ekainean, 107/2012 Dekretua onartu zuten; Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko. Bake eta Bizikidetzaren Planak ezartzen du haren garapena eta sustapena, eta helburua da egungo legediaren arabera estaldurarik ez babesik ez duten giza eskubideen urraketen biktimak aitortzea eta haiei ordaina ematea. Horretarako, balorazio-batzorde bat sortzea xedatzen du Dekretuak, bere xedapenen babespean aurkeztu dituzten kasuak aztertzeko eta haiei buruzko irizpenak emateko. Sortu zenetik, 2012ko ekainaren 20tik, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza arduratu da Batzordearen lana zuzentzeaz, koordinatzeaz eta dinamizatzeari, eta, bitarte horretan, 118 elkarrizketa egin ditu, eta 50 lan-saio luze, kasuak banan-banan aztertzeko.

IX. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978tik aurrera motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen biktimak aitortzeko dekretuaren prestakuntza

Legealdia hasi zenetik, legezko tresnak sortzen aurrera egiteko lanean aritu da Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, legez aurkako kontraterrorismo-ekintzen ondorioz giza eskubideen urraketen biktima izan direnak (egungo legediak babesten ez dituenak) aitortzeko eta haiei ordaina emateko prozesuak garatzeko eta hedatzeko. Une honetan, zirriborro bat amaitzen ari da, aurreko atalean aipatutako dekretuari jarraipena emango liokeena, 1978tik aurrerako kasuei heltzeko.

X. Memoriaren Maparen burutzapena

Memoriaren Maparen helburua da, udalekin bat, terrorismoak eta indarkeriak bidegabe ki hildakoak omentzeko eta oroitzeko ekitaldiak sustatzea. Aurreko legealdian jarri zuten martxan ekimena, Eusko Legebiltzarraren ekimenez, baina haren garapena eskasa izan zen. Horregatik, Bake eta Bizikidetzaren Planak hura sustatzeko helburua finkatu zuen. 2014ko maiatzaren 29an, dokumentu bat aurkeztu zuen Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, tokian-tokian horrelako oroitzapen-ekitaldiak antolatzen laguntzeko gomendio, iradokizun eta irizpide praktikoak biltzen zituena, eta, gero, udal guztiei helarazi zien. Hain zuzen ere, horrelako ekitaldien antolakuntzan elkarlanean aritze aldera, hori da udalekin eta indar politikoekin hitz egiten hasteko oinarria. Gainera, ekimena hobeto gauzatzearren, biktimen datu-basea udalerriz udalerriz berraztertzen ari gara.

2.2. Jarduera berriak:

XI. Adi-adian modulua

Hezkuntza-arloan, Adi-adian modulua sustatzen ari gara ikasturte honen hasieratik, biziki sustatu ere, biktimen lekukotasunak entzutea elkartasunean, enpatian eta giza duinta-

sunean hezteko esperientzia bihurtzeko. Aurreko legealdietako esperientziak ditugu aurrekari. 2013-2014 ikasturtean, Euskadiko ikastetxe guztietako zuzendariei eman diegu moduluaren berri, sareak koordinatzeko bileren eta berritzeguneen bitartez, eta, 2014. urtearen amaieran, berriz, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak haren bilakaeraren balantze bat aurkeztuko dute.

XII. Gertu programa.

Praktikan, erraza da Gertu programa garatzea: elkarrizketa zuzena hastea da kontua, banaka-banaka, erail dituztenen Euskadiko familiekin. Joan den ekainetik dago martxan programa, eta, orain arte, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza familien erdiekin (200 bat familiarekin) jarri da harremanetan zuzenean. Esperientzia oso baliagarria izaten ari da, eta, harreman guztiak amaitzen direnean, ondorio interesgarri eta konstruktiboak atera ahal izango ditugu. Memoria eraikitzen laguntzeko, beren lekukotasuna grabatzea eskaintzen diegu biktimei, eta asko daude prest: heren bat.

XIII. Ekimen berriak aztertzeko programa

Gertu programaren bilakaeratik behin-behinean atera dezakegun lehen ondorioetako bat da biktima ugarik beharra dutela beste biktima batzuk ezagutzeko eta berdinekin elkartzeko eta hitz egiteko guneak izateko. Alde horretatik, sumatu dugu beren bizitza berre-raikitze prozesu pertsonalen berri jakin eta eman nahi dutela, eta gizartearekin batera hitz egin memoriaren eraikuntzaz eta elkarbizitzaz. Lan-hipotesi bat dira beharrok, eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza haiekin lanean ari da dagoeneko. Sakontzeko, esperientzia pilotu txikiak jartzen ari da martxan, programa berriak sustatzeko oinarria izan daitezkeelakoan. Pentsatzekoa denez, biktimek elkarri hitz egiteko gune diskretu eta seguruetan landu behar du ekimen berriak aztertzeko programa, eta, alde horretatik, Glenn Cree-ko esperientzia eta Adi-adian moduluan parte hartzen duten biktimen baterako lana aurrekari baliagarriak dira, esperientzia berrien erreferentziak.

XIV. Memoria-erakundeak sortzeko laguntza

Memoria-politika publikoen alorrean, bi proiektuekin konprometitu dago Eusko Jaurlaritza, eta bata zein bestea Bake eta Bizikidetzaren Planaren barruan daude. Batetik, Terrorismoaren Biktimen Memoria dugu: Espainiako Gobernuak zuzendu beharreko proiektu bat da, Terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babesteko Legearen arabera, eta Eusko Jaurlaritza ekimena sustatzen laguntzen ari zaio Espainiako Gobernuari. Bestetik, Memoriaren eta Elkarbizitzaren Institutua dugu: egun, Eusko Legebiltzarra hura sortzeko lege-proposamena aztertzen ari da.

XV. Erakunde terroristen 1960tik 2014ra bitarteko hilketen egoera prozesalari buruzko txostena

Bake eta Bizikidetzaren Planaren barruko hemezortzi ekimenetan lehenengoa da “Giza eskubideen urraketei buruzko txostenak egitea eta eratortzen diren ekintzak”. Haren ondorioz, 1960 eta 2013 artean gertatutako Giza Eskubideen Urraketen Egiaztapen Txostena aurkeztu zuten 2013ko ekainean, eta, ondorioen artean, zera gomendatzen zuen txostenak: argitu gabeko atentatu terroristen egoera argitzen laguntzea. Ildo horretan, 2014. urtearen hasiera aldean, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak txosten bat eskatu zion aditu talde bati, erakunde terroristen 1960tik 2014ra bitarteko hilketen egoera prozesalari (argipenari eta Justizia Administrazioaren tratamenduari) buruzkoa.

Azken ohar eta eskerra

Zentzuzko batasun batek biltzen ditu aipatutako jarduera guztiak: laburbilduz, “Eusko Jaur-laritzak hamabost lan-ildoren bidez garatzen ditu biktimen alorrean aplikatzen dituen politika publikoak, biktima guztiek egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideak erabili ahal izateko eta gizartea elkartzen laguntzeko, hau da, elkarbizitza gizartean normalizatzen laguntzeko”.

Hamabost jardueren zerrenda eta deskripzio sintetikoa konpromiso baten isla dira, eta aldi bereko lan-ildoak dira. Areago, hamabost jarduerak martxan daude gaur egun, eta etengabe-ko arreta eta lan egonkorra behar dute.

Behin azken oharrak egin eta gero, azken eskerra eman dezakegu. Izan ere, ezinezkoa izango litzateke zentzuzko batasun batek zeharkatzen dituen aldi bereko lan hauek guztiak egitea Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko teknikari eta langileek beren ekarpena egingo ez balute, ezinbestekoa baita. Merezi dute beren ahalegina berariaz aitortzea eta eskertzea.



3. dokumentua

**Eusko Jaurlaritzaren harremana
biktimekiko** 2013 eta 2014 urteetan zehar

Eusko Jaurlaritzaren harremana biktimekiko 2013 eta 2014 urteetan zehar

Gasteiz, 2015eko martxoaren 18a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

1. Eusko Jaurlaritzak edota beste erakunde, fundazio edo erakunde batzuek oroimenaren arloan antolatutako ekitaldietan parte hartzea

1.1. Euskadiko ekitaldiak

- **2013ko ekainak 2:** ETak hildako ertzainak omentzeko Ertzaintzak egindako erakunde-ekitaldian parte hartzea, **Iñigo Urkullu lehendakariak**, Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltrán de Herediak eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak parte hartuta.
- **2013ko urriak 10:** biktima guztiak oroitzeko ekitaldia, Donostiako Udalak antolatua, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernandok parte hartuta.
- **2013ko azaroak 10:** Eusko Jaurlaritzaren ekitaldia EHUn, **Iñigo Urkullu lehendakariak** eta Jaurlaritzak parte hartuta, Euskadiko oroimenaren eguna ospatzeko.
- **2013ko azaroak 19 eta 20:** Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernandok parte hartu dute IVACek antolatutako terrorismoaren biktimentzako mintegian, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak sinatutako hitzarmenaren barruan. 30 biktimak baino gehiagok hartu zuten parte mintegian.
- **2013ko azaroak 22:** Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak parte hartu du Joseba Goikoetxea hil zutenetik 30 urtera oroitzeko ekitaldian; alde guztietako biktimek parte hartu dute, baita autokritika egin duten eta Nanklares bidea izenez ezagutzen den gizarteratzeko bideari heldu dioten etakide ohiek ere.
- **2014ko otsailak 20:** Enrique Casas eta Fernando Buesa Eusko Legebiltzarrean oroitzeko ekitaldia, **Iñigo Urkullu lehendakariak** eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren taldeak parte hartuta.
- **2014ko ekainak 1:** jardunean hildako ertzainak omentzeko Ertzaintzaren erakunde-ekitaldia, **Iñigo Urkullu lehendakariak**, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernandok eta idazkaritzaren aholkulari Aintzane Ezenarrok parte hartuta.
- **2014ko uztailak 29:** Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernandok eta Enrique Ullibarriaranak parte hartu dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek Juan Mari Jauregiren oroimenez antolatutako ekitaldian.
- **2014ko urriak 13:** Eusko Jaurlaritzak finantzaturako Reconciliación film dokumentalaren estreinaldia, **Iñigo Urkullu lehendakariak**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako taldeak zein dokumentalean ageri diren hainbat biktimak parte hartuta.
- **2014ko azaroak 10:** 2014ko oroimenaren egunaren ospakizuna Eusko Legebiltzarrean, **Iñigo Urkullu lehendakariak**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako taldeak parte hartuta.
- **2014ko azaroa:** Santiago Brouarden oroimenezko ekitaldia Eusko Jaurlaritzan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzako taldeak eta **Iñigo Urkullu lehendakariak** parte hartuta.

- **2014ko azaroak 26:** Santiago Brouarden oroimenezko ekitaldia Bilboko udaletxean, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernandok parte hartuta.
- **2014ko azaroak 28:** IVACek terrorismoaren biktimekiko antolatutako II. mintegian parte hartzea Donostian; hogeita hamar bat biktimek parte hartu zuten.
- **2014ko abenduak 10:** Glencree, Biktima Hezitzaileak eta Adi-adian izeneko ekimenetan parte hartutako 41 biktimari René Cassin sariak emateko ekitaldia, **Iñigo Urkullu lehendakariak**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideen taldeak zein saritutako biktima gehienek parte hartuta.
- **2015eko urtarrilak 20:** Alonsotegiko biktimen senideekin eginiko bilera, atentatutik 30 urte bete ziren egunean, **Iñigo Urkullu lehendakariak**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako taldeak parte hartuta.
- Fernando Buesa Fundazioak urtero antolatutako jardunaldietan eta fundazio horrek antolatzen dituen hitzaldi tematikoetan parte hartzea. Azkenekoa **2015eko urtarrilaren 22an** antolatu zuten, estortsioari eta haren ondorioei buruz.
- Fernando Buesa Fundazioak urtero, **otsailaren 22aren** inguruan antolatzen duen «In memorian» ekitaldian parte hartzea. **2015eko otsailaren 19an** eginiko azken ekitaldian Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko talde osoak ez ezik, **Iñigo Urkullu lehendakariak** eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailburuk ere parte hartu zuten.
- **2015eko otsailak 20:** Fernando Buesa eta José Ramón Recalde Jaurlaritzako kide ohiak oroitzeko eta eskerrak emateko erakunde-adierazpenaren irakurketa (biak ETaren atentatu terroristaren biktima izan ziren), **Iñigo Urkullu lehendakariak** eta Jaurlaritza osoak parte hartuta.
- **Urtero otsailak 22:** Fernando Buesa Fundazioak Fernando Buesa eta Jorge Díez oroitzeko monolitoan urtero egiten duen oroitzapenezko ekitaldian parte hartzea. Azken urte honetan Monika Hernandok eta Aintzane Ezenarrok parte hartu zuten ekitaldian Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programetan parte hartzen duten alde guztietako biktimekin batera.
- **2015eko otsailak 27:** Fernando Buesa eta Enrique Casas oroitzeko ekitaldia Eusko Legebiltzarrean, **Iñigo Urkullu lehendakariak** parte hartuta.
- **Urte guztietako uztailaren 13an:** Miguel Angel Blancoren oroimenezko urteroko ekitaldia Ermuko udaletxean, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernandok parte hartuta.
- **Urte guztietako abuztuaren 8an:** Kortaren Bidetik Fundazioak Zumaian urtero antolatutako oroimenezko ekitaldian parte hartzea. Baita **Iñigo Urkullu lehendakariak** ematen dituen sariak banatzeko ekitaldian ere; azken edizioa **2014ko azaroaren 14an** izan zen.
- **Urtero, abenduaren 3an:** Ignacio Uria zenaren aldeko ekitaldian parte hartzea, harik eta familiak 2014an ekitaldirik gehiago ez antolatzea erabaki zuen arte.

Gainera, Eusko Jaurlaritza gonbidatuta egon den oroitzeko ekitaldi guztietan parte hartzea. Iragan **urtarrilaren 26an** Ramón Díazen adiskideek bere omenez antolatutako ekitaldian parte hartzea, Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programetan parte hartzen duten bateko eta besteko biktimekin batera. Halaber, Donostian Enrique Casas plaza inauguratzeko ekitaldian parte hartzea iragan **2015eko otsailaren 21ean**.

1.2. Euskaditik kanpoko ekitaldiak

- **2013ko apirilak 2:** AVTren Verdad, Memoria, Dignidad y Justicia saria emateko ekitaldian parte hartzea 2013ko apirilean.
- **Urtero, ekainaren 19an:** Kataluniako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak Hiperkorreko biktimen oroimenez urtero antolatzen duen ekitaldian parte hartzea.
- **Urtero, ekainaren 27an:** Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideetako zuzendari Monika Hernandok Madrilgo Diputatuen Kongresuak urtero antolatzen duen oroitza-ekitaldian hartzen dute parte.
- **2014ko martxoan** M11ko biktimen omenezko ekitaldian parte hartzea.

2. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua

Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek eta Biktimen eta Giza Eskubideetako zuzendari Monika Hernandok Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluan hartzen dute parte:

2013 urtean, hiru alditan bildu zen:

- **2013ko uztailak 21:** Honako elkarte hauek hartu dute parte: Zaitu, Estatuko segurtasun-endarren elkarteak, Fernando Buesa Fundazioa, AVT eta ASERFAVITE.
- **2013ko irailak 12:** Parte-hartzaileak: Zaitu, Fernando Buesa Fundazioa, Estatuko segurtasun-endarren elkarteak, COVITE, ASERFAVITE eta AVT.
- **2013ko urriak 21:** Parte-hartzaileak: Zaitu, Elkarteen Bilgunea, Fernando Buesa Fundazioa, Estatuko segurtasun-endarren elkarteak, COVITE, ASERFAVITE eta AVT.

2014 urtean, bi alditan bildu zen:

- **2014ko apirilak 1:** Parte-hartzaileak: Zaitu, Fernando Buesa Fundazioa, COVITE, ASERFAVITE eta AVT.
- **2014ko irailak 24:** Zaitu, Fernando Buesa Fundazioa, COVITE, ASERFAVITE eta AVT.

2015 urtean, behin baino ez da bildu:

- **2015eko urtarrilak 21:** Parte-hartzaileak: Zaitu, Fernando Buesa Fundazioa, COVITE, ASERFAVITE eta AVT.

3. Euskadiko elkarteekin eta fundazioekin egindako bilerak eta horiek antolatutako jardunaldietan parte-hartzea

- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak ASERFAVITE, Zaitu, Covite eta AVTren euskal ordezkartzarekin bilerak egin ditu, aurrena **2013an**, lantaldea eta Bake eta Bizikidetzeta Plana aurkezteko, eta hurrena **2014ko irailean**, Gertu Programa aurkezteko.
- **2013an**, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Coviteren urteko jardunaldietan hartu zuen parte.
- **2013ko azaroaren 23an**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari Jonan Fernandezek hizlari gisa hartu zuen parte ASERFAVITEren urteko jardunaldietan. **2014ko azaroaren 16an**, aldiz, Aintzane Ezenarrok.
- **2014ko urriaren 22an**, Aserfavite eta Zaitu elkarteak, Eusko Jaurlaritza lagun, Euskadi bisitatzera etorritako terrorismoaren biktima irlandarren ordezkartza batekin bildu ziren.
- **2015eko martxoaren 9an**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandez eta Biktimen eta Giza Eskubideetako zuzendari Monika Hernando ASERFAVITE eta Zaitu elkarteekin bildu ziren terrorismoak mehatxatutakoek jasandako sufrimenduari eta Ertzaintzak jasandako mehatxu eta indarkeria terroristari buruzko azterlan bat adosteko.

4. Elkarrizketa-errondak eta beste autonomia-erkidego batzuetako biktimen elkarteetan jardunaldietan parte hartzea

Legegintzaldia hiru bisita-erronda egin dira, Estatuko terrorismoaren biktimen elkarteekin biltzeko.

1. erronda: Biktimen eta Giza Eskubideetako zuzendariak honako elkarte hauek bisitatu zituen hiri hauetan 2013ko lehen hiruhilekoan.

- Valentzia: Valentiako terrorismoaren biktimen elkarte eta segurtasun indarren biktimen elkarte.
- Galizia: Galiziako terrorismoaren biktimen elkarte.
- Extremadura: Extremadurako terrorismoaren biktimen elkarte.
- Katalunia: Kataluniako terrorismoaren biktimen elkarte.
- Andaluzia: Andaluziako terrorismoaren biktimen elkarte.
- Madril: AVT, terrorismoaren biktimen elkarte.

2. erronda: 2013 urtearen amaieran egin zen bigarren erronda, Bake eta Bizikidetzeta Plana elkarte horiei beraiei ezagutarazteko.

Gainera, 2013 urtean zehar, Andaluziako, Errioxako, Extremadurako eta Valentziako elkarteek antolatutako jardunaldietan hizlari gisa hartu zuen parte, hala nola Estatuko Segurtasun Indarrek Donostian antolatutakoetan.

3. erronda: Enrique Ullibarriaranak 2015eko martxoan ekin dio hirugarren erronda gauzatzeari, Estatuko elkarteekin bilduz eta horiek antolatutako jardunaldietan hizlari gisa parte hartuz:

- **2014ko azaroak 14, 15 eta 16:** Andaluziako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak antolatutako jardunaldietan hizlari gisa hartu zuen parte.
- **2015eko martxoak 9:** Valentziako Terrorismoaren Biktimen Elkarteko zuzendaritza-batzordearekin bildu zen.
- **2015eko martxoak 10:** Valentziako Terrorismoaren Biktimen Elkartearen jardunaldietan parte hartzea.
- **2015eko martxoak 13:** Extremadurako Terrorismoaren Biktimen Elkarteko zuzendaritza-batzordearekin bildu zen, Villanueva de la Serenan (Badajoz).
- **2015eko martxoak 14:** Extremadurako Terrorismoaren Biktimen Elkartearen jardunaldietan parte hartzea, Villanueva de la Serenan (Badajoz).

Biktimen eta Giza Eskubideetako Zuzendaritzak urtero hartu du parte Andaluziako, Extremadurako eta Valentziako elkarteek eta Segurtasun Indarren Biktimen Elkarteak antolatutako jardunaldietan.

Elkarteekin harreman zuzena izateaz gain, bi bilera egin dira Barne Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoetako biktimen gaineko politiken arduradunekin. Lehena, **2013ko abenduaren 12an**, eta bigarrena **2014ko azaroaren 18an**.

5. Zuzeneko bilerak biktimekin

Biktimekin harreman zuzena dugu egunero, bai bulegora bisitan datozelako, bai beren udalerrietan hitzordua jartzen dugulako. Bilera horien zergatiak askotarikoak dira: arreta-ekintza jakin bat edota biktimen topaketa-programetan edo Adi-adian parte hartzeko proposamenak.

Era berean, GALen eta eskuin muturreko biktimekin ere bilerak egin dira. Horiei, terrorismoaren biktima diren aldetik, Barne Ministerioak dagokien erreparazioa ukatu egin die.

Horiez guztiez gain, Gertu programak biktimekiko zuzeneko harremana eta harreman pertsonala areagotu ditu. 2014ko azken hiruhilekoan, nagusiki Enrique Ullibarriarana eta Aintzane Ezenarro telefonoz jarri dira harremanetan Euskadin bizi diren terrorismoak hildako 300 pertsonaren baino gehiagoren senideekin. Halaber, harreman pertsonal eta zuzenekoa izan dute horietako laurden batekin.

6. Bilerak Adi-adian Programaren esparruan

2013tik aurrera: Programaren parte-hartzaile guztiekin banakako bilerak egin dira, parte hartzera gonbidatzeko.

2013ko otsailak 1: Adi-Adian programan parte hartu zuten lehen biktimak **Iñigo Urkullu lehendakariarekin** eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzako lantalde osoarekin bildu ziren Lehendakaritzan.

Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen 70 lekukotza eskaini dira ikastetxeetan, eta horietan guztietan Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzako lantaldeko kideren bat izan da, laguntza emateko.

7. Bilerak Eraikiz Programaren esparruan

Eraikiz programaren esparruan, biktima-talde bat 2014ko ekainaz geroztik ari da biltzen, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak koordinatuta. Gaur-gaurkoz, bost aldiz baino ez dira bildu, bizikidetzari egin diezaioketen ekarpenaz gogoeta egiteko balio izan dutenak.

8. Bilerak segurtasun-indarren eta eskuin muturreko indarkeriaren biktimekin

Giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren babesean sortutako Balorazio Batzordea 22 aldiz bildu zen 2013an eta 47 biktima elkarrizketatu zituen. 2014an, 24 bilera eta 61 elkarrizketa egin zituen.

Gainera, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak hainbat bilera egin ditu biktima horiekin, dekretuari egindako aldaketen aurka Espainiako gobernuaren ordezkariak aurkeztutako errekurtoa dela medio:

- **2014ko irailak 22:** bilera Bizkaiko biktimekin Bilbon.
- **2014ko irailak 23:** bilera Gipuzkoako biktimekin Donostian.
- **2014ko irailak 29:** Gogoetarako eta elkartzeko jardunaldiak Bilbon, Euskadi osoko biktimekin.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia poliziaren eta eskuin muturreko taldeen biktimen elkarteekin ere bildu da, tartean, Goldatu, Egiari Zor eta Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak.



4. dokumentua

**KREIk egindako
azterlanen laburpena**

KREIk egindako azterlanen laburpena

Bakegintza eta Bizkidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizkidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

2013ko azterlana. **EAEn bizi diren terrorismoaren biktimak: egonezina eta itxaropena hilketen zeharkako biktimetan**

I. Helburuak eta metodologia

Terrorismoa amaituko zelakoan, lanaren helburu nagusia zen 1960tik talde terroristek hildako pertsonen senideen talde esanguratsu batek, EAEn bizi denak, 2013an egoera pertsonalari eta sozialari buruz banako gisa dituen pertzepzioak ikertzea. Ikerketa zientifiko zorrotz baten bidez, zera ezagutu nahi zen: batetik, gizarte-eragileen –zigor-justiziako administrazioak eta espetxe-administrazioak batik bat– eman dieten tratuaren bilakaerari buruz zer iritzi duten eta, bestetik, zehazki, beraien inguruko eta gizarteari egiten dioten ekarpenari buruzko eztabaida publikoari buruzko beren jarrerak aztertzea.

Helburu nagusia lortzeari esker, beste helburu espezifikoago batzuk lortu ahal izan dira, azken horiek biktimekin erlazonatutako etorkizuneko politika eta jardueretan biktimen beren lehentasunezko interesak zehazteari buruz. Hala, bigarren mailako biktimizazio-prozesuak eragiten dituzten elementuei buruz hausnartu zen, horiek saihestu edo arintzeko, bai eta biktimei lehengoratzeko prozesuan laguntzen dieten faktoreei buruz ere –zentzu konplexu, zabal eta anitzean ulertuta faktoreok–.

Lana bost zatitan banatzen da, funtsean: sarrera, testuingurua, garatutako gaien analisisa (zati kuantitatiboa), eztabaida-taldeen analisisa (zati kualitatiboa), ondorioak eta eranskinak.

II. Ondorioak

1. Berrikuspen bibliografiko batetik abiatuta, ikerketa honen bitartez –mugak muga–, terrorismoaren biktimen errealitatera hurbildu gara modu objektiboan, eta zenbait mitoren edo **sinesmen faltsuren** errealitatea agerian utzi dugu, edo, gutxienez, zalantzan jarri Hori horrela, zera esan dezakegu, azterlan sako-nagorik ezean:

- a) zeharkako biktima asko dagoela;
- b) biktimak ez direla berdinak (eta ez dutela berdin pentsatzen eta ez dituztela behar berberak);
- c) horietako askok osatzea lortu dutela (bakarrik edo gertuko laguntzarekin baino ez), edo familia aurrera ateratzea edo familia bat osatzea, minez bizi badira ere oraindik eta gizarteak eta erakundeek nahiko laguntzen ez dituztela uste badute ere;
- d) biktima askok ez dutela errekonozimendurik ere jaso, ez eta inolako ordainik edo beren kasuan ego-kiagoa litzatekeen laguntzarik ere;
- e) zenbait biktimari tratu burokratiko hutsa baino ez dietela eman (baita zigor-justiziaren aldetik ere);
- f) alderdi politikoek eta komunikabideek erabili egiten dituztela sentitzen dutela;
- g) gehiengoa ez dela mendekatia;
- h) ezin daitezkeela barkamenaren, bizikidetzaren eta adiskidetzaren zeregin sozial eta politikoarekin kargatu;
- i) batzuei topaketa leheneratzaileak interesatzen zaizkiela, eta batzuek hezkuntzan parte hartu nahi dutela beren testigantzak emanda;
- j) kasu askotan justiziak ez duela argitu beren senidearen hilketa;
- k) biktima askok ez dutela beren familiarekin gertatutakoaz hitz egiten, gogoratzearen mina saihesteko;
- l) biktima askori hitz egitea eta beren testigantzak ematea gustatuko litzaikeela, ekimen publiko nahiz pribatuetan;
- m) biktima askok beste erakunde terrorista batzuen biktimak ezagutzea eta entzutea gustuko dutela;
- o) eragiten dieten gaiak buruzko eta, zehazki, terrorismoaren deslegitimazioari lotutako beren esanahi politi-koari –legean jasota dago– buruzko errespetuzko eztabaida publikoan parte hartzeko eskubidea dutela;
- p) asko inork ulertzen ez dituelakoan daude edo arrotz sentitzen dira zenbait gizarte-testuingurutan; eta
- q) unibertsitateak parte hartzeko dinamiketan hainbat hartzen dituela baloratzen dutela.

2. Talde terroristek hildako pertsonen zeharkako biktimek lehen eta bigarren mailako biktimizazio larria pairatu dute, eta biktimizazio mota hori aztertzen jarraitu behar da, beste batzuek gain; hartara, benetan zer neurritakoa den ezagutzeko. ETAk eragin ditu mota horretako biktima gehien. Testuingurua eta, zehazki, erakunde terrorista egilearen aldagarria funtsezkoak dira gertatutakoak eta bizitakoak zorrotz aztertzeko; dena dela, esan dezakegu biktima guztiek eskatzen dutela terrorismoaren deslegitimizazioa, gehiago edo gutxiago.

Gure esplorazio-azterlanean, zera adierazten da: denak minduta daude gaur egun ere, igarotako denbora eta erakunde terrorista egilea gorabehera; beren senidea hiltzeko justifikaziorik ez zegoela errekonozitzea eskatzen dutela (askok zergatia jakin nahi dute oraindik ere); eta egileen erantzukizunak errekonozitzea eskatzen dutela, bai eta gizarte-eragileena eta erakundeena ere, emandako tratuari dagokionez. Biktima askoren ustez, aipatu tratuan bilakaera izan da, bai gizartean, bai politikan; baina, ez da nahikoa. Biktima horietako askok diote, gainera, terrorismoa amaituko delako itxaropena dutela.

Gure ikerketan parte hartu duten biktima guztiak zorrotzak dira gizartearekin, erakundeekin eta komunikabideekin, eta ez erabiltzeko eskatzen dute. Gainera, beren egungo rola argi dute: hainbat eremutan, hainbat bideren bitartez, beren testigantzak ematea, bidegabe eragindako mina ahaztu ez dadin eta etorkizuneko belaunaldiek duintasunez eta minik gabe gogoratu ahal izan dezaten. Azken batean, zehazteko unean desadostasunik egon badaiteke ere, egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideak benetan baliatu ahal izan ditzatela nahi da, nazioarteko eta barruko arauetan jasotzen den bezala; hartara, gizarte etikoa eta politikoki hobea izan dezagun.

2014ko azterlana (I). **Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea** azterlana

I. Helburuak eta metodologia

Biktimen gaineko ikerketa lan honen helburua da terrorismoaren biktimen memoriaren inguruko diziplina arteko eremuaren barruan azterketa kritiko bat bideratzea. Hona hemen gure abiapuntuko hipotesia: memoriarako eskubidea/betebeharra eta parte hartzeko eskubidea arauetan jasotzeko moduak eragin mugatua dauka hori espazio publikoetan baliatzea ikusarazteko garaian. Gainera, ikusaraztea adostasun handiagorekin egin zitekeen, memoria leheneratzailearen eredian oinarrituta.

Azken batean, hauek ditu hizpide lanak:

- a) batetik, biktimek parte hartzeko duten eskubidea eta biktimek eta gizarteak memoriarako duten eskubide partekatua positibizatzeari eta memoria justizia gisa kontzeptualizatzeari buruzko hainbat ikuspegi teoriko.
- b) eta, bestetik, biktimek tokiko biktimizazio- eta lehengoratzeko-espazio eta -testuinguruekiko duten begiradaren garrantziari eta biktimek proiektu sortzaileen bidez parte hartzearen izaera terapeutikoari buruzko azterlan enpirikoak.

Espazio publikoetako memorializazio-prozesuek biktimentzat dituzten esanahiak aztertzea da azken helburua. Horretarako, berrikuspen bibliografikoa eta landa-lana bera oinarri hartuta, memoria leheneratzailearen eredu bat –parte hartzeko aukera ematen du, inklusioa da, erantzukizunak zehazten ditu, ahalduntzen du eta prebentioa da– eraikitzea dakarten edo ez dakarten faktoreak eta testuinguruak zehaztuko dira, biktimen esperientziak eta espazio publikoetan –birtuala barne– esku hartzeko (politikan, hezkuntzan edo artean) beren proposamen zehatzak abiapuntu hartuta.

Azterlanak funtsezko lau zati ditu, eta, horrez gain, sarrera bat, ondorioak, bibliografia bat eta zortzi eranskin. Lehenik, memoriarako eskubidearen eta betebeharraren positibizazioari heltzen zaio, bai eta parte

hartzeko eskubideari ere. Bigarrenik, eskubide/betebehar horrek eta espazio publikoak zer erlazio duten aztertzen da, eta zenbait gizarte-agenteren zenbait ekimen zerrendatzen dira. Hirugarrenik, memoria lehenatzailearen eredu bat proposatzen da. Laugarrenik, biktimekin izandako eztabaida-taldeen emaitzak aurkezten eta aztertzen dira, hasierako hipotesietako batzuk frogatzeko eta etorkizuneko ikerketetarako beste batzuk proposatzeko.

Honako sei ikerketa-teknika hauek erabili ditugu metodologia kualitatibo baten barruan:

- A) Gaiaren egoerari buruzko berrikuspen bibliografikoa.
- B) Adituek galdetegiak osatzea.
- C) Eztabaida-taldeak egitea EHUko Kriminologia graduko Biktimologiako ikasleekin.
- D) Bi eztabaida-talde egitea terrorismoaren biktimekin.
- E) Terrorismoagatik kondenaturiko pertsona biktima-eragileekin elkarrizketak egitea edo, bestela, haiei zuzenduriko galdeketak bideratzea.
- F) Albisteen edukiaren gaineko azterketa.

II. Ondorioak

1. Memoriaren kontzeptua eta eskubidea

Lan honetan landutako memoriaren kontzeptu orokorra biktimizazio terroristaren, bigarren mailako biktimizazioaren eta bi horien bidegabekeriaren aitorenari lotzen zaio batik bat. Nolanahi ere den, biktima-esperientzietan, oso zaila izaten da «memoria» kontzeptua «justizia», «egia», «erreparazioa» eta «berriz ez errepikatzeko bermeak» kontzeptuetatik bereiztea; izan ere, horiek guztiak biktimen eskubidetzat jotzen dira giza eskubideen urraketa larriei buruzko nazioarteko araudian, baita barne-araudian ere, bereziki, terrorismoari dagokionez.

Memoria eskubide beregain gisa positibitzea, esaterako, terrorismoaren biktimen giza eskubideen aldeko pausotzat jo liteke. Landutako literatura espezializatu gehienak betebehar gisa aipatzen du memoria; batik bat, Filosofiatik, Historiatik, Zientzia Politikoetatik eta Zuzenbidetik. Dena den, bestelako eztabaida baten sorrera sumatzen da, Latinoamerikan hasiberria. Han, hainbat legek espresuki aitortu dute memoriarako eskubidea, eta biktimek auzitegietan egikaritu dute eskubide hori, baita nazioartera iritsi ere. Alabaina, oraindik ez dugu azterlan enpirikorik, biktimen eta gizartearen ongizateari eta interesei begirako erabaki judizial horien konponbidezko ondorioak ebaluatuko dituenik.

Inolako zalantzarik gabe, memoria kontzeptuak –bere ertz historiko, politiko, etiko eta espiritualekin– sobera gairatzen du dimentsio juridikoa; hala, araudi-kategoria batean txertatzeko zeinahi asmok (eskubide subjektibo zein kolektibo gisa) ezinbestean ekarriko ditu ezin konta ahala arazo legeak interpretatzeari eta aplikatzeari dagokienez, hitz hanpatsu baina sinbolikoekin itxaropen faltsuak sortzean bigarren mailako biktimizazioa eragiteaz gainera.

Boluntarismo-joeretan erori gabe, eta Historia ez bezalako zerbait dela jakinda –Historia beti da beharrezkoa egia heldu ahal izateko–, badirudi egokiagoa dela memoria kontzeptua Etikaren esparruan txertatzea; edo gutxienez, hortik abiatzea. Arlo horretan, eskubideez baino gehiago, betebeharrez hitz egin beharko genuke. Bereziki, gizartearen betebeharrez, eta hala badagokio, erakundearen betebeharrez. Horrek guztiak jarduteko eta parte hartzeko ezin konta ahala modu ekarriko ditu.

Nolanahi ere, positibismoa versus iusnaturalismoa betiereko eztabaida mahai gainera ekarrita, literatura konparatuaren eta barne-literaturaren analisiaren bidez, ohartuko gara nola askotan ez dagoen adostasunik giza eskubideetan oinarritutako balioen interpretazioari dagokionez, eta balio horiek dira, hain justu, memoriaren politika edo praktika ororen zimendu eta gidari. Balio horiek argi eta garbi adierazita egoten dira ba-

tzuetan legeetan; horren lekuko ditugu Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeak, terrorismoaren biktimen memoriari dagokionez. Alabaina, edukiari buruzko era askotako interpretazioak egon daitezke, eta horrek memoria askotariko eta ireki baten kontzeptuarekin dauka harremana, nahiz eta biktimetako batzuek nahasgarritzat edo justifikatzailetzat jo.

2. Memoriaren kontzeptua eta biktimologia: biktimen ekarpena

Biktimologiari, hain zuzen, biktimen begirada, esperientzia eta isiltasuna interesatzen zaio. Biktimologiak giza bizitzaren zatitzat ulertzen du biktimizazioaren dimentsio narratiboa. Zoriontsu izatera behartutako eta soilik sintomak aztertzen dituen gizarte honetan, biktimen minak eta ezkortasunak aukera ematen du bertan eten laburra egiteko, plan hau edo pixkanaka baina etengabe aurrera egitea beste helbururik ez duen zeinahi plan zalantzan jarriz eta geldiaraziz. Eten bat egiteak ez du ezinbestean esan nahi ezintasuna dagoenik; baizik eta begiratzeko pedagogia ahalbidetzen duen beste indar mota bat dagoela (Han 2012, 53-60). Azken urteotan IVAC-KREI institutuak egindako hainbat eztabaida-taldetan eta elkarrizketatan oinarrituta, esan genezake biktima askori axola zaiela ez soilik memoriari buruz duten begirada aintzat hartzea, baizik eta gizarteak beste modu batera begiratzen ikastea. Min ematen diete herrikideen begirada errealek, eta baita aitorpenik gabeko, axolagabetasuneko, manipulaziozko zein mesprezuzko keinu bidezko begirada metaforikoek ere. Etena egin biktimen begirada nekatuan, baina ez akatuan, biktimen begirada geldian, eta beste errealtate batzuetan sartzeko aukera izango dugu, eta era horretan, nor bere buruari edo gizarteak inposatutakoak baino askoz ere konplexuagoak eta lausoagoak diren nortasunetatik besteekin topo egiteko, hurbiltzeko, hitz egiteko eta konfiantza hartzeko aukera izango dugu.

3. Espazio publikoa eta memoria: kultura, komunitateak eta memoriaren errituak

Memoria kontzeptua arlo honetan sortu berriak diren diziplinetatik ere landu dugu: Giza Geografia eta Antropologia Kulturala, hain justu. Bietan egiten da «kultura», «espazio publikoa» eta «herritarrekiko harremana» kontzeptuei buruzko gogoeta.

Ikusgaitasuna, espazio publikoan

Espazio kontzeptua ez da mugatzen toki fisikora, giza esperientzian eta haren oroitzapenean duen garrantzia gutxietsi gabe. Ikuspegi zabalago batetik, espazioa ez da edukitzea hutsa (Relph 1976), ezta memoriaren eszenatokia ere. Espazioa, haatik, alderdi fisikoen eta kulturalen multzoa da, bertan hamaika harreman gertatzen direla, eta sarri askotan, okerragoa da azaldutako dikotomia: publikoa/pribatua. Horregatik, egile batzuek nahiago dute «atmosferaz» hitz egin, espazio publikoaren alderdi ikusezinak, baina funtsezkoak halere, nabarmentzeko.

Memoriaren denborak eta espazioak

Lanean zehar, memoriaren nonahikotasuna eta unibertsaltasuna izan ditugu hizpide. Hala, memoria digitalaren proiektuek tokia aurkitu dute ziberespazioan, ezagunagoa, berehalakoa eta nonahikoa izateagatik, eta ez hainbeste bere izaera geografiko-fisikoagatik. Dena den, hurrengo atalean aipatuko ditugun abantaila guztiak izanagatik, aipatzekoa da espazio birtualean ez dagoela topaketarako eta eztabaidarako tokirik; ondorioz, memoriak hotzagoak edo urrunagoak izango lirarteke.

Memoriaren ekonomia

Memoriaren ekonomiak zerikusia dauka memoriaren jardunen kostu eta onurekin. Askotako eta asko ez dira ukigaiak, ezta neurgarriak ere. Modu zehatzagoan, bi erronka jarri behar ditu aurrez aurre (Varona 2014):

- Alde batetik, biktimizazio larriari buruzko dokumentazio idatzirako, ikus-entzunezko dokumentaziorako eta artxiboetarako sarbidea errazteko eta gordetzeko erronka.
- Eta, bestetik, etorkizuneko belaunaldientzat, memoriaren hizkuntza adierazgarriak aurkitzeko erronka (ikus-entzunezkoetan eta artean oinarritutako sorkuntza-lanarekin), zientzia-analisiaren garrantzia galdu gabe

Ziberespazioan irekitako aukerei esker, memoriaren jarduera pribatu eta publiko ugari egin ahal izango dituzte, bereziki, belaunaldi gazteek. Hor txertatuko genuke komunikabide digitalen egitekoa; oso egiteko garrantzitsua, kontuan izanda, batzuetan, memoriarekin lotutako jardunei komunikabideetan ematen zaien tratamendua biktima gehienen esperientzietatik urrun dagoela (Kadmon 2014).

Memoriak, manipulatu izango ez bada, Historiak eta biktimen lekukotasunek argitutakoa izan beharko du. Botere-asimetriei galga jartzeko borondateak terrorismoaren biktima batzuen ahotsak beste batzuen ahotsen gainetik jartzea saihestu beharko du.

Nolanahi ere den, memoria beti izango da ez-perfektua, eta giza eskubideei dagokienez orainari lotuta joango da. Politiketan eraginkortasun kontzeptuaren intereseko ulermenagatik orrialdea pasatzeko eta aurrera egiteko premia hertsia izanda ere, topaketarako geldialdi barea izango da memoria.

Memoriak, etikoki koherentea izateko, parte-hartzea eta osagarritasuna eskatzen ditu, eta biktimek ez dute beti hala denik uste, nahiz eta, udaletxe batzuen salbuespenarekin, memoriaren jardunak ugariak izan euskal testuinguru publiko zein pribatuan –III. kapituluan ondoriozta daiteke hori.

4. Ikuspegi konponarazle batetik, memoriaren politika eta jardunetarako aholkuak

Memoria konponarazleak ekintza garrantzitsuak bilatzen ditu biktimentzat, sinbolikotik harago. Eta horretarako, biktima-eragilearen konponbidezko begirada txertatzen du. Ekintza horiek zerikusia dute biktimizazioaren dimentsio objektibo eta subjektiboekin (lehen mailakoa eta bigarren mailakoa), jasandako bidegabekeriaren aitorpenarekin eta biktima gisa behar duten aitorpenarekin. Memoriarekin lotutako ekintzak dira, gizarte pluralista batean duten parte-hartzea aitortuko dutenak. Ekintza horietan, onarpena, harrera, konfiantza eta lasaitasuna sentituko dute, eta ez ukoa, zalantzan jartzea eta izua. Memoria konponarazlearekin lotutako jardunek hurbileko gizarteak eratutako mezua ere badaukate: terrorismoaren deslegitimazioa, eta bide horretatik, herritarren memoria konponarazle bati buruz hitz egin dezakegu.

Memoria konponarazlearekin lotutako jardueren helburua ez da bakarrak izatea, baizik eta bestelako memoria-jarduera batzuen osagarriak, eta nola ez, egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta berriz ez erreplikatzeko bermerako mekanismoen osagarriak izatea. Jardueren bazterreko izaeraren baitan, bermatu behar da parte hartzeko berdintasuna izatea, eta jarduerak adierazgarriak izatea kaltea jasan duten pertsonen eguneroko bizitzan, ñabarduratarako eta eraldaketarako ahalmenarekin. Horretarako, beharrezkoa da eragile publiko zein pribatu ugariaren lankidetzaz izatea, eta prozesuetarako bideratzaile onak trebatzea.

Ikuspegi malgu eta sormeneko batetik, erreparazioa bultzatzeko topaketa baten bidez –berorren helburuen artean dago terrorismoaren deslegitimazioa, hurbileko komunitatearen laguntzarekin eta belaunaldi gazteengan eragina izanda–, biktimen parte-hartze aktiboa eta biktima-eragileek beren erantzukizuna onartzea ekarriko duen jardun oro (zentzu zabalean), gutxi-asko, memoria konponarazlearen jarduera bat litzateke.

5. Terrorismoaren biktima batzuen iritziarekin alderatzea

Ikerketa-lan honen azken atalean, alderatu egin ditugu, batetik, azterlan akademikoetako analisisetatik edo memoriaren ekintza politiko edo pribatutik eratorritako aurreko ondorioak, eta bestetik, hogeita bi biktimaren iritziak –EAEEn talde terroristek egindako hilketak edo hilketa-saialdietako biktima zuzenak edo zeharkakoak–, eta baita IVAC-KREI institutuak 2013. urtean egindako ikerketa-lanetik aterako ondorioak ere –EAEEn talde terroristek hildako pertsonen senitartekoei egindako 154 galdetegi eta zeharkako hogeita lau biktimarekin egindako bi eztabaida-talderen analisia–. 2013ko galdetegiaren emaitzak eta 2013 zein 2014ko eztabaida-taldeen emaitzak oso antzekoak dira. Horrek indartu egiten ditu horietan ateratako ondorioak; betiere, biktimen askotarikotasuna eta euren biktimizazioaren dimentsio subjektiboen dinamismoa aintzat hartuta.

Biktima gehienek ez dute ikusten memoria eskubide gisa, edo ez dute, bederen, horren kontzientziarik – memoria, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako araudian jasota dagoen gisa, ez baitute ezagutzen–. Aitzitik, memoria hitza, lehenik eta behin, gizarteak oro har duen betebeharrarekin lotzen dute; eta bigarrenik, erakundeek duten betebeharrarekin. Era berean, taldeetan ez da hitz egin biktimek eurek me-

memoriarako duten betebeharrak, nahiz eta ispilatu duten beren senitartekoen memoriagatik duten konpromiso pertsonala, ondorengoekiko konpromisoari begira, etorkizunean, bakean eta bidezkitasunean oinarritutako gizartea izateko.

Dena den, parte hartu duten biktimek memoriarako duten eskubide espezifikoak duten ikuspegi orokorraren gabeziak eta udal zein auzitegien aurrean erreklamazio formalik egin ez izanak (hein batean, erakundeei begira duten eszeptizismoa erakusten du horrek), ez dute inolako zerikusirik memoriarekin lotutako ekintza parte-hartzaile, hurbileko eta pertsonalizatuak, espazio publikoan egindakoak, argi eta garbi eskatzearekin, era horretan, memoriaren gizarte-dimentsioa aitortu. Zaila da jakiten zer den zehazki biktima bakoitzak espazio publikoan "hurbiltasuna" hitzarekin esan nahi duena. Baina ondorioztatu genezake memoriarekin lotutako ekintza garrantzitsutzat jotzen dituztela, era batean zein bestean, euren parte-hartzea dutenak, eta parte-hartzeari, benekotasunari eta koherentziari begira berdintasuna ispilatzen dutenak, sinbolismo hutsetik harago. Horrekin lotuta, biktima batzuek uste dute memoriarekin lotutako ekintzak garaiz kanpokoak eta inkoherenteak direla, aurretik egiagatik, justiziagatik, erreparazioagatik eta oro har gizarte eta erakundeen babes zein aitopenagatik inolako ahaleginik egin ez bada –batik bat, udalerrietan.

2014ko azterlana. **Terrorismoaren biktimekin tratatzeko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko jardunbide egokien gida orokorra**

I. Helburuak eta metodologia

Ikerketa honen oinarri juridikoa da 2012/29/EB Zuzentarauak biktimei tratu onbera ematea eskatzen duela, batez ere delitu larrietan. Arau horren tituluan eskubideen garrantzia ez ezik, laguntzarena ere jasotzen da. Horren ondorioz, azterketa hau ikerketa eta ekintza gisa planteatzen da, helburu orokor batekin:

- 1) Terrorismoaren biktimekin harremanetan dauden pertsonekin lankidetzan jardutea, espezifikoki Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), horiekiko tratuan kontrastatutako jardunbide oneko jarraibideak sistematizatuz.

Helburu orokor hori lortzea lau helburu zehatzagorekin erlazionatzen da:

- 2) Jardunbide egokien nazioarteko estandarrak deskribatzea, indarrean dauden arautegietatik eratorritak, justizia-forma berritzaileak azpimarratuz arau-hauste penalen biktimen arretaren harira.
- 3) Oro har, delituen biktima diren eta, zehazki, terrorismoaren biktima diren pertsoneri loturik jardunbide egokien protokoloan dauden eta erabiltzen diren ikuskatzea, esparru konparatuan eta barnean.
- 4) Profesionalen hausnarketak biltzea eta sistematizatzea, batez ere EAEko terrorismoaren biktimekin harremanetan egon direnenak, tratu enpatiko, indibidualizatu eta pertsonalizatua zehazten duten (epe laburrean, ertainean eta luzean) eta biktimen erreparazio eta berreskuratze prozesuan laguntzen duten elementuei buruz.
- 5) Aurreko puntuen emaitzekin, jarduera orokorreko gida bat prestatzea, behar bezala egokituta, terrorismoaren biktimekin harremanetan egoten diren eragile publiko eta pribatuei zuzendu ahal izateko.

Beraz, gida orokorra honako hauetarako abiapuntua izan daiteke:

- 1) Biktimei zuzendutako programa indibidualizatuak prestatzea, jarduera-esparru desberdinak estaliz (osasuna, etxebizitza, hezkuntza, lana, gizarte-prestazioak, komunitate-harremanak, kultura...) administrazio-eskala desberdinetan.
- 2) Ekintzarako, ebaluaziorako eta terrorismoaren biktimekin tratatzen duten profesional eta pertsonen laguntzarako agendak prestatzea.

Testu hau ez dago soilik terrorismoaren biktimekin edota indarkeria-delituen biktimekin arretan espezializatu-tako zerbitzuei bideratuta, horiek jadanik arloko jardunbide egokiak ezagutzen dituztela jotzen baita, baizik eta, batez ere, zeharka edo puntualki terrorismoaren biktimekin erlazionatzen diren edota, biztanleria osora-ko jardunak, biktimekin ezaugarriak kontuan hartu behar dituzten zerbitzu publiko eta eragile sozialei.

Diziplina anitzeko esparru teoriko biktimologikoaren barruan, eta ikerketa-ekintzaren orientazio batetik, lana lau ardatz metodologikoren bidez egituratzen eta jorratzen da, aipatutako bi ikuspegiak (giza eskubideak eta zaintza) lanbide arteko bokazioarekin integratuz:

- 1) Dagoen bibliografiaren berrikuspena, batez ere existitzen diren nazioarteko arautegiei eta protokoloiei loturik, orobat prozedura-justiziarik eta justizia terapeutikoari, instituzioenganako eta instituzio arteko konfiantzari eta gobernantza onari loturiko azterketa empirikoak berrikustea. Zuzenbidetik, hemen biktimekin estatutuari buruzko azterketak hartuko ditugu kontuan, nahiz eta gure ikuspegiak prozesu penalaren esparrua gainditzen duen. Gizarte Lanetik eta Psikologiatik, modu panoramikoan hartuko dugu kontuan biktimekiko esku-hartzea, fase desberdinetan, biktimekin berreskuratzearen harira (II-V kapituluak).
- 2) EAEko terrorismoaren biktimei egindako elkarrizketen zatiak erabiltzea, jardunbide on edo txarren edota egoeraren pertzepzioaren adibide gisa. Elkarrizketa-zati horiek Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) lehenago egindako ikerketetatik hartu dira; ikerketa horiek 2011 eta 2013 bitartean egin ziren eta erraz identifikatzen dira, kolore desberdinetako tauletan baitaude (II-VI kapituluak).
- 3) Biktimekin tratatzen duten profesionalentzako, adituentzako eta elkarteetako kideentzako galdetegi labur bat prestatzea, banatzea eta aztertzea, arlo honetarako proposamenak eskatuz (VI. kapitulua).
- 4) Oinarritzko azken dokumentu bat idaztea, eragile publiko eta pribatu desberdinei egokitu daitekeena (VII. kapitulua).

II. Ondorioak

1. Terrorismoaren biktimekin eskubideei buruz

1. Nazioarteko eta Estatuko arautegiekin bat, terrorismoaren biktimekin honako eskubide hauek dituzte:

Biktima-izaeraren errekonozimendua izateko eskubidea, zeharkako biktimizazioa edo senideena barne

Informaziorako eskubidea (ulertzeko eta uler ditzaten)

Laguntza-zerbitzuak eskuratzeko eskubidea (psikologikoa, juridikoa, soziala, osasuna eta abar), salaketa penala egon ala ez.

Justiziarako eskubidea eta prozesu penalean parte hartzeko eskubidea, erreparazio materiala eta ekonomikoa eta berreskuratzeko justizia barne.

Babes-eskubidea (berriro biktimizatzea eta errepresaliak saihestea, arau-hauslearekiko kontaktua eragozteko, intimitatea babestea, eta abar), behar espezifikoaren errekonozimendua barne (adin txikiak, adin handiko pertsonak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, atzerriarrak, bazterkeria sozialeko egoeran dauden pertsonak, eta abar).

Tratu profesionala izateko eskubidea (biktimen beharrei buruzko prestakuntza egokiarekin eta kontzientziarioarekin); adeitsua, sentikorra, inpartziala, enpatikoa, indibidualizatua, koordinatua eta ebaluazioan eta ikerketan oinarritua.

Prebentzio-eskubidea, lehen mailako eta bigarren mailako biktimizazioan.

Egia eta oroimena izateko eskubidea.

Biktima-politikan parte hartzeko eskubidea.

2. Biktimen eskubideak giza eskubideak dira. Horrek ez du esan nahi aurkakotza edo gatazka ikuspegia dagoenik salatutako/prozesatutako/kondenatutako pertsonekin.
3. Eskubide horietan jardutean, biktimek norbait izan dezakete haiekin, laguntza handiagoa izateko.

2. Biktimizazio- eta berreskurapen-prozesuei buruz

1. Terrorismoaren biktimak askotarikoak eta ugariak dira. Interes eta behar desberdinak dituzte, baita familia beraren barruan ere, eta horiek aldatu egiten dira denborarekin eta egoera aldatzearekin. Haiekin lan egiten duten profesionalak kontzienteak izan behar dute eta errealitatearekin bat ez datozen aurreiritzi edo estereotipo posibleak kontrolatu behar dituzte.
2. Biktimizazio-prozesuak ez dira amaitzen delituaren subjektu pasibo deritzonarekin; alegia, zuzeneko eta zeharkako biktimgana luzatzen dira (senideak, lagun eta lankideak, biktimei laguntzen dieten pertsonak, gizartea eta abar), eta hori bizitzako esparru desberdinetan gertatzen da (pertsonala, familia, lana, hezkuntza, gizartea...), inpaktu eta efektu desberdinekin epe laburrean, ertainean eta luzean.
3. Biktimak ez dira errudunak eta ez dute biktimizazioan eragin. Ildo horretan egiten diren baieztapenek kulturalki biktimizazioa legitimizatzen dute.
4. Biktimizazio-arriskua eta errekupeartzeko aukerak ez daude berdintasunez banatuta.
5. Biktimizazioaren errekonozimenduak eta oroimenak errekuperazioa errazten du, betiere testuinguru egokian eta biktimen denborak errespetatuz egiten bada.
6. Biktimek tratu gaitu, adeitsua, duina, onbera eta behar espezifikoei sentikorra izateko eskubidea dute.
Profesionalek terrorismoak biktimetan -zuzenak eta zeharkakoak- duen eragina ulertu behar dute, eta haien berehalako, epe ertaineko eta epe luzeko beharrak ulertu behar dituzte, bizitzako arlo desberdinetan (osasuna, hezkuntza, enplegua, etxebizitza...).
7. Terrorismoaren biktimak ez dira arazo gisa tratatu behar, baizik eta haien bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa egokitu zaigun herritar gisa, haien ikuspegiak osotasunean kontuan hartuta, eta ez sektoreka zatituta (etxebizitza, lana, osasuna eta abar).
8. Biktimek ezin dituzte beren beharrak, eskubideak edo interesak beti ondo adierazi hitzetan. Egoera traumatikoari, ezagutza-falta gehitu behar zaio. Nolanahi ere, egoera hori terrorismoak eragindako bidegabekeriaren ondorioa da eta kontuan hartu beharreko esperientzia erreala da, biktimak ulertuko, errekonozituko eta lagunduko badira haien errekuperazio eta erreparazioan.

3. Eragile publiko eta pribatuen prozesu horietan dituzten erantzunei buruz

Estatu demokratikoei delituen biktimen egoera hobetzeko konpromisoa hartu behar dute, zehazki, terrorismoaren biktimen kasuan, eta gaitzetsi egin behar dute aspirazio politikoak defenditzeko indarkeria sustatzen duen kultura.

3.1. Erakundeen eta gizarte-eragileen betebeharrak nagusiak

1. Eskuragarri dauden baliabideei buruzko eta horiek lortzeko prozedurei buruzko informazioa eskaintzea.
2. Justiziaren eskuragarritasuna erraztea (penala, zibila, lanekoa, administrazioarekiko auzietarako), biktimentzako forma inklusiboak barne hartuz, hala nola berreskurapen-justizia, justizia prozedimentala eta terapeutikoa, nazioarteko estandarrak errespetatuz.
3. Berriro biktimizatzearen, delitu-egilearen edo beren ingurunearen errepresalien aurrean babestea, orobat beste pertsona edo instituzioen bigarren mailako biktimizazioaren aurrean babestea. Babesa ez dagokio soilik biktimaren osotasun fisikoari eta askatasunari, baizik eta baita haren duintasunari, bizitza pribatuari eta familia-bizitzari ere.
4. Larrialdiko doako arreta eta arreta jarraitua bermatzea. Arretak kontuan hartu behar ditu alderdi materialak, ekonomikoak, psikologikoak, sozialak, osasun-alderdiak, legalak eta, hala badagokio, erlijiosoak edo espiritualak. Prozedura sinplifikatu eta arinak aurreikusi behar dira, eta aldi behin ebaluatu behar dituzte behar bezala prestatuta dauden eta baliabide egokiak dituzten profesionalak. Espezifikoki kontuan hartu behar dira talde zaurgarrien beharrak, hala agokionean, arreta-zerbitzu espezializatuak sustatuz.
5. Biktimen partaidetzari bide ematea eragiten dieten arau eta zerbitzuak prestatzeko orduan, bai arazoaren definizioan eta bai horien maneiatze eta prebentzioa egituratzean. Gainera, ekintza publiko guztietan agentzia publiko eta pribatuaren arteko koordinazio-printzipioak nagusitu behar du, diziplina anitzeko eta lanbide arteko ikuspegiarekin.

Partaidetza hori, funtsean, elkarrekin bidez gauzatzen da, baina kontuan hartu behar da beti egongo direla biktimak elkarrekin kanpo, eta horiek ere eragile publiko eta sozialek entzun ditzaten esku-bidea dute.

Gobernuek elkarrekin ekintzari laguntzeko konpromisoa hartu behar dute eta kontzientziario publikoak sustatu behar dute halako biktimizazioen inguruan.

6. Erreparazio ekonomiko, sozial eta sinbolikoan laguntzea. Erreparazio ekonomikoari dagokionez, Estatu mailan konpentsazio-eskemak aurreikusi behar dira, elkartasun- eta subsidiarotasun-printzipioetan oinarrituta. Erreparazio ekonomikoa garrantzitsua da, jasandako bidegabekeria errekonozitzeko eta elkartasuna adierazteko modu bat baita, baina hori kalkulatzeko ezinezkoa da kaltearen konplexutasun osoa eta etorkizuneko errekonozimendu-beharrak barne hartzea. Erreparazio ekonomikoak ez du zentzurik, beste errekonozimendu- eta laguntza-formarik gabe.

Erreparazio sozial eta sinbolikoa egongo bada, oroimen inklusiboaren alde lan egin behar da, oroi-omen-tresna esanguratsuak erabiliz etorkizuneko belaunaldietarako, analisi zientifikoa sakontasuna galdu gabe. Behar bezala prestatuta, biktimiek erreparazio sozial eta sinbolikoan lankidetzan jardun dezakete, haien testigantzak eskainiz orotariko gizarte-, kultura- eta hezkuntza-testuingurutan.

7. Lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzio-politikak diseinatzea, egikaritzea eta ebaluatzea, faktore desberdinetan zentratuta, jazoerak errepikatzea zailduko dutenak. Biktima-politika guztiak azken biktimologia-ikerketak espezifikoki eta sendoetan oinarrituta egon behar dute, eta egoera berriki egin behar da nazioartean eta Estatuan.

Prebentzioak egia ezagutzea dakar. Horretarako, halako biktimizazioei buruzko artxiboak eta idatzizko eta ikus-entzunezko dokumentazioa eskuragarri jarri behar dira, eta horiei buruzko ikerketa independenteak sustatu behar dira..

Biktimiek ez dute barkamenaren eta adiskidetzaren karga eramateko betebeharrak izan behar. Gai horiek oso konplexuak dira eta arlo pertsonal eta sozialak, nahiz zenbait eragile, ukitzen dituzte. Ildo horretan programak susta daitezke, baina instrumentalizatu gabe eta baliozkotasun zientifikoarekin biktimen errekonozimenduan dituzten efektu positiboan inguruan eta eta haien eskubideen errespetuan.

- 8. Tratu duina.** Biktimen eskubideen aldeko arautegiari buruzko ikerketa biktimologikoen agerian uzten dute, legegintza-aurreikuspenak eta zerbitzu-sorkuntza onak izan arren, praktikan horiek ongi funtzionatzea ez dagoela soilik baliabide materialen mende, baizik eta biktimak egunerokotasunean erlazioatuko diren pertsonen prestakuntza espezifikoaren eta, batez ere, jarreraren mende. Nazioarteko arautegiek profesionalek ikuskatutako boluntario prestatuen rola sustatzen du Biek, boluntarioek eta profesionalek:
- 8.1. Komunikazio-teknikak garatu behar dituzte, entzuteari, enpatiari eta asertibitateari buruzko ezagutzekin eta praktikarekin. Entzute aktibo eta harkorrerako denbora eta espazio egokiak behar dira.
 - 8.2. Uneoro biktimen testuingurua kontuan hartuta, jarrera ez-paternalista sustatu behar da, ahalduntze-jarrera baizik; hartara, biktimek autonomia garatuko dute eta beren bizitzarekin jarraitu ahal izango dute al bait gehien eta beharrezko laguntza guztiekin.
 - 8.3. Ikuspegi osoarekin jardun behar dute, beren aukeren barruan. Terrorismoaren biktimekin lan egiten duten pertsonak biktimen bizitzan eragiten dute eta, hortaz, ezagutu egin behar dute biktimak bizi diren testuingurua (familia-, bizilagun-, gizarte-harremanen garrantzia eta abar), hori esanguratsua bada haien kasuan.
 - 8.4. Zuzendaritzako profesionalek eta kargu instituzionalek biktimekin zuzenean tratatzen duten profesionalei entzun behar diete eta laguntza eskaini behar diete.
 - 8.5. Eskainitako zerbitzuak biktimek berek ebaluatu behar dituzte prozesu sinple baten bidez. Horretan, ez dira soilik galdera itxiak egin behar, eta galdetu ez diren beste gai batzuei bide eman behar zaie; halaber, biktimen hobekuntza- edo aldaketa-proposamenak jaso behar dira. Barne eta kanpo ebaluazioan, kontuan hartu behar da, ez soilik ageriko elementuen neurketa (tratatutako kasuen kopurua eta abar), baizik eta baita ikusten ez diren elementuenak ere (konfiantza, ulermena eta ahalduntzea ahalbidetzen duten kalitatezko harremanak garatzen emandako denbora).
 - 8.6. Unibertsitatearekiko (prestakuntzaren, ikerketaren, kanpo ebaluazioaren, praktiken eta abarren bidez) eta beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzak sustatu behar da.
 - 8.7. Unibertsitatearekiko (prestakuntzaren, ikerketaren, kanpo ebaluazioaren, praktiken eta abarren bidez) eta beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzak sustatu behar da. Azken batez, terrorismoaren biktimekin erlazioa duten zerbitzu edo proiektuek ardurak sozial handiak dute erakunde gisa. Institutuzioaren beharretan zentratuta dauden, eta biktimenak alde batera uzten dituzten, protokoloak, jarduerak instituzionalak eta balioak saihestu egin behar dira.

2015eko azterlana. **Biktimen inpaktua, erre-silientzia eta interpelazioa: terrorismoaren biktimen arteko eta biktimen eta unibertsitate-ikasleen arteko topaketak**

I. Helburuak eta metodologia

Ikerketa/parte hartzeko ekintza batean barruan, hiru helburu planteatu zituen KREIk:

- 1) Eztabaida-taldean bidez, terrorismoaren biktimen arteko topaketa-espazioak sortzea, eta ahalegin berezia egitea 1970eko eta 1980ko hamarkadetako biktimekin harremanetan jartzeko.
- 2) Eztabaida-taldean eta ikus-entzunezko proiektu baten bidez, terrorismoaren biktimen eta unibertsitate-ikasleen arteko topaketa-espazioak sortzea, interpelazioaren kontzeptua –biktimak prebenitzeko gakoa, alegia– aztertzea.
- 3) Aipatu topaketen balorazio kualitatiboa egitea, eta lehen eta bigarren mailako biktimizazio-esperientziak aztertzea, bai eta erresilientzia edo lehengoratzeko faktoreak ere, eta gizarteari eta erakundeei zer eskatzen dieten, beren eskubide eta itzaropenei dagokienez.

Epistemologia kualitatiboak jakintzaren izaera konstruktibista-interpretatiboa du abiapuntu (González 2008). Gure ikerketak/parte hartzeko ekintzak ikuspegi narratibo-bisuala hartzen du, biktimologia kritikoaren esparruan. Parte hartzeko ekintzako biktimologia-ikerketaren dinamika eta emaitzetako batzuk agertzeko tresna bideografikoak erabiltzea kriminologia kulturalaren parametro batzuen barruan sartzen da eta, zehazkiago, biktimologia bisuala izenekoan (Walklate, McGarry y Mythen 2015); azken horretan, bada, traumei lotutako irudiak sortu eta erabiltzea eztabaidatzen da. Nolabait, ahozko biktimologia batekin ere lotzen da, ahozko historiarekin –errealitate hurbiltzeko metodo gisa– paraleloan.

II. Ondorioak

1. Terrorismoaren biktimekin harremanetan jartzeko zailtasunei eta eztabaida-taldeetan parte hartzeko aukerei buruz

30 laguni eman diegu aukera 2015eko hiru eztabaida-taldeetan parte hartze, eta telefonoz hitz egin dugu beraiekin. Guztira, 19 lagun aritu dira 2015eko hiru taldeetan; horietako batzuek errepikatu egin dute.

Azken urteetan zehar, eztabaida-taldeak izan ditugu terrorismoaren biktimen talde handitxo batekin. Nolanahi ere, zaila da harremanak irautea. Gainera, oraindik ere biktima gutxi parte hartzen dute eta, agian, ez dira topaketari onurarik handiena aterako lioketenak edo eskubide eta beharrak okerren estalita dituztenak. Dena dela, pertsona bakoitzaren borondatea eta denborak errespetatu behar dira, eta bigarren mailako biktimizazioa arinduko duten proiektu egoki eta malguetarako gonbita egiten jarraitu, malgutasunez.

Gure ustez, parte hartuko duten biktimen gaineko egokitzapen-irizpideak zehaztu baino garrantzitsuagoa da –ez dira objektiboak izango, lasaitasunez hitz egiteko prest egotea bezala definitzen baditugu– topaketaren interesa eta dinamizatzaileen prestaketa bermatzea, ideiak trukatzeko errespetuzko espazioak izan daitezzen. Biktimizazioen aniztasun handiaren hipotesiari jarraikiz, pluraltasun handiko espazioak lortzen saiatzea izango da normalena; horietan, ez da zertan alderdi guztien bat etorri; aitzitik, biktimizazioaren alderdi ezku-tuak mahaigaineratu behar dira, ezagutu eta konpon daitezzen. Espazio seguruaren esanahia bera biktima bakoitzak bizitakoaren eta bizi duen momentuaren araberakoa izango da. Bigarren mailako biktimizazioa saihestea da funtsezkoa eta, halakorik gertatzen bada, azkar antzematea eta konpontzea.

1.1. Parte-hartzaileak anonimotasunari buruz

Pertsona gehienek ez dute beren izena adierazteko arazorik eta talde hauek egin ditugun urteetan bilakaera bat ikusten da hor; nolahi ere, oraindik ere bada hala egin nahi ez duenik eta, horretarako erabat legezkoak diren askotariko arrazoiaren artean, hamarkadatan biktimak lagundu ez dituzten gizarte eta erakundee-kiko mesfidantza eta beldurra daude oraindik ere.

2. Gure eztabaida-taldeen ondorioei buruz

Biktimen inpaktua eta erresilientzia, terrorismoaren kasuan, prozesu indibidualak dira, dimentsio indibidualak, familiakoak, gizartekoak eta politikoak dituztenak. Parte hartu duten biktimek berriro adierazi dute urte-tan abandonatuta egon direla, baina baita aurrera ateratzeko indarra dutela eta etorkizun baketsu eta aske bat lortzeko beren ekarpena egin nahi dutela ere.


Azterlan honen berritasun gisa, bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu hausnarketa bat; hain zuzen ere, berriro ez errepikatze bermerako –dela haiekiko, dela etorkizuneko belaunaldiekiko– biktimen eskubideari lotutako interpelazioari buruz. Interpelatuz parte hartzea eta interpelazio hori erresilientzia-faktore bat izan daiteke, baina ikerketa gehiago beharko dira epe ertain eta luzerako efektuak neurtzeko.

Eremu humanistikokoan maila galtzearen testuinguruan, interpelatzeak gertatutakoa ezagutzea eta berradieraztea esan nahi du; horretarako, begirada entrenatu beharra dago, ez soilik testigantzak eman. Ezin ditugu biktimak justiziaren, egiaren, memoriaren, bizikidetzaren edo adiskidetzaren zeregin sozialarekin kargatu. Xavier Guixen arabera (2015, 26), begiratzea harago ikustea da: «Barneratzea da; izan ere, ikustea ez bezala, begiratzea ez da esperientzia bat, topaketa bat baizik... Bizi nahi izatea bizitzari aurrez aurre begiratzea da, eta, bizitzari so eginez, gure buruak deskubritzea».

Terrorismoaren biktimen lekukotzak jasotzeak ez du ezertarako balioko, ez badiegu gazteei erakusten haienganako interesa izaten eta haiei buruz hausnartzen, hala egin behar baitu banako bakoitzak eta belaunaldi bakoitzak bere ikuspegitik. Hala egin ezean, inork interpretatzen duen partitura bat izango genuke eta, horren aurrean, gai bati aldaketak egitez aberasten den beste bat: indarkeria terroristaren ilegitimitatea. Hori dela eta, gure insentsibilitate etikoa zalantzan jartzeko, biktimizazio terroristaren narratibak –bakarrak dira,

baina zenbait puntu partekatzen dituzte— jasotzen jarraitu behar dugu. Horiek jasotzeko garaian, adineko pertsonen beharrei erreparatu behar zaie.

Zer ez genuen egin? galderatik harago, zer egingo dugu orain dakigunarekin? da galdera, ondorengo grafiko biribilean eskematizatu dezakeguna.



3. Etorkizunera begirako proposamenak

Aurrekoa oinarri hartuta, honako hauek proposa daitezke:

- A)** Ildo ireki bat mantentzea, biktimen eta bestelako gizarte-agenteen (ikasleak, irakasleak, kazetariak, politikariak, eta abar) arteko topaketak egin ahal izan daitezen, hedabideen arretatik kanpo.
- B)** Lan honetan aztertutako esperientzia gizarte zientzien eta zientzia juridikoen unibertsitate-gradu guztietara hedatzea, giza eskubideen arloarekin bereziki lotuta daudenetara.
- C)** Biktimizazio terroristaren mota ezberdinei parte hartzeko aukera ematea (bahitutako pertsonak, lesionatutako pertsonak, mehatxatutako pertsonak, hertsatutako pertsonak, eta abar).
- D)** Lan-dinamikak garatzea, topaketa hauek antolatzen dituzten erakundeengan konfiantza sortzeko; zeregin horretan, lankidetzan arituko dira erakundeok eta biktima ez-elkartuen elkarteak.
- E)** Parte hartuko duten biktimentzat interesgarriagoak eta egokiagoak diren formatu berriak diseinatzea, beren profil soziodemografikoen eta inguruabarren arabera, bai eta ikasleekiko interakzioan ere.
- F)** Biktimizazio-esperientzien belaualdi arteko transmisioan erresilientzia-prozesuei buruz ikertzea, eta hain ezagunak ez diren biktimizazio-moduei buruz, esaterako, bahitutako edo lesionatutako pertsonak eta beren senideak.
- G)** Biktimizazioen erantzuleen testigantzak jasotzea eta ikasleekin batera kritikoki aztertzea, beren erantzukizuna errekonozitu badute edo ez, edo partzialki eta justifikazioekin errekonozitzen badute. Testigantzok aztertzeari esker, deslotura moralak nola funtzionatzen duen eta hori prebenitzeko zer egin dezakegun ikas dezakegu.
- H)** Justiziako eta memoria leheneratzaileko hainbat mailatako (mikro, meso eta makro) laborategi edo esperimentu-espazio sortzea, nazioarteko estandarren arabera topaketa leheneratzaileen esperientziak egin eta dinamizatzeke beste gizarte-agente batzuekin batera.



5. dokumentua

Gertu Programa

Gertu Programa

Biktimen arreta pertsonalizatua
eta parte-hartzea sustatzea

2014ko maiatzak 12

Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planean, IV. ekimenean, bi jardun-ardatz osagarri garatzea aurreikusten da. Batetik, jarraipenaren aldeko apustua egiten da, terrorismoaren biktimei laguntza, aitorpena eta erreparazioa emateko ildo nagusietan; eta, bestetik, politika horiek berritzea proposatzen da, gaur egun sortzen diren behar berriei erantzuteko.

Gertu Programa esparru horietatik bigarrenean kokatzen da, jarduera berriak gauzatzen dituen horretan. Praktikan, biktimen familiarekin hurbileko komunikazio-metodologia bat ezartzean datza Gertu Programa. Izan ere, Gobernuak tratatu humanoa eta pertsonala sustatu nahi ditu, eta harremanen esparrua gehiago landu.

Hori guztia, bi helbururekin: batetik, biktimen errealitatea entzun eta horri hobeto erantzuteko; eta, bestetik, biktimei oroimena eta bizikidetzaren eraikitzearen prozesuetan parte hartzeko bideak emateko.

Ildo horretatik, Gertu Programak kontuan hartzen ditu Kriminologiaren Euskal Institutuak (KEI) Euskadin bizi diren terrorismoaren biktimekin 2013an egindako ikerketa kualitatiboaren emaitzak. Hala, ikerketa horren bi ondorio bat datoz aipatutako helburuok.

Bai aipatutako KEIren ikerketa hori bai kezka horiek azaldu zituen Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak pasa den apirilaren 1ean egindako bilkuran.

Gogoeta horietan oinarritutako jarduera-programa berri bat abian jarriko zela aurreratu zuen lehendakariak ere, 2014ko apirilaren 11n Eusko Legebiltzarrak egindako Osoko Bilkuran.

1. Programaren deskribapena

Gertu Programa garatzea, praktikan, urrats samurra da. Elkarrizketa zuzena hastea da kontua, bana-banaka, erail dituzten biktimen familiekin, Euskadin bizi badira. Ondorengo faseetan, balioztatuko da ekimena beste profil bateko biktima zuzen zein zeharkakoei zabalduko zaien. Prozesu honek bi alde ditu: arreta eta parte-hartzea.

·Arreta

Lehenengo gakoa: *entzutea*. Maiatzaren 19an jarriko da abian programa. Orduetik eta urtea amaitu bitartean, eragindako familia bakoitzarekin harremanetan jarriko da Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Harreman horren helburua da entzutea, eta oinarrizko arreta-premiak identifikatzea.

Bigarren gakoa: *identifikatzea*. Idazkaritzako lan-taldeak erantzunak sistematizatuko ditu, esku hartzeko lehentasunak jartzeko terrorismoaren biktimen oinarrizko arreta-premien arloan. Lan horrek KEI-ren laguntza izango du.

Hirugarren gakoa: *erantzutea*. Lan honek aukera emango du jarduera multzo bat zehaztu eta abian jartzeko, zertarako eta biktimen egoera hobetzeko, batetik, eta oroimena eta bizikidetzera eraikitzekeo prozesu sozialetan biktimen parte-hartzea bultzatzeko, bestetik.

·Parte-hartzea

Laugarren gakoa: *eskaintzea*. Elkarrizketa horietan, bere lekukotza grabatzeko aukera emango zaio solaskide bakoitzari, oroimena eraikitzekeo parte gisa, eta dokumentu hori, bere garaian, Oroimenaren eta Bizikidetzaren Institutuan gordeko da.

Bosgarren gakoa: *grabatzea*. Hala nahi duten biktima guztiek lekukotza emateko aukera izango dute, bideoan grabatuta. Grabazio-formatua, egituratua eta profesionala izateaz gain, horrelako lekukotzek nazioarte mailan dituzten jarraibideekin homologatzeko modukoa izango da.

Seigarren gakoa: *aurrera egitea*. Lehenengo fase hori gauzatzeak programaren ebaluazioa egiteko bide emango du, eta, beharrezko diren zuzenketak gehituta, aurrera egingo da muinari eutsiz: kontaktu pertsonalizatua eta lekukotzen bilketa.

2. Arrazoiak

Euskadin bizi diren erailketen zeharkako biktimekin KEIk egindako ikerketa kualitatiboan hainbat ondorio ateratzen dira, eta Eusko Jaurlaritzak eraginkor bihurtu nahi ditu. Lehenik eta behin, biktima askok, askotariko arrazoiak direla-eta, bizi duten biktimizazio bikoitzaren edo bigarren mailako biktimizazioaren garrantzia azpimarratzen du, eta, segur aski, horri ez zaio behar bezala erantzuten.

Ikerketak, ildo horretatik, bi gako garrantzitsu nabarmentzen ditu: biktima askoren iritziz, ez daude asebeteta oinarrizko arreta eta tratuari lotutako premiak, eta biktima askok parte-hartze zuzenagoa eduki nahi dute oroimena eraikitzekeo prozesu sozialetan, beraien lekukotza emanez.

Eusko Jaurlaritzak biktimentzako laguntza- eta arreta-politiketan duen eginkizuna oso zehatz bideratu behar da biktimizazio bikoitzeko prozesuak ekiditera eta biktimizazioa bera gainditzen laguntzera.

Horretarako, bi gako hauek ditugu: harreman pertsonalizatuaren balioa sendotzea, oinarrizko premiei erantzuteko, eta ez biktimen kausaren erabilera politiko edo mediatikoaren interesei; eta biktima askok bizikidetzaren eraikuntza sozialean parte aktibo izateko duten nahia bideratzea. Oroimena eraikitzekeo orduan biktimen testigantza kontuan hartzea funtsezkoa da bizikidetzaren normalizazio sozialaren prozesuan. Horiexek dira Gertu Programa sortzeko arrazoiak.

3. Printzipioak

Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen ekintza Bake eta Bizikidetzaren Planean islatuta dago. Jardun horren printzipioak konpromiso dira, eta printzipio orokor batean eta printzipio espezifiko batean laburbil daitezke. Gertu Programa esparru horretan kokatzen da.

·Printzipio orokorra

Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politika publikoa biktimei dagozkien eskubideei eduki zehatza ematen dieten ardatzekiko konpromisoan irudikatzen da: egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatze-ko bermeak. Eskubide horiek nazioarte mailan aitortuta daude, eta Eusko Jaurlaritzak bere egiten ditu.

·Printzipio espezifikoa

Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politika publikoa bizikidetzaren politikaren parte da, eta bi konpromisotan oinarritzen da:

- Iraganarekiko begirada kritikoa, deslegitimatze bati terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideen zeinahi urraketa baliatu izana, bai egindako urraketen hutsaltze edo ukatze oro ere.
- Etorkizunarekiko begirada prebentiboa, berriz ez dela gertatuko bermatzeko, giza duintasunarekin, giza eskubideekin eta bizikidetzarekin zalantzarik gabeko konpromisoa oinarri izango duen gizar-te-hezkuntzako proiektuaren bidez.

4. Helburuak

Gertu Programak gertutasuna lortu nahi du, bertatik bertara elkarrizketa afektiboa eta eraginkorra edukitzeko aukera sortzen baita. Horixe da programa honen helburu nagusia: gertutasuna. Helburu espezifikoak lau ildotan zerrenda daitezke:

- Biktimen eta erakundeen arteko gertutasuna bultzatzea, elkarrizketa eta entzuketa zuzenaren bidez.
- Ahal den guztian, biktimen familian asebate gabe dauden oinarrizko arreta-premiei erantzutea.
- Laguntza ematea biktimizazio bikoitza gainditzeko eta biktimen bizi-ahalduntzea sustatzeko.
- Biktimen eta gizartearen arteko gertutasuna mantentzea eta sustatzea, bizikidetza eraikitzekeo prozesu sozialetan parte hartzeko aukera emanez.

5. Irizpideak

- Zorroztasuna.** Gertu Programa Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren biktimen bulegoko taldekideek gauzatuko dute zuzenean. Talde hori indartu egin da orain, gizarte-hezitzaile bat gehitu zaio eta. Lan honek KEIren aholkularitza izango du, batik bat elkarrizketak sistematizatzeko, arazoak identifikatzeko eta erantzunak prestatzeko.
- Gertutasuna.** Familiekin egingo diren elkarrizketak ez dira aurrez ezarritako galdetegi baten arabera egingo, eta, beraz, ez dira inkesta izango. Gertuko elkarrizketa bat eduki nahi da, humanoa, zuzena eta informala, solaskideen aldartea eta gaur egun dituzten premia nagusiak ezagutzera bideratua.
- Konpromisoa.** Biktimek adierazitako premiei alternatibak aurkitzeko, Idazkaritza Orokorreko taldeak ez du konponbiderako itxaropen faltsurik sortuko, batik bat konponbideak bere aukera eta eskumenetatik kanpo baldin badaude – Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legeak ezarritakoak–. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak azaldutako egoerak hobetzeko baldintzak sortzea izango du erdigune.
- Ahalduntzeak.** Arreta berezia jarriko zaie biktimizazio bikoitzeko egoerei. Ildo horretatik, ekidin egingo da paternalismo modu oro, biktimizazioa gainditzeko oztopo baita. Aitzitik, elkarlana, ardura partekatua eta biktimen bizi-ahalduntzea sustatuko du konponbideak eraikitzeko orduan.
- Parte-hartzea.** Gertu Programaren helburu nagusietako bat biktimak eta gizartea elkarrengandik gertu egotea da. Elkarrizketa horiek arreta berezia jarriko diote oroimena eraikitzeko lankidetzaguneak sortzeari, eta gune horiek gizartea murgilduta dagoen bizikidetzaren normalizatzeko prozesuan biktimak partaide senti daitezen baliatuko dira.



6. dokumentua

Eraikiz Programa

Eraikiz Programa

2014ko ekainaren 7a

Secretaría General para la Paz y la Convivencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENBERGIZENAZIA
Bakegintza, Baxerikako Baxerikako
para la Paz y la Convivencia

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planean, IV. ekimenean, bi jardun-ardatz osagarri garatzea aurreikusten da. Batetik, jarraipenaren aldeko apustua egiten da, terrorismoaren biktimei laguntza, aitorpena eta erreparazioa emateko ildo nagusietan; eta, bestetik, politika horiek ETaren indarkeriaren amaierak ekarri duen errealitate sozialera egokitzea proposatzen da.

Jarraipen-ardatza erabat aktibo dago eta ez dio garatzeari utzi Legegintzaldi hau hasi zenetik, eta era berean, ez zitzaion lantzeari utzi aurreko legegintzaldiaren azken egunetik. Dokumentu honetan Eraikiz Programaren edukia deskribatzen da, baita berriki aurkeztu den Gertu Programa ere. Bigarren ardatzean kokatzen da programa hori, hain zuzen, biktimen alorreko politika publikoak egokitzea eta horiek jarduketa berritzaile eta eraikitzaileetara irekitzea proposatzen duena.

Badugu, beraz, nondik abiatu. Hainbat abiapuntu ditugu. Lehenik, programa honen oinarrian, biktima ugari era pertsonalean bidaltzen dizkiguten mezuak eta proposamenak daude. Bigarrenik, Glencree ekimen gisa ezagutzen dugun esperientzia ere badugu. 2007- 2011 bitartean, terrorismoaren eta giza eskubideen urraketen hainbat eratako biktimen talde batek zenbait topaketa diskretu egin zituzten, eta topaketa horien emaitza eduki oso eraikitzailea zein bakegilea zuen deklarazio publiko bat izan zen.

Hirugarren abiapuntua Euskadiko biktimek era pertsonalean parte hartu zuten eta KREIk haiekin batera egindako azterketa kualitatibo bat da. Ikerketa honek biktimen bizipen, kezka eta aldarrikapenen aniztasunaren argazki angeluhandia eskaintzen du.

Ildo horri jarraikiz, kontuan izan behar dira Eusko Jaurlaritzaren Azterketa Soziologikoen Kabineteak 2014ko otsailean egindako inkestako emaitzak edo biktimen alorrean Bakea eta Bizikidetzaren Planari egindako gomendioak unibertsitate amerikarren txostenean.

Eta azkenik, Gertu programatik ateratako lehen ondorioak ditugu. Biktima guztiekin izandako elkarrizketen bidez, era sistematikoan eta kronologikoan eginak, egiaztatu ahal izan dugu biktima askok ez dutela beste biktimarik ezagutzen, hau da, ez dutela elkarrizketan jarduteko eta elkarrekin egoteko gunerik izan, bertan berdinen artean beren bizipen traumatikoa eta bizitza berreraikitzeke beren esperientziak alderatu ahal izateko.

Aurrekari horiekin, lan-hipotesi bat zehaztu dugu eta horretan oinarritzen da Eraikiz Programa. Lan-hipotesi hori honela formulatzen da: *gaur egungo testuinguruan komenigarria da gune seguruak, eraikitzaileak eta pluralak sortzea biktimek elkarrizketan jardun, entzun eta beren ekarpena egin ahal izateko:*

·Biktimizazioa gainditzeari eta bizitza berreraikitzeari dagokionez

·Bizikidetzaren eraikitzeari dagokionez.

Horrela, biktimak elkarri eta biktimak gizarteari gerturatzeko helburu bikoitza sustatzen saiatuko ginateke.

1. Diagnostiko bat

Testuinguru-aldaketa nabarmena da. Terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketak 50 urtean pairatu ondoren, ETArek amaieraren aurrean gaude. Euskal gizarteak elkarbizitzaren normalizaziorantz aurrera egiten du. Etapa berri bat ireki da zentzu guztiei erreparatuz gero. Aldaketa honek aholkatzen du gogoeta egitea biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako politika publikoetan duen eraginari buruz. Egoera berri honetan kokatzea eta horrek dakarren eraldaketari buruz hausnartzea komeni da.

Alde batetik, elkarbizitza berri bat eraikitzea egingarriagoa izango da biktimak biktimizaziotik irteten badira eta, ahal den neurrian, beren bizitzak berreraikitzen badituzte. Aitorpen instituzionaletik erreparazio-politikoetatik harago, biktimei beren biktimizazioa saihesten zerk laguntzen dien galdetzeko unea da. Ildo horri jarraikiz, biktimek egin dezaketen ekarpena oso baliotsua izan daiteke; gertaera traumatiko berdina pasatu duten beste pertsona batzuek berreraikitze-prozesuak ezagutzea oso erabilgarria izan daiteke biktimek bila-kaera positiboa izateko. Beraz, Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritza honen ardura da ere berdinen arteko gune horiek sortzea. Horixe da Eraikiz Programaren lehen helburua.

Bestetik, Beste herrialde eta gizarte batzuetako esperientziak erakusten du indarkeriaren ondorengo egoeretan biktima eta gizarteak urrundu egin daitezkeela. Indarkeriak sortzen duen hondamendi nagusia hildako biktimena da. Hilketak ez dauka erreparaziorik. Min hori kontsolaezina da eta hori pairatzen duenak ulertezintzat jotzen du bizi den gizarteak normalizaziorantz egitea, bere bizitzaren normaltasuna hautsi zuen bizi-anputazioa errepara dezakeen erantzunik topatu gabe. Horixe da eraso biolentoen ondorioz hildako biktimen familia guztiek aurre eman behar dioten bakardadearen tentsioa, bai hemen bai munduko beste edozein tokitan.

Halere, aurrera begiratzea bizilege unibertuala da, baita biziraupenerako legea ere gizakien kasuan. Hori da gizakiaren modu bakarra iraganeko min bakoitzean harrapatuta ez gelditzeko. Horrela, gertaera pertsonal, familiar, sozial edo politikoki traumatiko baten ondoren, gizarteak aurrera egiteko, pairatutako traumari aurre egiteko, herritarrak baketzeko, gertatukoa berriz ez gertatzeko bitartekoak jartzeko joera dute.

Iraganeko minaren eta etorkizuneko itxaropenaren arteko tentsio horretan, beste leku batzuetan, biktima eta gizarteak urruntzeko arriskua egon da. Funtsezkoa da gertaera horren jakitun izatea arduraz jarduteko eta, ahal den heinean, saihesteko arrisku hori gauza dadila. Arduratsuena biktimaren eta gizartearen arteko konbergentzia sustatzea eta indartzea da. Asmo horren baitan kokatzen da Eraikiz Programaren bigarren helburua.

2. Lan-proposamen bat

Eraikiz Programa kezka horiei erantzun nahi dien programa bat da. Programa ireki bat da, zeren hainbat garapen izan baititzake eta bertako parte-hartzaileen borondatearen arabera bilakatu behar baitu. Arrazoi horiek direla eta, orain soilik lehen fasearen ikuspuntua eta hurrengoetan jarraitzeko asmoa zehaztu da. Une honetan, beraz, programaren helburuez, abiapuntuaz, esparru orokorraz eta hasierako lan-programaz hitz egin dezakegu.

2.1. Helburuak

- Berdinen arteko elkarrizketa- eta topaketa-guneak sortzea bizitza berreraikitze prozesuak partekatzeko eta beste biktima batzuei esperientzien ekarpena egiteko.
- Elkarbizitzaren normalizazio-prozesuetako biktimek parte har dezatela sustatzea.

2.2. Abiapuntua

Eraikiz Programak elkarrizketan jarduteko eta entzuteko gune bat sortu nahi du ezarritako bi helburuekiko. Elkarrizketarako gune hau tentsio mediatikotik at egongo da eta bi pertsonak dinamizatuko dute: Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritzako pertsona batek eta esperientzia duen sona handiko pertsona edo erakunde batek.

2.3. Hasierako lan-programa

2014an zehar, Eraikiz programak proiektzio esperimentalak izango du. Horrekin programa praktikan jarzea entseaturako da ondorioak ateratzeko eta proiektua hobetzeko 2015ari begira. Lehen fase honetan, programaren xedea hasieran 15-18 biktimako talde batek parte hartzea izango da.

Talde hau Adi-adian programako biktima hezitzaileen taldeko kideek osatuko dute batik bat. Erabaki hori talde honek apirilaren 1ean lehendakariarekin izan zuten bileran adierazi zituzten inpresio eta iradokizunak jaso ondoren, eta elkarrizketan jarduteko zein elkarbizitzarako lekukotzak entzuteko esperientzia bizi izan ondoren hartu zen.

Hasierako fase honetan taldea handitu ahal izango dute parte-hartzaileek hala adostuta. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, ondoren, haiek hautatzeaz arduratuko litzateke kontuan izanik Adi-adian programarako parte-hartzaileak hautatzeko erabilitako irizpideak.

Hasierako taldea osatu ondoren, programaren xedea 2014an 3-4 topaketa programatzea izango da. Hurrengo faseetarako helburua 2015ean probintzia bakoitzean antzeko taldeak sortzea izango da. Aurrerago eskualdeetara hedatu daiteke; hala, elkarrizketa-topaketak biktimen bizilekuetatik gertu egin ahal izango dira.

3. Elkarrizketa-saioetako lan-metodologia

- Elkarrizketak komunikabideetatik at egingo dira beti eta parte-hartzaileentzako segurtasun- eta lasaitasun-giroan.
- Elkarrizketak bi pertsonak dinamizatuko dituzte: bata Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritzaren ordezkaria izango da eta bestea horretarako gaitasuna zein esperientzia duen erakunde edo pertsona bat. Bere egitekoa prozesua erraztea izango da.
- Saio bakoitzerako gogoetarako gaiak taldeak berak hautatuko ditu erraztaileekin hitz eginda, baina helburua beti izango da programari esleitutako bi helburuei ekarpena egitea.

-
- Gai batzuk sartzeko, gaian espezialista den norbait gonbidatu ahal izango da. Kasu honetan, bere hizaldiak sarrera modura balioko du eta, ondoren, parte-hartzaileek elkarrizketan jardun ahal izango dute eta ekarpenak egin ahal izango dituzte.
 - Topaketa bakoitzean, hiru gogoeta-modu konbinatuko dituen metodologia bat erabiliko da: lan pertsonala, lana talde txikietan egitea eta lana talde handian egitea. Azkenean, adostasunez ondorio batzuk ateratzen saiatuko dira.
 - Elkarrizketa horiek bokazio eraikitzailea dute. Adostasunei eta bat ez etortzeen akta jasoko da. Taldeak erabaki beharko du gogoetak dagokionari eta egokia denean bidaltzea edo ez bidaltzea.
 - Online plataforma bat sortuko da hainbat bileren arteko erlazioa mantentzeko eta dokumentuak zein gogoetak partekatu ahal izateko. Bilerako gai-zerrenda plataforma honen bidez bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei.

2014ko ekainaren 7a

Oharra: Programa honen abian jartzeak biktimen talde plural baten lan partekatua ekarri zuen. Lan honetatik Eraikiz Dokumentuaren aurkezpena eratorri zen (<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/28139-grupo-plural-victim-as-presenta-documento-eraikiz>).



7. dokumentua

**Bizitzeko eskubidearen aurkako
urraketen argazkiak, herriz herri**

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen argazkiak,
herriz herri

Getxo, 1960-2010

2015eko uztaila

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena.	6
-------------	---

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**.

1. ETApn, ETAm eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	9
2. GALek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	29
3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	31
4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak.	35

II. Egiaztatze- eta ikerketa-lan handiagoa behar duten kasuak .	37
--	----

Erabilitako iturri eta zerrendak.	41
-----------------------------------	----

Aurkezpena

Euskal kasuarekin loturik 1960tik 2010era bitartean terrorismoaren eta beste edozein motatako indarkeria politikoaren ondorioz izandako bizitzeko eskubidearen urraketak bildu eta argitalpen bat prestatu du Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak. Argitalpenak berritasun nagusi bat du: datuak udalerriz udalerriz ordenaturik ematea, helburua udalei datu-base bat ematea denez gero. Liburuxka hau Getxori dagokiona da.

Lan hau egiteko, biktimei buruz argitaratu diren zerrenda guzti-guztiak berrikusi eta erkatu ditugu: Barne Ministerioarenak, biktimen elkarteek, hedabideek, egile partikularrenak, Nafarroako Gobernuarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak, zehatz esatera. Datu horiek guztiak zehatz eta zorrotz laburtzea eta integratzea lan katramilatsu eta labaina da: kontsultatu ditugun datu-baseen artean alde nabarmenak daude, eta horregatik da katramilatsua; eta, bestalde, informazio honek sufrimendu latza eragin diezaieke hainbat pertsona eta familiari, eta horregatik da labaina. Esku artean daukagun hauek ez baitira, bistan denez, datu estatistiko hutsak.

Kasu gehien-gehieni dagokienez, nahikoa informazio eskuratu dugu, eta, gainera, informazio guztiak bat datoz. Zenbait gertakariri buruz (60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan gertatutako askori buruz, batik bat), ordea, ez dugu behar beste informazio biltzerik izan, edo eskura genituenak bertsio kontrajarri eta datu nahasgarriak baino ez ziren, eta, beraz, oraindik ez daukagu haiei buruz ondorio garbirik ateratzeko modurik. Alde horretatik, lan hau ez dago behin betiko dokumentutzat hartzerik, bertan agertzen diren kasu asko eta asko osatu eta hobetu egin behar baitira.

Nolanahi ere, datu guztiak oso sakon aztertu eta erkatu ditugu, eta, beraz, garbi esan dezakegu aztergai hartu ditugun gertakarien errealitate objektiboaren irudi zorrotz eta hurbila ematen dela bilduma honetan. Lehen aldiz, bizitzeko eskubidearen urraketa guztiak bildu eta biktimen izen-abizenak ematen dira argitalpen batean, hilketa eta biktima bakar bat ere kanpoan uzteke (nahi gabeko hutsegite edo omisio bat edo beste gorabehera).

Liburuxka hauetako bakoitzak udalerriz bat hartzen du ardatz, eta datu-base bana ematen. Hala, udalerriz udalerriz egindako erretratu hauetan gaur egun arte eskura dugun informazioaren berri ematen da. Dena dela, dokumentu honetan ez da biktimen aitoren ofizialik egiten: bizitzeko eskubidearen urraketei buruzko

informazioa ematen da. Oraindik biktimen aitorten instituzionala amaitzeke dago. Eztabaida bete-betean gaude. Hala ere, berriazko helburua beste bat izan arren, lan honek ekarpen bat egin nahi dio, berdintasun-printzipioari estu-estu jarraituz, ezinbestez denon artean egin beharreko biktimen aitortzari.

Erretratu hauen helburu nagusia hau da: Euskadiko udalei beren herri-hiriei buruzko ahalik eta informazio gehiena ematea, horren bidez oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko. Alde horretatik, lan-talde honek bat egiten du Euskadiko udalek horrenbestetan adierazitakoarekin, ondo ulertzen baitugu zer-nolako zailtasunak izan dituzten azken 50 urteotan indarkeriak eta terrorismoak beren herri-hirietan eragindako biktimei buruz behar beste informazio eskuratzeko (Memoriaren Mapa eta antzeko beste ekimen batzuk martxan jarri nahi izan direnean, esate baterako).

Udalerrri bakoitzari dagokion liburuxkan, udalerrri horretan bertan eraildako biktimak aipatzen dira, bai eta, beste lekuren batean hil arren, udalerrri horretan jaio edo bizitakoak ere. Edukia bi ataletan egituratu dugu: lehenbizikoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nabarmentzat har daitezkeen kasuak zerrendatzen dira; bigarrenean, berriz, ikerketa-lan handiagoa eskatzen dutenak. Lehen blokearen barruan, hilketak egiletzaren arabera eta ordena kronologikoan aurkezten ditugu.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak bizitzeko eskubidearen urraketatzat jotzen ez dituen kasuak, jakina, ez ditugu erretratu hauetan aintzat hartu, nahiz eta kasu horiek ere lotuta dauden gertatu zireneko indarkeriazko testuinguruarekin. Mota horretako kasuak dira, adibidez, suizidioak, indarkeriazko ekintza batean jazotako heriotzak, polizien arteko ustekabeko tiroketak eta abar. Nolanahi ere, hildako horien senitartekoek ere merezi dute, jakina, gure enpatia eta sentiberatasuna, gizalegeak hala agintzen baitu.

Hitz batean, agiri honen xedea argi-argia da: gure udaletako arduradunei oroitzapenezko proiektuak egiteko baliabide egoki bat ematea. Iraganen gurean pairatu dugun indarkeriaren aurrean, erakundeok memoria kritiko bat sustatzeko eginbeharra daukagu. Biktimen oroitzapenari bizirik eutsi behar zaio, gaur egun eta etorkizunean giza eskubideekin konprometituri jarraituko badugu; bizitzeko eskubidearekin eta pertsona guztien duintasunarekin, batik bat.

Sekula gehiago egin behar ez denari eta sekula ahaztu behar ez dugunari buruzko erretratu bana ematen da liburuxka hauetan. Erretratu diogu, hemen aipatzen direnek aurpegi eta begiak baitaizkate. Erretratu batek pertsona konkretu bat adierazten du; izen-abizen, senitarteko, adiskide, historia, amets eta proiektu konkretuak dauzkan pertsona bat, alegia. Bidegabeki hildako biktima bakoitzaren sufrimenduaren giza erretratu da agiri hau.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

1. **ETApm, ETAm** eta **ETAk** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

José Ramón Morán González

Data: 1975/04/22.

Adina: 32 urte

Non jaioa: La Vecilla (León).

Bizilekua: Sopela (Bizkaia).

Seme-alabak: 3 urteko alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia-inspektorea.

Destinoa: Getxo (Bizkaia), hiru urte lehenagotik.

Egiletza: ETApn.

Lekua: Algorta (Getxo).

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Atentatua gertatu eta hiru egunetara, Gobernuak salbuespen-egoera ezarri zuen Bizkaian eta Gipuzkoan.

2

Javier de Ybarra y Bergé

Bahiketaren eguna: 1977/05/20.

Gorpua aurkitu zen eguna: 1977/06/22.

Adina: 64 urte.

Jaioterria: Bilbo (Bizkaia).

Bizilekua: Neguri (Getxo, Bizkaia).

Seme-alabak: Sei seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Abokatu, industrialari eta politikoa. Bizkaiko Aldundiko presidentea (1947-1950), Bilboko alkatea (1963-1969), Gorteetako prokuradorea (1947-1969) eta enpresaria. El Diario Vascoko kontseilari ordezkaria izan zen 1939tik eta El Correo Español-El Pueblo Vascoko presidentea.

Egiletza: ETApm.

Lekua: Gorpua Barazar mendatean agertu zen (Zeanuri).

Prozedura: Neguriko etxean bahitu zuten, eta bere gorpua Barazar mendatean utzi zuten, bala batekin buruan.

3

Luis Carlos Gancedo Ron

Data: 1978/10/22.

Adina: 28 urte.

Non jaioa: Buyando-Tineo (Oviedo).

Destinoa: Areetako Guardia Zibilaren kuartela, Getxo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Gobela futbol-zelaitik gertu, Getxon.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua. Metrailaketa.

Datu gehiago: Atentatua beste bi guardia zibil hil ziren, Luciano Mata Corral eta Andrés Silverio Martín, eta beste bat zauritu egin zuten: Carlos Troncoso Currito, 26 urtekoa. Isilpean eginiko manifestazio batek, EPK-PCE-k antolatuak, atentatua salatu zuen.

4

Luciano Mata Corral

Data: 1978/10/22.

Adina: 58 urte.

Non jaioa: Puebla de Valdivia (Palentzia).

Destinoa: Areetako Guardia Zibilaren kuartela, Getxo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibileko sarjentua.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Gobela futbol-zelaitik gertu, Getxon.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua. Metrailaketa.

Datu gehiago: Atentatua beste bi guardia zibil hil ziren, Luis Carlos Ganzedo Ron eta Andrés Silverio Martín, eta beste bat zauritu egin zuten: Carlos Troncoso Currito, 26 urtekoa. Isilpean eginiko manifestazio batek, EPK-PCE-k antolatuak, atentatua salatu zuen.

5

Andrés Silverio Martín

Atentatuaren data: 1978/10/22.

Heriotzaren eguna: 1978/10/26.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: Gaucín (Malaga).

Destinoa: Areetako Guardia Zibilaren kuartela, Getxo (Bizkaia).

Seme-alabak: Ezkondua, seme-alabarik gabe.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bilboko ospitale zibilean, Getxoko Gobela futbol-zelaitik hurbil hiru egun lehenago larriki zauritu eta koma sakonean geratu ondoren.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua. Metrailaketa.

Datu gehiago: Atentatua beste bi guardia zibil hil ziren, Luciano Mata Corral eta Luis Carlos Ganzedo Ron, eta beste bat zauritu egin zuten: Carlos Troncoso Currito, 26 urtekoa. Isilpean eginiko manifestazio batek, EPK-PCE-k antolatuak, atentatua salatu zuen.

6

Joaquín Azaola Martínez

Data: 1978/12/19.

Adina: 55 urte.

Non jaioa: Getxo (Bizkaia).

Bizilekua: Algorta (Getxo).

Seme-alabak: Hiru seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Mecánica de la Peña enpresako delineatzailea. ETAko kide ohia, Borboiko Juanen bahiketa izan zitekeenean huts egin zuen, Monakon, 1974an. Eusko-media Fundazioak (Auñamendi Entziklopedia) jasotako informazioaren arabera, plana martxan zegoenean, Azaolak Jesús María Leizaola lehendakariari galdetu zion ea nork gomendatu zion kontzientziaz jardutea, eta Poliziari bahiketa-planen berri eman zien.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Algortako garaje batean, Mecánica de la Peña enpresako bi lankideren aurrean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Bertan behera geratu zen Borboiko Juanen bahiketa biktimak berak kontatu zuen "Los elegidos de Euskadi. Un atentado al futuro" liburuan, izengoitiaz sinatua.

7

Antonio Mesa Portillo

Atentatuaren data: 1979/10/11.

Heriotzaren eguna: 1979/11/02

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Rosal de la Frontera (Huelva).

Destinoa: Getxoko komisaria (Bizkaia).

Seme-alabak: Seme-alabarik gabe.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia-komisarioa, Getxoko komisariako buru.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Basurtuko Ospitalean, zenbaitek Algortan egindako tiroen bidez zauritzearen ondorioz.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua. Biktimak erasoari bere armaren bidez egin zion aurre, baina metrailatu egin zuten eta hogeitun bat balak eman zioten.

Datu gehiago: Bi pertsona zauritu ziren: Miguel Ángel González inspektorea eta zibil bat, Francisco Andrés Cobreros, gertakarietatik hurbil zegoen taberna batean baitzegoen.

8

José Miguel Palacios Domínguez

Data: 1980/01/19.

Adina: 31 urte.

Non jaioa: Algorta (Bizkaia).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Denboraldi bat zeraman langabezian. Olivetti firmaren agente komertzial gisa lan egin zuen.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Algortako Telletxe kaleko (Getxo) Txiskiñe kafetegiko toki pribatuan, karta-jokoan zebile-
nean, bere etxetik hurbil. Sarrikobaso kalean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

9

Manuel Hernández Seisdedos

Atentatuaren data: 1981/11/26.

Heriotzaren eguna: 1981/11/28.

Adina: 33 urte.

Non jaioa: Salamanca.

Bizilekua: Areeta (Getxo).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Areetako M-2 arma-dendako jabea (Getxo).

Egiletza: ETAm.

Lekua: Basurtuko Ospitalean, bi egun lehenago bere dendan tiroz zauritu ondoren, bere bi alaben aurrean, Getxoko Amistad kalean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

10

Alberto López-Jaureguizar Poncela

Gertakariaren data: 1982/07/16.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Algorta (Getxo).

Seme-alabak: Lau seme-alaba (horietako bi, gutxienez, alabak).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Tabacalerako ahalduna, Bilbon. Alianza Popular-eko (AP) kide.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bere ibilgailuaren barruan zegoela egin zioten tiro, Algortan, Getxon.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Bere emaztea, María Victoria Vidaur, APko militante aktiboa zen.

11

Domingo Javier García González

Data: 1982/10/22.

Adina: 30 urte.

Non jaioa: Deustuko auzoa, Bilbo (Bizkaia).

Bizilekua: Getxo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi alaba eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Nicolás taberna-dastategiaren jabea, Getxon.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Tabernaren barruan, Andres Cortina kalean, Algortan (Getxo).

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua. Bik, aurpegia agerian zutela, tiro egin zioten, barraren atzean lanean zebilela.

12

Mikel Solaun Angulo

Data: 1984/02/04.

Adina: 39 urte.

Jaioterria: Bilbo.

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Industria-ingeniaria eta eraikitzailea, lanbidez. ETako kide lehenengo eta ETaren laguntzaile, gerora. Utzi egin zuen eta hark ohartarazi zuen Guardia Zibilaren etxebizitza izango zen eraikinean artefaktua jarri zutela, inaugurazioaren egunean amaiera tragikorik egon ez zedin.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Algortako Haizea kafetegian-dastategian (Getxo), bere emaztearen eta alaben aurrean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

13

Moisés Cosme Herrero Luengo

Data: 1985/05/26.

Adina: 30 urte.

Non jaioa: Martín Miguel (Segovia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Poliziaren Goi-mailako Kidegoko inspektorea.

Destinoa: Getxoko komisariari atxikia (Bizkaia).

Egiletza: ETA.

Lekua: Algortako etorbidearen eta Algortako Alango kalearen arteko bidegurutzean (Getxo), hiru urteko semearen aurrean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

14

José Calvo De la Hoz

Data: 1989/04/12.

Adina: 51 urte.

Non jaioa: Joarilla de las Matas (León).

Seme-alabak: Hiru seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibileko sarjentua. Urpekaritzako espezialista.

Destinoa: Santurtziko portuko zerga-zerbitzuaren bulegoa (Bizkaia).

Egiletza: ETA.

Lekua: Txanda itxaroten ari zen, Bilboko erreka zeharkatzeko, Areta (Getxo) eta Portugalete lotzen dituen transbordadorean, Santurtziko bidean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

15

Eladio Rodríguez García

Data: 1989/11/06.

Adina: 49 urte.

Non jaioa: Castro de Rey (Lugo).

Bizilekua: Getxo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Poliziako inspektoreordea.

Destinoa: Bilboko San Inazioko komisariako segurtasun-unitatea.

Egiletza: ETA.

Lekua: Ibilgailua martxan jartzean, Algortan (Getxo).

Prozedura: Lapa-bonba bidezko atentatua.

16

Rafael San Sebastián Flechoso

Data: 1990/06/10.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Bilbo (Bizkaia).

Bizilekua: Neguri, Algorta (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ez zeukan enplegu finkorik. Gurasoekin bizi zen, Negurin.

Egiletza: ETA.

Lekua: Getxoko Gwendolyne kafetegiaren barruan (Bizkaia).

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: ETAk adierazpena bidali zuen, hamasei egun geroago, ekainaren 26an, eta bertan baieztatu zuen biktimaz erratu zela eta "autokritikarik serioena eta benetakoena" erakutsi zuen "ekintza akastun" eta "konponezin" honengatik.

17

Carlos Pérez Dacosta

Data: 1991/07/28.

Adina: 22 urte.

Non jaioa: San Vitero (Zamora).

Bizilekua: Hileta-elizkizunak Bilboko San Jose elizan izan ziren.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Guardia Zibileko kide, urtebete lehenagotik.

Egiletza: ETA.

Lekua: Bi guardia zibil zeramatzan ibilgailu partikularra Getxoko Areeta auzoko Amaia kaletik zebilenean.

Prozedura: Bonba-autoaren bidezko atentatua, urrunetik aktibatuta.

Datu gehiago: Beste guardia zibil bat, Francisco Aguilera Granados (21 urte), eta bertatik pasatzen zebiltzan hiru pertsona zauritu eta ospitaleratu egin zituzten.

18

José San Martín Bretón

Data: 1992/02/25.

Adina: 49 urte.

Non jaioa: El Redal (Errioxa).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibileko kide, seme nagusia bezala.

Destinoa: Bilboko La Salveko Guardia Zibilaren komandantzia. 15 urte zeramatzan euskal lurraldean destinatuta.

Egiletza: ETA.

Lekua: Algortako Villamonte plazan, Getxon.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: José San Martínen erailketaren berri izatean, emazteak nerbio-krisia izan zuen eta Basurtun ospitaleratu behar izan zuten.

19

José María Lidón Gorbi

Data: 2001/11/07.

Adina: 50 urte.

Non jaioa: Girona. Emaztea Barakaldokoa zen.

Bizilekua: Getxo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Bizkaiko Lurralde Auzitegiko magistratua. Deustuko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle katedraduna. Bilboko Udaltzaingoko Akademiako irakaslea (Bizkaia).

Egiletza: ETA.

Lekua: Etxeko garajetik irteteen, Getxon, zenbaitek tiro egin zioten, berbertatik, emaztea, María Luisa Galarraga, eta semeetako bat aurrean zeudela.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Hilketaren ondoren, Deustuko Unibertsitateak zenbait ikasketa juridiko argitaratzen ditu, "Cuadernos penales José María Lidón" izenarekin. Bilboko Udalak bere izena jarri zion kale bati. 2007an, Donostian José María Lidón Dokumentazio Judizialeko Zentroa ireki zen.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

2. **GA**Lek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Xabier Galdeano Arana

Data: 1985/03/30.

Adina: 49 urte.

Non jaioa: Algorta (Getxo).

Bizilekua: Familiak bi urte zeramatzan Donibane Lohitzunen bizitzen.

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ekonomialaria. Galdeano Hijos familia-enpresan lan egin zuen. Egin egunkariaren ordezkari komertziala Bizkaian eta, gero, Iparraldeko korrespontsala.

Egiletza: GAL.

Lekua: Donibane Lohitzuneko Urdazuri auzoan, Elise Aramendi kalean, GALEk Baionan eginiko atentatu baten aurka protestatzeko manifestazio baten kronika amaitzen ari zenean, *Egin* egunkariaren erredakzio nagusirako, Hernanin.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Félix Arnaiz Maeso

Data: 1969/08/02.

Adina: 20 urte.

Non jaioa: Hontoria de la Cantera (Burgos).

Bizilekua: Leioa (Bizkaia), familiak hiru urte zeramatzan bertan bizitzen.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: La Navaleko langilea.

Egiletza: Getxoko udaltzaina (Bizkaia).

Lekua: Udaltzaingoaren ibilgailuan zeukatenean, Erromo auzoan, Getxon.

Prozedura: Tiroa bularrean, berbertatik.

Datu gehiago: Inpunitatea gorabehera (ez zen epaiketarik egon, ez eta zehapen- edo diziiplina-espediterik ere tiroaren egilearen aurka), familiari kalte-ordaina eman zioten, eta horrek erakusten zuen gertatutako abusua, baina aurretik akusazio partikularra kentzeko baldinitzapean. Indarraren gehiegizko erabilera eta errugabe sentitzeko gailentasuna erregimenaren aurkako errepresio politikorako estrategia frankistaren zati zen. Kasu horri aldeko irizpena eman dio Eusko Jaurlaritzak sortutako Balioespen Batzordeak, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

2

Felicitas María Alexandra Leckett

Gertakarien data: 1975/05/27.

Heriotzaren eguna: 1975/06/02.

Jaioterria: Alemania.

Bizilekua: Neguri (Getxo, Bizkaia).

Seme-alabak: Alaba bat.

Egiletza: Polizia Armatuko kidea.

Heriotza-lekua: Donostiako Gurutze Gorrian. Larriki zauritu zuten, tiro baten bidez, bere alaba gidatzen ari zen ibilgailuaren eskuineko aurreko eserlekuan zihoala, Bilbo-Behobia autobidean, Gipuzkoako hiriburuaren inguruan.

Prozedura: Tiro bat jaso zuen buruan, Polizia Armatuaren agente baten eskutik; antza denez, errepideko kontrol batean zegoen.

Datu gehiago: Noticias del País Vasco-ren hitzetan, salbuespen-egoeran, 1975eko maiatzeko 2. eta 3. informazio-buletinak eta hurrengo biak: Biktimaren alaba autotik irten zen eta "protestan zebilen bera autoa gelditzeko abiadura murrizten ari zenean gertatu zelako harrapatzea". Alemaniako enbaxadoreak eta kontsulak Donostian protestak aurkeztu zituen Kanpo Gaietako Ministerioaren aurrean, eta horiei erantzun zieten esanez "gertatutakoari buruzko ikerketa xehatua irekiko zela". Hala ere, gertakari horiek ahaztu egin ziren. 1970etik 1982ra bitartean, 19 pertsona hil ziren antzeko egoeretan eta 31 pertsona zauritu ziren.

3

Alfredo San Sebastián Zaldívar

Data: 1975/06/15.

Adina: 24 urte.

Non jaioa: Plentzia (Bizkaia).

Bizilekua: Algorta (Getxo, Bizkaia).

Seme-alabak: Bost hilabeteko alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ekintzailea; hainbat proiektu martxan.

Egiletza: Kalez jantzitako guardia zibil bat.

Lekua: Mungiako Zigor jai-aretoaren sarreran.

Prozedura: Su-arma bidezko tiroak, gertutik. Odol gehiegi galdu eta hil egin zen, eta ezin izan zitzaion inor hurbildu, ordu erdian, Poliziak debekatu egin baitzuen.

Datu gehiago: Bizkaian eta Gipuzkoan salbuespen-egoera zegoen indarrean. Gaztea beste batzuekin zegoen, eta despedida bat egiten ari zitzaien Plentziako Mugimenduko tokiko buruari ("Mungiako krimena" *Noticias del País Vasco durante el estado de excepción*-en. 1975/06/18ko 9 zenbakiko informazio-aldizkarian, 1. orrialdetik 8ra). Familiako inork ezin izan zuen hilaren gorpua ikusi; izan ere, ez zitzaion autopsiarik egin eta zuzenean eraman zuten hilerrira. Etxea erregistratu egin zioten eta bere gauzak nahastu, baina ez zen motiborik aurkitu tiroak emateko. Kasu horri aldeko irizpena eman dio Eusko Jaurlaritzak sortutako Balioespen Batzordeak, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

4. **Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak**

1

Pedro Goiri Rovira

Data: 1979/09/30.

Adina: 23 urte.

Non jaioa: Santurtzi (Bizkaia).

Bizilekua: Areeta (Getxo).

Seme-alabak: Sei hilabeteko semea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: La Pinaolako tabernaria (Getxo).

Egiletza: ?

Lekua: La Pinaola tabernan (Getxo).

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak.

Datu gehiago: Hainbat bertsio daude gertakari honen inguruan. Iturri batzuen arabera, lapurreta saiakeraren ondorioz eragindako heriotza da eta beste batzuen arabera ETaren atentatuaren ondorioa; baina Barne Ministerioak terrorismoaren biktimatzat hartzen du.

II. Egiaztatze- eta ikerketa-lan handiagoa behar duten **kasuak**

1

José Luis Barona Zorrilla

Data: 1982/08/27.

Egiletza: “Badirudi kontu-garbitze baten ondorioz izan zela, droga-munduko jendearen artean” (Calleja eta Sánchez-Cuenca: 180).

Lekua: Antza denez, buruan egin zioten tiro, Getxon (Bizkaia). *ABCk*, aldiz, Vitoria-Gasteizen gertatu zela argitaratu zuen.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroa.

Datu gehiago: Bere laguna ere hil zen: Francisco Javier Angulo Fernández. Covitek eta Arartekoak ETari leporatu zioten. Belén Pulgar Gutiérrezek ez ditu ETaren biktima gisa jasotzen *Víctimas del Terrorismo 1868-2004* argitalpenean. Ez ditu aipatzen, bestalde, Fundación Víctimas Terrorismo (FVT) fundazioak ere, ez eta *Vidas Rotasek* eta 2015eko Informe Forondak ere. ETak ez ditu bere atentatuen balantzean sartzen, *Zuzen 79-VascoPress* (2004).

2

Francisco Javier Angulo Fernández

Data: 1982/08/27.

Adina: 23 urte.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Zabor-bilketako langilea Getxon (Bizkaia). Carmen de Téllezek eta Calleja-Sánchez Cuencak droga-trafikoarekin lotzen dituzte.

Egiletza: “Badirudi kontu-garbitze baten ondorioz izan zela, droga-munduko jendearen artean” (Calleja eta Sánchez-Cuenca: 180).

Lekua: Antza denez, buruan egin zioten tiro, Getxon (Bizkaia). *ABC*k, aldiz, Vitoria-Gasteizen gertatu zela argitaratu zuen.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroa.

Datu gehiago: Bere laguna ere hil zen: José Luis Barona Zorrilla. Covitek eta Arartekoak ETari leporatu zioten. Belén Pulgar Gutiérrezek ez ditu ETaren biktima gisa jasotzen *Víctimas del Terrorismo 1868-2004* argitalpenean. Ez ditu aipatzen, bestalde, Fundación Víctimas Terrorismo (FVT) fundazioak ere, ez eta *Vidas Rotasek* eta 2015eko Informe Forondak ere. ETak ez ditu bere atentatuen balantzean sartzen, *Zuzen 79-VascoPress* (2004).

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Bulegoa. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumentazio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuaren auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritzaren 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.



8. dokumentua

Giza Eskubideen Urraketak
jasandako Biktimen Balorazio
Batzordearen Txostena
1960-1978

Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena **1960-1978**

Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua

Monika Hernando Porres
Sabino Ormazabal Elola
Álvaro Gil-Robles y Gil-Delgado
José Antonio Pérez Pérez
Carlos Martín Beristain
Aintzane Ezenarro Egurbide
Marian Sánchez Amado

2016ko otsailaren 20a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia

0. Sarrera eta aurrekariak

Biktimen errekonozimendua beldurraren eta indarkeria politikoaren ondorioei aurre egiteko urratsa da. Txosten honetan azaltzen diren biktimak hainbat hamarkadatan erabat ahaztuak izan dira. Haien istorioak, eskarmentuak eta minak ez dira aintzat hartu izan. Areago, sarritan zama negatibo handiko estigmekin eta estereotipoekin justifikatu dira, edota diktadura baten ondorioztat minimizatu. Haien hildakoak, zaurituak eta bizitzak ahaztu egin ditugu, adiskidetze baten ondorio gisa. Txosten honetan azalduko diren biktimek ez dute izan inoiz bizi izandako gertaeren onarpenik, ez eta jazoerak azaltzeko aukerarik ere, euskal gizartean bizi izandako izuaren eta indarkeria politikoaren adibidea izan daitezten.

2011ko martxoaren 31n Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 61/2011 legez besteko Proposamena onartu zuen, motibazio politikoan errotutako indarkeria egoera batek sortutako giza eskubideen urraketan eta bestelako bidegabekeriaren biktimei dagokiena. Proposamenean Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari biktima horien onarpena gauzatzeko neurriak eta ekintzak har zitzala agindu zion, sufrimendua konpontzearen edo erreparatzearen bidetik. Kontuan izan behar da biktima hauek orain arteko errekonozimendu edo erreparazio legeetatik kanpo geratu izan zirela beti.

Jaurlaritzak 107/2012 Dekretua onartu zuen, ekainaren 12koa, haien giza eskubideak urratu izanagatik bidegabeko sufrimendua jasan duten biktimen aitopenerari eta erreparazioari dagokiona. Denbora-tartea 1960 eta 1978 bitartekoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izandako motibazio politikoan errotutako indarkeriak egindako urraketak hartu behar ditu aintzat.

Dekretua onartzean, Arrazoen Azalpenak ezartzen duen moduan, Eusko Jaurlaritzak biktima haien oinazearen bidegabekeria onartu zuen, baita erakundeek orain arte erakutsitako ahanztura bukatu beharra on-tzat hartu ere.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak oinazea arintzeko borondatea adierazi zuen, ezarritako erreparazio neurrien bitartez; edonola ere, kalteak jasandako gizakia ekintza bortitzak burutzen arituz gero bere kasua kontuan hartuko ez zela erabaki zen. Are gehiago, heriotza, zauriak eta lesioak ekintza bortitz hura ekiditeko asmoz jasan baldin bazituen ere, bere kasua aintzat hartuko ez zela erabaki zen.

Dekretuak bere 6. artikuluan **Balorazio Batzorde** bat abian jarriko zela azaltzen du. Batzorde horrek aurkeztutako eskaera guztiak izapidetuko eta balioztatuko ditu, Dekretu honen babesean.

2012ko ekainaren 20an Batzardea sortu zen, Dekretuak berak adierazitakoarihelduta sortu ere, eta partaideak honakoak ziren:

- Inés Ibañez de Maeztu, Giza Eskubideen Zuzendaria. Batzordearen presidentea.
- Giza Eskubideen Zuzendaritzak izendatutako aditu bi: Jose Antonio Pérez eta Manuela Carmena.
- Eusko Jaurlaritzako orduko Terrorismoaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak izendatutako kide bat: Txema Urkijo.
- Giza Eskubideen Zuzendaritzak izendatutako bi aditu, giza eskubideen urraketan eta motibazio politikoko ingurune bateko bestelako oinazeen biktimen Legebiltzar-ponentziak proposatuta. Kasu honetan bete-behar hura gauzatu behar zuen parlamentu-organoak izendatu zituen aditu biak: Alvaro Gil Robles eta Carlos Martín Beristain.
- Gizarte zibilaren ordezkari bat, Giza Eskubideen Zuzendaritzak izendatutakoa. Kasu honetan, Monika Hernando.

2012ko urriaren 21eko autonomia hauteskundearen ostean aldaketa bat gertatu zen Eusko Jaurlaritzaren baitan; aldaketa horrek beste aldaketa bat eragin zuen Giza Eskubideen esparruko buruengan, eta horren ondorioz Batzordearen presidentetza bera aldatu zen. Inés Ibañez de Maeztuk kargua utzi zuen eta Monika Hernando Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendari izendatu zuten. Hala izanda, Hernando Andreak Batzordearen presidentetza hartu zuen.

Halaber, 2013ko otsailaren 26an Sabino Ormazabal Gizarte Zibilaren ordezkari izendatu zuten. Egun bat geroago, otsailaren 27an, Batzordeko Idazkari Tekniko berria izendatu zuten, Marian Sanchez, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako talde teknikoan ari dena. Idazkari honek ahotsa izango zuen baina botorik ez.

Batzordeak ez zuen beste aldaketarik izan baina 2014ko maiatzaren 5ean Txema Urkijok Balorazio Batzordearen kide izateari utzi zion, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko aholkularia izateari utzi baitzion; Aintzane Ezenarrok ardura hori hartu zuen bere gain. Eta, azkenik, 2015eko ekainaren 13an, Manuela Carmenak kargua utzi zuen Madrileko Udalean hartutako erantzun politikoarekin bateragarria ez zelako.


Lanean emandako hiru urte eta erdietan Batzardea 73 alditan bildu da eta 210 pertsonen testigantzak jaso ditu, baita 239 irizpen burutu ere. Bukaeran azken Txostena plazaratuko du bere lana jakinarazteko. Biktimen hainbat eskubide betetzeko gomendioak emango ditu, egiari, justiziarik eta erreparazioari dagozkien eskubideak betetzeko, alegia. Batzordekideen ustez biktimen ekarpena giza eskubideak errespetatzeko kontzientzia kolektiboa sortzeko oinarritzeko elementua da. Egindako lanak giza eskubideak berriz hala ez urratzeko balioko duelakoan daude batzordekideak.

Dokumentu honetan 2016. urtean zehar egingo den azken Txostenaren aurrerapena eskaini gura dugu. Egin dugun lana plazaratu nahi dugu eta, bide batez, Batzordekideek entzun dituzten biktimen esperientziak aditzera eman ere bai, gure lurraldeko bakegintzarako eta bizikidetzarako ekarpena delakoan.

Aurrekari honetan jasotako datuak eta informazioa Dekretuaren esparruan onartutako eta jasotako eskaeren azterketari dagozkie. Batzordekideek, ordea, jakin badakite kasu gehiago daudela baina zenbait arrazoi direla kausa ez dituztela zuzenean jaso.


1. Eskaeren eta kasuen balantzea

Biktimatzat hartzeko asmoz –ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren babesean– aurkeztutako 239 eskaeratan 187 izan ziren azkenik biktimatzat jo izan zirenak. Gainontzeko 52 eskaerak baztertuak izan ziren hainbat arrazoi direla eta. Beraz, kasu guztien %78 biktimatzat jo izan ziren eta %22, aldiz, ezetsi.



Eskaerak ezetsi egiteak ez dakar, ezinbestean, Batzordekideek haien giza eskubideak urratu ez direnik pentsatzea; izan ere, kasurik gehienetan arrazoi formalak izan dira kasu horiek Dekretuaren babesean jarri ezin izatea eragotzi dutenak. Ezetsitako eskaeren ia kopuru erdiak (%47k) ez zuen betetzen Dekretuaren xede edota denbora esparrua. Alegia, poliziak egindako bortxaketak zirenik ezin zen ziurtatu edota 1978z geroztiko biktimei zegokien. Beste 26 kasutan (%50) epez kanpo aurkeztutako eskaerak ziren, nahiz eta behin epea luzatu zen. Une hauetan izapidetze-prozesuan dagoen Errekonozimendu eta Erreparaziorako Legeak biktima horien eskaera guztiak bere baitan har litzake.


Ondorio mota



Onartutako biktima guztien artean %16 eraildakoak ziren, Estatuko segurtasun indarrek hain zuzen ere, batik bat manifestazioetan, errepide-kontrolatan edo istiluetan gertatuak. Kasuen %29,5 su-armaren batek antzeko egoeretan zauritutako biktimak ziren. Badago beste kopuru bat manifestazioak uxatzeko jaurtigai-aren batek zauritutako biktimei dagokiena, %6,9 hain zuzen ere. Talde horretako gehienak gomazko pilo-

tek zauritutakoak dira (%5,3) eta besteak ke-potoek zauritutakoak (%1,6). Bestetik Poliziaren edo Guardia Zibilaren komisarietan jasandako tratu txarrak eta torturak daude. Kasu guztien %38,5 dira hauek. Kasuen %7,5 objektu sendo batez emandako kolpeen ondoriozko ziren. Gainerako kasuen %1,6 beste gertaera eta egoera batzuei dagokie.

Kalte-ordainketa mota



Kalte-ordainketak aztertzean, pairatutako kalte iraunkorren erreparazio ekonomiko gisa hartuak, Batzordeak ontzat emandako 187 kasuen artean biktimen %61ek jaso izan ditu ordainketa horiek. Beste talde handi bati ez zitzaion kalte-ordainketarik jarri, %34ri zehazki esanda, nahiz eta biktimatzat hartuak izan giza eskubideen bortxaketa horiek jasan zituztelako. Jarri nahi ez izateko arrazoia Dekretuak ezarritako irizpideetan datza, hau da, kalte-ordainketa jaso ahal izateko beharrezkoa da biktimek ondorio iraunkorrak pairatzea: balioezintasunik ez dakarren lesio iraunkorren bat, ezintasun partzial, ezintasun oso edo ezintasun absolutu mota ezberdina, heriotza edo ezintasun handia. Batzordeak argi utzi nahi du kalte-ordainketarik ez emateak ez dakarrela persona hauek jasandako bortxaketek sortutako sufrimendua eta eragina minimizatzea. Horregatik, bada, Batzordeak hainbat kasutan esan dio Eusko Jaurlaritzari lege-alorra aldatu beharra dagoela, ebaluazioa hain estua izan ez dadin. Kasuen %5ean ez da kalte-ordainketarik eman beste ordainketaren batekiko baterazintasuna dela kausa, gehienetan 52/2007 Legea aplikatzean (Memoria Historikoaren Lege gisa ezaguna dena).


Kalte-ordainketa jasotakoaren artean aniztasuna da nabaria: 24 pertsonak heriotza dela kausa jaso dute, 3k ezintasun absolutuagatik, 14k ezintasun osoagatik, 20k ezintasun partzialagatik eta 53k balioezintasunik ez dakarten lesio iraunkorregatik.

2. Zenbait datu kuantitatibo

2.1. Sexua


2.1.1. Onartutako biktima guztien sexua

Dekretuaren esparruan onartutako biktimen artean 161 gizonetako eta 26 emakumetzko daude.




2.1.2. Eskubide urraketen ondorioz hildako biktimen sexua

Hildako biktimen artean 2 emakumetzko eta 32 gizonetako daude.



2.2. Adina gertaera unean


Adina gertaera unean



Onartutako biktimen adinak 12 eta 78 urte bitartean daude. Grafikoan ikus daitekeenez, biktima gehienak 28 urtetik beherakoak dira (%75). Esan behar da biktima ugari adin txikikoak direla. Aztertutako epean adin nagusia 21 urterekin hasten zela aintzat hartzen badugu adin txikikoen kopurua 70 lagunekoa da, hau da, %37.

2.3. Gertaeren kokalekua


Gertaeren kokalekua



Batzordeak aztertutako eta aitortutako kasuen ehunekorik handiena Bizkaian gertatu zen. Nafarroari dago-kionez, esan behar da bi pertsona azaldu zirela baina gertaerak izan zirenean Nafarroan zeuden arren biak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren.

2.4. Zein urtetan gertatu zen

Kasu kopururik handiena 1975-78 bitartean jazo zen. Biktima kopururik altueneko urtea, al-diz, 1976 izan zen, batez ere martxoaren 3an Gasteizen izandako gertaerak direla eta.



3. Bizi izandako gertaera motak eta zein ingurunetan gertatu ziren

Francoren diktaduraren ezaugarri nabarmenetako bat askatasun eza absolutua da, hasieratik eta bukaera bitartean. Guda zibila amaitu ondoren Estatu berriak errepresiorako sare trinkoa jarri zuen martxan, Francoren erregimenaren aurkakotzat jo izandako edozein jarduera zigortu nahirik. Oinarrizko giza eskubide guztiak behin eta berriz hautsi ziren. Errepresioak hildako asko ekarri zituen aldean. Horietako asko *errepresio beroan* erail zituzten, hots, guda amaitu eta hurrengo asteetan edo hilabeteetan, *paseoan* eraman eta ondoren erailda. Beste asko sistema judizial ustel haren bitartez epaitu zituzten –inolako prozesu bermerik gabe– eta ondoren hil. Biktimia haietako gehienak zenbait erakunde politiko eta sindikaletan sartuta zeuden, errepublikaren legalitatearekin eta Euskadiko Gobernuaren erakundeekin fidelotasuna mantenduta. Beste hainbat biktimia langile-taldeetan sartu zituzten, urte askotan zehar lan gogorrek egitera behartuak, edota kartzelean kondena luzeak bete behar izan zituzten.

Frankismoko lehendabiziko hamarkadetan hala orden publikorako indarrek nola ejerzitoak gogortasun handiz ekin zieten oposizio mota guzti-guztiei. Metodo gogorrenak erabiltzen zituzten eta giza eskubide funtsezkoenak modu sistematikoan bortxatzen zituzten. Erregimenak berrogeigarren hamarkadan ezarritako beldurrari eta kontrol sozial eta politikoari esker oposizio antolatua azken arrastoak ia suntsitu zituen.

Edonola ere, berrogeita hamargarren hamarkadaren bukaeraz geroztik egoera aldatzen hasi zen, Euskadin batez ere, bertan aldaketa sozial prozesu bizia gertatu baitzen. Erregimenak politika ekonomiko berri bat bultzatu zuen eta bigarren industrializazioa agertu zen; horren ondorioz milaka eta milaka langile etorri ziren beste probintzia batzuetatik. Ingurune horren baitan erakunde politiko eta sindikal berriak jaio ziren eta, horrekin batera, erro historiko luzeak zeuzkaten beste batzuk apurka-apurka berreraiki ziren.

Berririk handiena ETA erakundearen jaiotza izan zen 1958an. Hirurogeigarren hamarkadan bilakaera bizkorra izan zuen eta zenbait zatiketa izan zituen. Aldi berean, lan esparruari lotuta bereziki, beste erakunde bat jaio zen 1963an, ondoren Comisiones Obreras sindikatuaren agerpena ekarriko zuena. Aldaketa hauek guztiak oso testuingurujakin batean gertatu ziren: eraldaketa ugari, gatazka politikoak eta sozialak, eta ikasleen mugimendu jaio berria.

Erregimen frankistak edozein protesta eta oposizio politikoaren aurkako errepresioa areagotu zuen. Diktadurak oso errepresio-tresna eraginkor bat izan zuen, Orden Publikorako Auzitegia deritzona. Auzitegia 1963an sortu zen eta erregimenaren aurkako oposizioarekin lotutako delituak argitu eta epaitzeko xedea zuen. Beste aldetik, gerra-epaiketa sumarismoak ere aipatu behar dira. ETAREN 1968ko aurreneko atentatu mortalak agertzean eta Gipuzkoako eta Bizkaiko grebak ugaritzean erregimen frankistaren errepresioa gorritu zen, edozein protesta eta oposizio politikoaren aurka jo eta su egin baitzuen.

Salbuespen-egoerak epe luzeetan ezarri zirenean erregimen hartako askatasun urrienetako batzuk ezabatu ziren. 1970eko abenduan ETAKo hamasei kideren aurkako epaiketa egin zen Burgosen. Epaiketa hark tentsioa izugarri bizitu zuen eta elkartasun-uhin aipagarria eragin zuen, Euskadin bertan nahiz Euskaditik kanpo. Erantzun haiek diktaduraren harridura sortu zuten. Ordutik aurrera gero eta protesta politiko eta sozial gehiago azaldu ziren han-hemenka eta erregimen frankista bere azkenetan sartu zen. Bereziki aipatzekoak dira sasoi hartako azken salbuespen-egoeran (1975eko apirilaren 25ean ezarria) izandako tentsioa eta bost militante fusilatzeak aginduaren aurkako mugimenduak. Militante haietako bi ETAKo kideak ziren eta gainontzeko hirurak FRAPekoak.

Egoera hartan ETAK bere ekintzak erradikalizatu zituen eta horrekin batera eskuin muturreko hainbat talde sortu ziren, esaterako Guerrilleros de Cristo Rey eta BVE. Biek harreman estua zuten poliziaren elementu zenbaitekin eta diktaduraren azken hilabeteak markatu zituzten.

1960 eta 1978 bitartean ETA-k, ETAPm-k, ETAm-k eta CCAA-k 136 pertsona erail zituzten. BVE-k, Triple A-k eta Guerrilleros de Cristo Rey-k 8 lagun erail zituzten. Poliziak eta Guardia Zibilak 44 pertsona erail zituzten, esparru eta testuinguru anitzetan. Hildakoak alde batera utzita epe hartan beste zenbait kasu ere gertatu ziren, kontraste sakonagoa eta ikerketa zorrotza beharko luketenak.

Ondoren Batzordeak aztertutako ingurune zehatzak deskribatuko ditugu:

Manifestazioak eta indarra modu indiskriminatuan eta neurritik kanpo erabiltzea

Batzorde honek 31 kasu aztertu ditu atal honetan

Hirurogeigarren hamarkadaren hasieratik aurrera lan eta politika arloetako gatazkak ugaritu ziren. Lan eskubideak eta askatasun zabalagoa eskatzeko manifestazioak gero eta gehiago ziren. Euskal nortasuna errespetatzeko eskatzen zuten manifestazioak azaldu ziren.

Hirurogeigarren hamarkadaren hasieratik hurrengo hamarkadaren bukaerara bitartean –hots, Francoren diktaduraren azken zatian eta demokraziaranzko trantsizioaren lehendabiziko urteetan– kaleetan barrena bai grebak bai manifestazioak biderkatu ziren, batez ere zenbait epe zehatzetan. Hona hemen epe horietako batzuk: 1962ko udaberrian Etxabarriko *Laminaciones de Bandas en frío* enpresan 1966 eta 1967 urteetan izandako gatazka, 1974ko abenduaren 11ko greba orokorra edo Gasteizko martxoaren 3ko istilu izugarriak eragin zituen gatazka bera. Kasu hauetan hainbat lan arazok sortutako protestak ziren baina diktaduraren azken zati hartan hain errepresio bortitza gertatu zen non askatasunen eta preso politikoen amnistiaren aldeko errebindikazioak ere tartean sartu ziren. Estatuak grebetan eta istiluetan aritutako langile eta sindikatu-buru batzuk atxilotu zituen eta horrek elkartasuna adierazteko manifestazio anitz ekarri zituen. Manifestazioak oso era gogorrean erreprimitu zituen diktadurak. Poliziak neurritik kanpoko indar izugarria erabili zuen eta atxiloteta asko egin zituen.

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandako gertaerak aurreko guztiaren adibide garbiak dira. Izan ere, 1975eko bukaeraren ondoren Arabako hiriburuko enpresa mordoan eragin zuen lan arazo bat sortu zen: Mevosa, Forjas Alavesas, Areitio, Aranzabal, Ugo, Gabilondo, Olazábal y Huarte, Industrias Galycas, Cablenor, Tuboplax eta beste zenbaitetan gertatu zen.

Enpresa haietako langileak grebara joan ziren hainbat hilabetetan, zenbait errebindikazio eginda. Sasoi hartan greba egiteko eskubidea ez zegoen onartuta eta Zuzenbidezko Estatu baten berezko bermerik ere ez zegoen inondik inora. Langileek legeak utzitako irrikitu txikiak aprobetxatzen zituzten elkarrekin biltzeko eta haien nork bere iritzia eman ahal izateko. Elizetan batzen ziren proposamenak eztabaidatzeko eta mobilizazioak prestatzeko. Greba indefinitu kutsuko giro hartan prestatu zen, bada, 1976ko martxoaren 3ko lan-etenaldi jardunaldia. Jardunaldi horren bidez langileek hiritarren elkartasuna jaso nahi zuten, 1975eko abenduaz geroztik ez baitzuten diru-sarrerarik. Mota hartako hirugarren jardunaldia zen baina honek askoz entzute handiagoa izan zuen gizartean, zalantzarik gabe. Arratsalde hartan langileak Zaramaga auzoko San Francisco de Asís parrokian elkartu ziren.

Elizatik irteetan segada hutsean sartu ziren langileak, poliziak dena inguraturik baitzuen eta guzti-guztiak poliziek utzitako estuguneetatik joan behar baitziren. Bost langile poliziaren tiroek erailik gertatu ziren eta ehun bat inguru zauriturik, makina bat larriki zaurituta gainera. Batzordean azaldutako biktima anitz gertaera hauekin lotuta daude.

Kasu batzuetan manifestazioak data sinbolikoak gogora ekartzeko asmoz burutu ziren, esate baterako Maiatzaren Lehena edo Aberri Eguna. Agintariak halakoak debekaturik zeuzkaten. Halakoetan ere atxiloteta, tortura eta tratu txar anitz burutu zituzten, deportazioekin eta prozesamenduekin batera.

Aberri Eguna ospatzeak babes eta laguntza asko piztu zituen hirurogeigarren hamarkadaren erdialdeaz geroztik. Beste hainbat mobilizazio mota erabat debekatu zituzten agintariak, hala nola euskal apaizek eginiko ekintzak, erromeriak eta bestelako jarduerak, ikurriña lagun, elizetan eginiko itxialdiak eta euskal folkloreakin lotutako kultur ekintza anitz. Debekatu ez ezik poliziek gogorki erreprimitu zituzten aurreko guztiak.

Errepresioa areagotu ahala protestak ere ugaritu eta zabaldu ziren. Burgoseko prozesua –1970eko abenduan– edo 1975eko irailaren 27ko fusilamenduen aurka protestatzeko ekintzak horren adibideak dira. Protesta haietan Poliziak karga itzelak, atxiloteta masiboak eta torturak erabili zituen. Hiru hildako izan ziren, Erandion eta Eibarren, 1969an eta 1970ean.

Diktadura amaitu ondoren, dena den, poliziak neurritz kanpoko ekintzak erabiltzen jarraitu zuen. Demokrazian sartzeko trantsizioaren aurreneko urteetan giza eskubide urraketa asko eta asko gertatu ziren, motibu zenbaitek eragindako mobilizazioetan. Motibu aipagarrienetako bat, zalantzarik gabe, diktaduraren azken preso politikoen amnistia errebindikatzeko mobilizazioak izan ziren. Amnistiaren aldeko protesta-mugimenduak politika eta gizarte arloetako talde asko erakarri eta batu zituen.

1977ko otsailaren 26tik 1977ko martxoaren 6ra bitartean amnistiaren aldeko lehenengo astea ospatu zuten. Poliziak orduko hartan ere errepresio gogorarekin erantzun zuen eta horren ondorioz zauritu ugari izan ziren. Hurrengo astean poliziak pertsona bi hil zituen tiroz. Maiatzaren bigarren astean amnistiaren aldeko bigarren astea ospatu zuten eta balantzea erabat beldurgarria izan zen: zazpi hildako eta makina bat zauritu, horietako asko Ordena Publikoko Indarrek su-armaz zaurituta.

Testuinguru hartan biolentzia politikoak eta bereziki terrorismoak gorantz egin zuten. Horrekin batera, Estatuko funtzionario batzuek giza eskubideak modu onartezinean hautsi zituzten kasu askotan, eta urraketak ia kasurik gehienetan zigorrak gabe geratu ziren.

Atentatuak

Batzorde honek 4 kasu aztertu ditu atal honetan

Frankismoaren aurkako oposizioak aurrera egin zuenean ETA azaldu zen, berrogeita hamargarren hamarkadaren amaieran. Orduantxe eskuin muturreko talde batzuk jaio ziren han-hemenka sakabanatuta: GAE, GANE, BVE... Talde haiek kementsu aritu ziren, adibidez, 1975eko salbuespen-egoeran, agintariak ekintza haiek sekula zigortu barik utzi zituztelarik. Eskuin muturreko kide haiek batez ere ezkerreko eta giro abertzaleko militanteen aurka jo zuten, baina ez bakarrik haien aurka, beste hiritar batzuen kontra jardun zuten eta.

Era honetako atentatu asko giro zehatz horretan txertatu ziren, alegia, epe hartan izandako ekintza eramangaitz askok zigorrak jaso gabeko giroan. Beste kasu batzuetan poliziak ekintza horiek babestu edota lagundu zituen.

Batzordeari atentatu mota honetako biktimen eskaerak iritsi zaizkio. Hauek aztertu diren arren, ez dira aitortuak izan Dekretuan agertzen ziren eskaerak betetzen ez zituztelako. Horietako bi, gainera, terrorismoaren biktimatzat aitortuak zeuden.

Errepide-kontrolak

Batzorde honek 7 kasu aztertu ditu atal honetan

Hirurogeita hamar hamarkadako lehendabiziko urteetatik laurogei hamarkadako aurreneko urteetara nongura jarri ziren errepide-kontrol anitzetan giza eskubide urraketa larrienetako batzuk gertatu ziren. Guardia Zibilak egin zituen kontrol gehienak. Kontrolek sortutako beldurra euskal gizartean hedatu zen, gazteen gan bereziki, miaketak etengabeak izan baitziren. Miaketak burutzean Guardia Zibilak intimidaziora eta botere-abusura jo ohi zuen. Sasoiko bortizkeria politikoa zeharo nabaria zen nongura. Kontrolak gaez eta seinalerik jarri gabe egin zituzten sarri askotan eta horrek ondorio larriak ekarri zizkien kontrolak nahi gabe hautsi zituzten gidari askori. Beste kasu batzuetan ez zen ez eta benetako kontrolak ezarri ere: uniformeak jantzitako agente batzuek, gaez errepide ertzetan kokaturik eta inolako seinalerik jarri gabe, gidari batzuk tiroka erail zituzten.

Sarritan kontrolak ordena publikoko indarrek jasandako atentatuen ondoren ezartzen ziren, minutu gutxi batzuk igarota. Gehienetan ETAK egindako atentatuak izan ohi ziren baina beste batzuetan CCAA-k egindako atentatuak gertatu ziren. Errepide-kontrolak atentatuak egindako pertsonak harrapatzeko tresna zirela aldarrikatu zuten ordena publikoko indarrek; eskuin muturreko taldeek egindako atentatuen kasuetan, ordea, ez zen kontrolak ezarri. Jarduera asko zitu bizi prestatzen zituzten eta abusua nagusi zen. Batzordeak aztertutako kasuetan ikus daitekeenez, zenbait kasutan poliziek autoan zihoazen herritarrek tirokatu zituzten, horietako hainbat erailda eta zauritu ugari sortuta.

Beste kasu batzuetan tentu handiz prestatutako ekintzak izan ziren; hala gertatu zen Bilbon 1961eko martxoan, adibidez. Poliziek hiru pertsona ETAKo kide zate hartu zituzten –oker hartuta– eta autoa gelditutakoan tiroka ekin zieten. Autoan zihoan herritar bat, Javier Batarrita, tiroek erail zuten eta beste batek zauri larriak jasan zituen.

Atxiloketa arbitrarioak eta tortura

Batzordeak 72 kasu aztertu ditu atal honetan

Ordena Publikoko Indarrek maiz erabili zituzten tratu txarrak eta torturak galdeketeran. Portaera hau bereziki ETAko kideen kasuan azaldu zuten baina, edonola ere, ETAtik erabat kanpoko beste erakunde batzuetako militanteen kasuetan ere torturak eta tratu txarrak erabili zituzten. Batzordeak hala konprobatu du kasuak aztertu dituenean.

Aurreneko erasoak atxiloketa egiteko une berean ager zitezkeen, atxilotuak erresistentziarik azaldu gabe ere. Ondoren atxilotua autoz eramaten zuten galdeketa egiteko gunera, auto kamuflatuetan edo poliziaren autoetan, eta autoetan tratu txarrak jasaten zituen kasu askotan. Gero komisarian itaunketari ekiten zitzaion eta galdeketa komisario batek edo Brigada Politiko Soziala deritzonaren kide batek egiten zuen. Galdeketen alderik gogorrena atxilotuek Poliziari "laguntzarik" ematen ez ziotenean azaltzen zen, hots, akusazioa ekarritako ekintzetan inplikaturik edo inplikatutako barik egonda informazioa ematen ez zutenean. Batzordeak eza-gututako beste kasu batzuetan atxiloketak ekintza indiskriminatuak edo zigor hutsak izan ziren. Atxilotuak sarri isolatzen zituzten, ziegetan argia pizturik utzita; horrela ezin izaten zuten lorik egin. Neke itzelak azkenik loa ekartzen zien baina orduan garraxika esnatzen zituzten eta poliziako funtzionarioek beste gela batera eramaten zituzten. Biluztuak izaten ziren, edota flexioak egitera edo bestelako ariketa fisikoren bat egitera behartuak, behin gorputza akiturik errazagoa baita borondatea haustea. Itxialdietan zehar mehatxuak jasaten zituzten, heriotz-mehatxuak ere bai. Senide zuzenak atxilotuko zituztelako mehatxuak egiten zizkieten. Kasu batzuetan atxiloketak antzeztzen zituzten. Poliziak, hala ere, oraindik erantzunik jaso ezearan, segurtasun indarretako kide batzuek "galdeketa" txanda gogorrak burutzen zituzten.

Makina bat alditan atxilotuek tortura are krudelagoak eta sofistikuagoak sufritu behar izan zituzten: bainuontziarena egin, plastikozko boltsa batekin ito, zenbait objektuekin jo, buruan tiro bat emango ziotela antzeztu edo eremu batera eroan eta bertan hilko zutela mehatxatu. Baliteke zenbaitetan atxilotuek tratu txarrak eta torturak salatzea epailearen aurrean; halakoetan magistratuak ez zuen kasurik egiten, ezta ikertu ere. Politika eta sindikatu alorretako erakundeetan sartutako atxilotu askok halako babesik eza eta abusua bizi izan zituzten.

Frankismoak oso eskubide eta askatasun indibidual urriak onartu zituen eta gainera, zenbaitetan, horiek ere ukatu egin ziren. Hala izan zen Euskadin ezarritako salbuespen-egoeretan, adibidez, egoera zeharo larrituz. Azken-aurreko neurrian –1975eko apirillean dekretatua– gertatutakoa horren guztiaren adibide gardena da.

Sexu bortizkeria

Batzorde honek poliziek atxilotuak zaindu bitartean gertatu ziren bortxaketak eta sexu-ukituko agresio zenbait aztertu eta onartu ditu

Garai hartan emakumeen aurkako biolentzia onartua zen eta kasu askotan justifikatua. Sexu-ukituko krimenak "*pasio-krimetzat*" hartzen ziren eta biktimak hamarkada askotan ikusezinak izan ziren. Erasoak, abusuak eta bortxaketak ordena publikoko indarrek eginez gero askoz egoera zailagoa azaltzen zen. Frankismoan indar horien autoritatea ezin zen kolokan jarri eta emakumeek gertaera horiek salatzeko izan ohi zuten ahalmena oso ahula zen. Kaltetuek mehatxuak irentsi behar zituzten eta kaltegiek, osterara, ez zuten inolako zigorririk jasotzen, gizartean zeukatzen prestigioari esker. Eraso horiek beste tortura mota bat dira.

Ordena publikoko indarrek eragindako sexu-eraso gehienak atxiloketek zein galdeketek eskainitako zigorrak ezako giroan gertatu ziren. Emakumeek ez ezik gizon batzuek ere jasan zituzten erasoak, nahiz eta gehienetan andrazkoek sufritu zituzten mota honetako bortizkeriak: bortxaketak, sexu-erasoak, ukituak eta abar. Poliziek hainbat alditan emakumeak biluzi eragiten zituzten haien aurrean eta ariketa fisikoak egitera behartu, irain asko entzun behar izanda.

4. Gertaeren ezaugarriak eta biktimen egoera

Txosten honetan giza eskubideen urraketa edo bidegabeko sufrimendua –bizitzaren aurkako atentatua edo osotasun fisikoaren nahiz psikologikoaren aurkakoa– bizi izan duten biktimak bildu dira. Estatuko agenteen biolentziak sortutako biktimak dira, indar gehiegikeriak eta frankismoaren diktaduran izandako zigorrik ezak erasotutakoak.

Batzordearen manuan zenbait bortxaketa hartu ziren aintzat: bizitzaren aurkako atentatuak (heriotza eragin zutenak edo desagertzeak eta zauriak eragindakoak), indargehiegikeriak, tratu txarrak eta torturak. Badaude beste giza eskubide urraketa batzuk, adibidez adierazpen-askatasunaren kontra edo elkartzeko eskubidearen aurka burutzen direnak, baina lan honetan ez ziren jorratu. Dena den, kontuan izan behar da azken urraketa horiek arestian aipatutako beste urraketa haien giro berean gertatu zirela. Kasu hauek guztiak ez dira “polizia-abusutzat” jo behar, azken batean hitz horiek ez baitira batere zehatzak eta ez baitaude nazioarte mailan onartuak. “Polizia-abusua” adierazteak biktimen sufrimendua txikitu eta mugatzen du.

Oro har hartuta, hona hemen giza eskubideen urraketa hauen ezaugarri nagusiak:

Diskriminaziorik eza eta nahitasuna

Batzordeak ikertu dituen kasu askotan diskriminaziorik eza nabaria azaltzen da, dela ingurune kolektiboagatik, dela biktimaren nortasuna inola ere kontuan hartu barik gertatzeagatik. Talde honetan sar daitezke manifestazioetan zeuden pertsonen aurkako erasoak, edo errepide-kontrolatan autoen aurka izandako erasoak. Zenbait kasutan indarraren erabilerak eta armek heriotza edo zauri larriak eragin zituzten. Beste hainbatetan, tortura kasuetan zehazki esanda, atxiloteta egiteko intentziona oso garbia zen, baina horretaz gain inolako diskriminazio eza argia ere azaldu zen, batzordeak ikusitako kasuetako biktima asko ez baitziren arma-erakundeetako edo politika arloko militanteak, ez zuten ezelako militantziarik.

Biolentziaren zabalera eta giza eskubideen urraketa

Batzordearen aurrean aurkeztu diren kasuak epe jakin batzuetan eta elkarrekiko antzekotasun handiko egoeretan edo testuinguruetan gertatu ziren. Esan nahi da giza eskubideen urraketa ez zela salbuespena, baizik eta segurtasun indarrek beretzat hartutako portaera ohikoa. Sasoirik sasoi antzeko gertaerak ikus daitezke baina tarte zehatz batzuetan praktika haiek gogortu ziren (Burgoseko Epaiketa, irailaren 27ko fusilamenduak, Salbuespen-egoerak...). Sindikatu, politika edo auzo esparruetatik jaiotako edozein ekintza –subertsio estigmatiduna– bortizkeriaz kontrolatzen zuen frankismoak, biktimen eta senideen adierazpenek jakinarazi dituzten eskubide urraketen bidetik. Urraketa horiek kasu batzuetan ETAk edo beste talderen bategindako ekintzen aurrean adierazitako erantzunak eta mendekuak ziren.

Segurtasun-falta eta bizi-arriskua: ekintza sozialak

Estatuko agenteen erantzun bortizak normalizatu ziren manifestazioak erreprimitzeko orduan. Gizarte gaineko kontrola bizitzaren eremu askotan hedatu zen. Horrek guztiak segurtasun-falta eta arriskua ekarri zien herritarrei, ez bakarrik manifestazioetan edo protestetan aritzen zirenei, baita “bertatik pasatzen zirenei” ere. Zer esanik ez, gauza bera gertatzen zen politika erakunderen bateko kideak izatea leporatuz gero, benetan hala izanda nahiz okerren bat izanda. Diktadurari aurre egiten ziotenak gero eta gehiago ziren. Giza mugimendu ugarietan sarturik zeuden kasurik gehienetan. Fenomeno hori gertatu zenean poliziaren bortizkeria zeharo zabaldu zen eta ordutik aurrera oso normalizat hartu zen atxilotua izateko eta torturatua izateko arriskua, inolako defentsarik gabe.

Babes-falta eta zigorrik eza

Batzordekideen aurrean deklaratu zuten biktimek agerian utzi zuten Estatuko agenteen ekintzen aurrean bizi zuten babes-falta. Erregimenaren arbitrariotasuna izugarria zen, funtzionarioena eta epaileena (auzitegi militarrei eta Ordena Publikoko Auzitegiari zegozkienak) betiere, eta bidegabekeria horrek zigortasunik eza bultzatu zuen testuinguru hartan. Aztertutako kasu guztietan ez zen inolako ikerketa independente-rik gauzatu. Gehienetan ez zen ikerketarik hasi ere egin, eta hasiz gero biktimek ez zeukaten bermerik. Beste hainbatetan biktimak izan ziren epaituak, kaltegileak epaitu beharrean, desobeditzea, desordenak edota subertsioa leporatuta. Egoera horrek diktaduran zehar eta konstituzioa jarri aurreko epean iraun zuen. Aipatutako epea 1975eko abendutik sistema demokratikoa abian jarri artekoa da. Epe horretan oraindik ez zegoen Zuzenbidezko Estatu baten baitan halako kasuak ikertzeko behar adinako bermerik, eta horrez gain ez zen inolako laguntzarik ezarri ikerketan lagundu ahal izateko. Kaltegileen zigorrik eza jarduketa-eredu bihurtu zen, biktimen sorbalda gaineko beste kalte bat.

5. Batzordearen lana

Lehendabiziko bileretan Batzordeak funtzionamendu araudia onartu zuen jadanik. Lana burutzeko irizpide sorta bat ere ezarri zuen. Irizpideak funtsean mantendu dira baina zenbait kasutan hobetu, handitu edo zuzendu dira, lanaren dinamikak eta esperientziak emandako ezagutzan oinarrituta. Aurreneko bileretan Batzordeak elkarrizketen egitura eta kudeaketa finkatu nahi izan zituen eta horregatik sortu zuen elkarrizketa-gidaliburu bat.

Lan-ildoak honakoa izan zen: jasotako dokumentazioa aztertu, Batzordekideek elkarrizketak egin eta ondoren kideek kasu bakoitzaren balioztatze aztertua eta lasaia egin. Batzordekideek datuen azterketa osoko bilkuran egitea erabaki zuten aho batez. Bilkura horretan kasu bakoitzaren berezko ezaugarriak hobeto zehaz daitezke eta beste zenbait erakunderi dokumentazio osagarria eskatzea erabaki daiteke, hala behar izatekotan.

Halaber, Batzordekideek biktima eskatzaile guztien adierazpenak jaso nahi izan zituzten, helburu bi beteko baziren:

- a) Irizpenaren dokumentazio-euskarria izan.
- b) Memoria-funtsa bat eratzen lagundu, giza eskubideen urraketen biktimei dagokiena.

Biktimak bertaratu behar izan direnean kontu handiz zaindu dira harrera-guneko giroa eta baldintzak, baita giza-hurbiltasuna ere, hala deialdia edo zita egiteko orduan nola haien adierazpenak jasotzeko momentuan.

Elkarrizketak ikus-entzunezko baliabideetan gorde ziren eta horretarako Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntza jaso zuen Batzordeak, frankismoaren biktimekin egindako grabazioen esperientzia zeharo baliogarria izan baitzen.

Elkarrizketak egin ondoren Batzordekideek konbikzio-elementu guztien (dokumentalak nahiz adierazpenak) balioztatze orokorra egin zuten. Horren ostean irizpen bat burutu zen eta geroago denon artean jorratu zuten, eztabaidatu eta azkenik osoko bilkuran onartu.

Esandako irizpenak Eusko Jaurlaritzak emandako biktima-errekonozimendu ebazpenak hartzeko oinarritzat erabili dira. Azpialdean irizpenen egitura azaltzen da:

- a. Aurrekarien zerrenda (dokumentazioa espedientean agertzen da).
- b. Aztertutako gertaeren sasoiko testuinguru sozio-politiko txertatu da.
- c. Batzordeak onartutako gertaeren deskribapena eta analisisa.
- d. Ondorioak.
- e. Batzordearen akordioa.

6. Gomendioak

Batzordeak lanaren nondik-norakoa jarraitzeko zenbait memoria gauzatu ditu. Memoria horietan gomendio batzuk islatu dira, giza eskubideen urraketak jasandako biktimen erreparaziorako eta errekonozimendurako politika publikoak era egokian garatzeko asmoz.

Azken txostenean Batzordeak gomendioetan sakonduko du; hori hala izanda, txosten honetan memoria batzuetan emandako hainbat gomendio baino ez dira bildu.

1. Giza-eskubideen urraketak pairatu dituzten biktimen erreparaziorako eta errekonozimendurako araudia ahal den bizkorren osatu beharra dago. Motibazio politikoan sustraitutako bortizkeria-testuinguru batean –eta gaur egun arte– gertatutako urraketek buruz ari gara. Zentzu honetan, Balorazio Batzordeak kezka handiz konprobatu du zenbait kasutan giza eskubideak oso neurri larrian urratu arren ezin izan dela ziurtatu kaltegileak Segurtasun Indarretako kideak zirenik, nahiz eta susmoa ildo horretatik joan. Halako kasuetan ez dago 107/2012 Dekretua aplikatzerik. Suposizio mota horren baldintzak balioztatzeak, aldi berean, terrorismotik eratorritako biktimatzat ezin onartu izana ekarri du. Azken emaitza, beraz, lege araudi eza baizik ez da eta hala izanda ez dago biktima hauen beharrezko errekonozimendu eta erreparazio publikoa babestuko duen estalkirik. Batzordeak esperientzia baliogarria eskuratu du datuak aztertu dituenetan eta, esperientzia horretan oinarrituta, eskaera bat luzatzen die erakunde eskudunei: araudia jorratzeko unean baldintza horiek guztiak kontuan izan daitezela.
2. Batzordekideek biktima gehien sentimenduari heldu nahi diote. Sentimendua asetzaren bidetik, bada, errekonozimendurako ekitaldi publiko bat egitea gomendatzen dute. Horrez gain, biktima horiek hemendik aurrera ospatu beharreko memoria-ekitaldi guztietara gonbidatzea gomendatzen dute.
3. Errekonozimendu eta erreparaziorako edozein prozesu burutu nahi baldin bada, erabat nahitaezkoa da prozesua aurrera eraman ahal izateko behar adina baliabide izatea, bai giza-baliabideei bai materialei dagokienez. Era horretan lana ahal den ondoen beteko dela bermatuko da. Kontu hau edozein prozesu egin aurretik aintzat hartzea gomendatzen du Batzordeak.

Azkenik, Batzordekideek esker ona adierazi nahi diete haiekin bildutako biktima guztiei, kideen aurrean erakutsi duten partaidetzagatik, jarrera onagatik eta konfidantzagatik.



9. dokumentua

Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei **errekonozimendua eta erreparazioa** emateko **Legea**

12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa

Zioen azalpena

I

Eusko Legebiltzarrak, 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran, 61/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruz. Proposamen hartan, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion neurriak eta jarduerak martxan jar zitzala biktima haien errekonozimendua ahalbidetzeko eta haien sufrimendua konpontzeko. Hura betetzeko, 107/2012 Dekretua onetsi zen, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, diktadura frankistan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa. Lehenengo urrats horrek denbora mugatua zuen, eta geroagoko legegintza-une baterako utzi zen biktimei laguntzeko politika hura luzatzeko lana.

Eusko Legebiltzarrak, 2015eko ekainaren 11n egindako bilkuran, Legez besteko 70/2015 Proposamena onartu zuen testu honekin:

1. Eusko Legebiltzarrak berresten du ez dagoela giza eskubideen gainetik egon daitekeen kausa politikorik, eta etorkizuneko elkarbizitzak eskatzen duela indarkeriaren injustiziaren eta sortutako kaltearen errekonozimendua, bai eta biktimen duintasunaren errekonozimendua ere, biktima guztiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik.
2. Eusko Legebiltzarrak Espainiar Gobernuari eskatzen dio batu dadila giza eskubideak urratu zazkien baina errekonozimendurik izan ez duten biktimen erreparaziorako politika, hala nola den 1960-1978 tartean poliziaren abusuen biktimen kasua, abiapuntu izanik biktima guztien errekonozimenduaren aldeko adostasun sozial, politiko eta instituzionala.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala garatzen, botere-abusuagatik edo indarkeria polizialaren erabilera ezlegitimoagatik giza eskubideak urratu zaizkien biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako politikak, aurreko legealditik bultzatzen ari direnak. Alde horretatik, eta aipatutako jokabideari jarraipena emanez, eskatzen du ezen Ganbera honetan aurkeztea iragarrita dagoen biktima horien errekonozimendu eta erreparaziorako lege-proiektuak hasieratik beretik bilatu dezala ahalik eta adostasun sozial, politiko eta instituzional zabalena”.

Lege honekin, beraz, aurrera egiten da lehenago hasitako bidean eta gauzatzen da 1978ko abenduaren 29tik aurrera giza eskubideen urraketen biktima izan zirenak artatzeko borondatea.

Data hartatik aurrera giza eskubideen urraketa larrien biktimak, errekonozitu eta erreparatu gabeak, egoteak ematen du, funtsean, lege honen beharra. Biktima horiek existitzen baitira, agindu etiko eta demokratiko bat da haiek errekonozitzeko eta erreparatzeko baliabide bat sortzea.

1978an onetsi zen Espainiako Konstituzioak, oinarriko eskubideak eta askatasun publikoak arautzeko epigrafean, 15. artikuluan, gehitzen du ezen guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dutela, eta ezin dela inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalessgarririk ere. Sistema demokratiko batean funtsezko eskubide hori urratzen denean, botere publikoek lan egin behar dute, jokabide horiek saihesteaz gainera, jokabide horien erreparazioan eta errekonozimenduan ere, hala badagokie, eta Euskal Autonomia Erkidegoak arlo horretan lan egiteko eskumenak ditu.

107/2012 Dekretuak eta lege honek biltzen dituzten garaietan Euskadin pairatu ziren giza eskubideen urraketek diagnostiko oso batek bere barruan hartu behar ditu terrorismoaren biktimak eta agente publikoek beren lanean, zuzenean edo zeharka, eragindako urraketek biktimak, errealtate erabat ezberdin horiek, giza eskubideen urraketak inolaz ere justifika ezin ditzaketanak, parekatu dituen diskurtsorik egin gabe. Baina bai 107/2012 Dekretua bai legea lotzen zaizkie bi garai horietako biktima errekonozitu gabeei, testuinguru konpartitu gisa ETaren existentzia zutenei. Ekintza terroristek ez dute justifikatzen botereabusuaren bidez eragindako urraketa bat bera ere ez, baina giza eskubideen urraketak egotea ezin da azaldu gatazka politiko batek eragindako bi bortizkeriaren arteko enfrontamendu gisa. Hori horrela, lege hau mugatzen da errekonozimendurik eta erreparaziorik izan ez duten biktimak artatzera, bestela interpretatzeko biderik gabe.

Biktima horiek egon badaudela frogatu dute giza eskubideen arloko nazioarteko erakunde txostenek, bai eta hainbat kronika eta informazioak eta akademikoek eta adituek gidatutako txosten ugariak.

Ondorioz, orain arte ez errekonozimendurik ez erreparaziorik jaso ez duten biktima horiek beraiek dira lege honen beharra justifikatzen dutenak; izan ere, lege hau estuki loturik dago zuzenbide-estatuarekiko konpromiso demokratikoarekin eta horren oinarri diren printzipio, eskubide, askatasun eta bermeekin. Lege honen helburua da, beraz, motibazio politikoko egoera batean eragin zitezkeen giza eskubideen urraketak errekonozitzea eta erreparatzea. Errekonozimendu horrek ez du Zuzenbide Estatuaren ahurtzen, eta bere erakundeak ere. Alderantziz; sendotu egiten ditu, marko demokratiko batean onartezinak diren jokabideen ondorioak konpontzeko nahia eta konpromisoa inplikatzeko. zuzenbide-estatuaren balioa ez dago bere baitan akatsik edo legez kanpoko ekintzarik ez gertatzean, baizik eta horiek identifikatzeko, zuzentzeko eta, ahal den neurrian, horien ondorioak konpontzeko gaitasunean.

Politika publikoa izanik, lege honen bitartez, asmoa da balio eta printzipio demokratikoak sustatzea, 1978tik 1999ra bitartean izandako gertaerak eta egoerak ezagutaraziz eta denboraldi historiko horri lotuta dauden eta artxibategi publikoetan dauden dokumentuak ondo zaintzen direla bermatuz.

Lege honen asmoa da, halaber, bizikidetzaren normalizatzen eta iraganaren memoria kritikoa eraikitzen laguntzea. Euskal gizarteak bost hamarkadaz baino gehiago jasan ditu terrorismoa eta indarkeria. Motibazio politikoko indarkariaren testuinguru honetan, giza eskubideen urraketek biktima kopuru garrantzitsu bat izan da, batez ere hirugogeita hamarrek hamarkadaren bukaeran eta laurogeiko hamarkadan. Egun indarrean dauden legeek ez dituzte biktima horiek babesten. Hori dela eta, errekonozimendu hori beharrezkoa da bizikidetzaren normalizatzeko eta iraganaren memoria kritikoa eraikitzeko.

Azken batean, hauxe da lege honen helburua: Euskal Autonomia Erkidegoan 1978ko abenduaren 29 eta 1999ko abenduaren 31 bitartean giza eskubideen urraketa bat gertatu bada motibazio politikoko indarkeria-egoera batean, giza eskubideen urraketa horien biktimak errekonozitzea eta haiei jasandako kaltea erreparatzea. Izan ere, biktimak gizalegez eta zuzen tratatu behar dira.

II

Lege honek 1978tik aurrera izandako biktimei eskaintzen dien babes 1999. urtera arte luzatzen da, momentuz, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren exekuzioaren bitartez bildutako esperientziari bidea emanda. Preskripzioaren instituzioak eskatzen du denbora- tarte hori zehaztea. Horrek aukera ematen du preskribatu egin direlako merezi zuten egiaren, justiziaren eta erreparazioaren errekonozimendua jaso ez duten kasuei heltzeko. Horrela, ez da interferentziarik gertatuko oraindik ere justizia-epaitegien aurrera eraman eta legezko ekintzak har daitezkeen gaitan.

Bigarrenik, 107/2012 Dekretuaren exekuzioaren bitartez bildutako esperientziak gomendatzen du biktimen arretari modu progresiboan heltzea, politika publikoak esku hartzeko denbora-tarteak ezarri.

III

Lege honen oinarrian dago giza eskubideen babesaren alorreko nazioarteko itunek eta akordioek – tartean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, Nazio Batuen 1966ko itunek zein Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak– ezarritako doktrina, joan den mendean aurrerapen handia ekarri zuena pertsonaren funtsezko eskubide batzuen definizioan eta babesean. Eskubide horiek funtsezkoak dira pertsona guztientzat eta barne hartzen dituzte, zalantzarik gabe, bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko, psikologiko, moral eta sexuala izateko eskubidea. Eskubide horiek izaera ia absolutua dute eta, egun, pertsonaren babesaren funtsezko edukiaren muintzat hartzen dira; oinarrizko zati komun demokratikoa osatzen dute, berenez, eta gure gizartearen babes-esparru eztabaidaekin eta intenporala.

Ildo berean, ezinbestekoa da oinarrizko eskubideei buruzko corpus juridikoa aipatzea, zein, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluari jarraituz, interpretatu behar baitira Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta Espainiak gai horien inguruan berretsi dituen nazioarteko tratatu eta itunak kontuan hartuta, zeinen artean azpimarratu behar baititugu torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako konbentzioa, New Yorken 1984ko abenduaren 10ean egin eta Espainiak 1987ko abenduaren 19an berretsia, eta derrigorreko desagertzeen aurka pertsona guztiak babesteko nazioarteko konbentzioa, New Yorken 2006ko abenduaren 20an egin eta Espainiak 2006ko abenduaren 20an berretsia .

Oinarrizko eskubide horiek botere publikoen babes 1999. urtera arte luzatzen da, momentuz, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren exekuzioaren bitartez bildutako esperientziari bidea emanda. Preskripzioaren instituzioak eskatzen du denbora- tarte hori zehaztea. Horrek aukera ematen du preskribatu egin direlako merezi zuten egiaren, justiziaren eta erreparazioaren errekonozimendua jaso ez duten kasuei heltzeko. Horrela, ez da interferentziarik gertatuko oraindik ere justizia-epaitegien aurrera eraman eta legezko ekintzak har daitezkeen gaitan.

Oinarrizko giza eskubide horien urraketa larrien biktimei eskaintzen dien babes 1999. urtera arte luzatzen da, momentuz, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren exekuzioaren bitartez bildutako esperientziari bidea emanda. Preskripzioaren instituzioak eskatzen du denbora- tarte hori zehaztea. Horrek aukera ematen du preskribatu egin direlako merezi zuten egiaren, justiziaren eta erreparazioaren errekonozimendua jaso ez duten kasuei heltzeko. Horrela, ez da interferentziarik gertatuko oraindik ere justizia-epaitegien aurrera eraman eta legezko ekintzak har daitezkeen gaitan.

Euskal Autonomia Erkidegoko legediari dagokionez, Autonomia Estatutuko 9. artikulua xedatzen du euskal herri-aginteei herritarren oinarrizko eskubide eta eginbeharren erabilera egokia zaindu eta bermatu behar dutela, eta bizi-baldintzak hobetzeko politikak bultzatu beharko dituztela. Botere publikoei dagokie, baita ere, baldintzak sortzera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurriak hartzea, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezzen. Betebehar hori bat dator Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan ezarritakoarekin, eta, beraz, pertsonaren eta, ondorioz, gure gizartearen babes- eta erreparazio-esparru ezberdinek gabe intenporal bat gaitzen du. Hori oinarri, giza eskubideen urraketen biktimei laguntzeko politika Euskal Autonomia Elkarteari dagozkion eskumenen barne dago, zehazki, Gernikako Estatutuaren 10.12 artikulua (gizartelaguntza), 18. artikulua (osasuna) eta 10.39 artikulua (komunitatearen garapena) bitartez.

lido horretan, legeak zuzendu egin nahi ditu giza eskubideen urraketa larri baten ondoriozko desberdintasunak; horretarako, kasu bakoitzari egokitutako ikuspegi pertsonalizatu eta asistentzial bat eskaintzen du. Bestalde, komunitatearen garapen adiskidetzaila eta erreparatzailea sustatzera bideratuta dago, hainbat hamarkadatan zehar terrorismo-, indarkeria eta eraso-ekintzak direla eta bizipen traumatikoa pairatu duen gizarte batean.

IV

Legeak, aurrekari duen ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak bezala, errekonozimendu eta erreparazio-sistema bat ezartzen du, eta, gainera, biktimaren eta bere eskubideen definizioa garatzen du, edukiak legea aplikagarri den denbora-esparru berriari egokituta, eta kontuan hartuta aipatutako 107/2012 Dekretuko Balorazio Batzordearen gomendioak eta esperientzia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 267/2015 Epaiak ezarritako zuzentaruak. Biktimen erreparazioen edukietan sakontzeko xedea ere badute aldaketok, lehenik kalteordaina jasotzea dagokielako, baina ez du izan behar urrats bakarra, pairatu zuten giza eskubideen urraketa bidegabeta aitortzeko bidean.

Horretarako, lege honek zazpi kapitulu, lau xedapen gehigarri eta bi azken xedapen ditu.

I. kapituluak legearen xedapen orokorrak artikulatzen ditu, xedea eta aplikazio-esparrua (bai geografikoa bai denborazkoa) identifikatzen ditu, eta biktimaren definizioa zehaztu eta onuradunak identifikatzen ditu.

II. kapituluak biktimei merezi duten errekonozimendua eta erreparazioa emateko jarduketaprintzipioak arautzen ditu, elkartasun- eta azkartasunprintzipioak oinarri hartuta, beste biktimizazio-prozesu batzuk ekidinez, erakundeen artean elkarlanean jokatzu eta eskubideak bermatuz.

III. kapituluak errekonozimendua eta erreparazioa ditu ardatz, eta errekonozimendu publikoa, justizia eta egia izateko eskubideak jasotzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekin bateragarriak diren heinean. Tratu txar larriak edo iraunkorrak ez diren lesioak jasan direla egiaztatzen eta ziurtatzen bada, pertsona horri biktima-izaera emango zaio, eta merezi duen errekonozimendua jasoko du, baina ez du konpentsazio ekonomikorik jasoko. Konpentsazio ekonomikoa zor zaienentzat baremazio-sistema bat ezarriko da, jasotako kalteen izaeraren arabera. Kapitulu honek osasun-asistentzia integrala ere aintzat hartzen du erreparazio-neurri gisa.

IV. kapituluak hauek arautzen ditu: prozedura, prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena duen organoa, eta abiarazte-, instrukzio- eta ebazpenmoduak. Izapidetzea Eusko Jaurlaritzan giza eskubideen arloan eskumena duen organoaren esku egongo da; instrukzioa Balorazio Batzordearen esku uzten du, eta prozeduraren ebazpena Eusko Jaurlaritzan giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren esku.

Prozedura honek ez du arauzko garapenik, eta 2 urteko epea ematen du eskaerak aurkezteko eta 2 urtekoa espediente ebazteko. Horrez gain, epe hori luzatzeko aukera ematen du, hori justifikatuko duen salbuespeneko egoera bat gertatuz gero. Horren guztiaren helburua da, batetik, eskaerak aurkezteko modua erraztea eta, ahal den heinean, eskaerak samaldaka ez aurkeztea, eta, bestetik, eskaera horiek modu zorrotz eta ordenatuan aztertu ahal izatea; izan ere, kasu batzuetan, egoera konplexuak eta duela urte asko gertatutakoak aztertu beharko dira.

V. kapituluak Balorazio Batzordea sortzen du, eta haren osaera eta funtzionamendua arautzen ditu. Hain zuzen ere, batzorde hori Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza duen pertsonak, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak izendatutako bi auzitegiperituk eta psikologo batek eta legeak arautzen duen esparruko sei adituk osatuko dute; azken sei pertsona horietako hiru Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu, eta gainerako hirurak Eusko Legebiltzarrak. Batzorde horren funtzio nagusia izango da, egitateak egiaztatuta, bere aurrera iristen diren giza eskubideen urraketakasueta ageri diren kalteen, lesioen eta ondorioen balorazioa egitea, baina ez ditu gertakari inplikazio penalak aztertuko.

VI. kapituluak biktimaren betebeharrak zehazten ditu, eta horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak deskribatzen ditu.

VII. kapituluak xede horretarako esleituko den hornidura arautzen du, aurrekontu-legearen bitartez, bai eta horretarako onetsiko diren zuzkidura ekonomikoen beharrezko publizitatea ere.

Legeak zazpi xedapen gehigarri ditu. Lehenengo hiruei esker posible da arauaren aplikazio atzeraeragina, alde batetik, bere garaian, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren babesean, errekonozimendua jaso zuten

pertsonei; hala, aukera izango dute legeak aipatzen dituen osasun-prestazio berrien onuradun izateko. Bigarrenik, aukera emango du 1960 eta 1978 bitartean izandako legez kontrako errepresioegoeretan gertatutako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak errekonozitzeko, lege honek ezartzen dituen baldintza guztiak bete arren ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren babesik ez duten kasuetan. Hirugarrenik, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak jasotako baldintza guztiak bete arren errekonozimendua eskatu ez duten edo epez kanpo eskatu duten pertsonentzat. Laugarren xedapen gehigarriak baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrak direla-eta ematen diren kalte-ordainei aplikatzen zaien arautegia ezartzen du. Bosgarrenak Balorazio Batzordea eratzeko epea ezartzen du. Seigarrenak erruduntasun-lotura jakin bati buruzko salbuespena ezartzen du. Zazpigarrenak ezartzen du Balorazio Batzordearen prozedurei buruzko erregelamendu bat egin behar dela.

Bukatzeko, azken xedapenetako lehenengoak baimena ematen dio giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularrari legea garatzeko eta exekutatzeko behar diren beste xedapen emateko; azken xedapenetako bigarrenak, berriz, legea indarrean sartzeko den uneari egiten dio erreferentzia.

I. Kapituluak

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan 1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoera batean izandako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak errekonozitzeko eta, hala badagokio, erreparazioa emateko eskubideak eratzeko, lege honetan aurreikusitako ondore eta irismenarekin.

2. artikulua. Non aplikatuko den

1. Lege hau honako kasu honetan aplikatuko da: 1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoera batean giza eskubideen urraketaren bat gertatu bada, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

2. Lege honen ondoretarako, motibazio politikoko indarkeria-egoera bateangertatutako giza eskubideen urraketatzat hartuko dira baldintza hauek betetzen dituztenak:

- a) Motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan gertatu izana.
- b) Motibazio politikoko helburuekin egindako jardueraren batean edo jarduera batzuetan egin izana eta bertan funtzionario publikoek parte hartu izana, hala beren zereginen exekuzioaren baitan nola beren zereginen exekuziotik kanpo, edo norbanakoek parte hartu izana, hala taldean jardunez nola era isolatuan, bakarka eta kontrolatu gabe jardunez.
- c) Giza eskubideak urratu izanaren ondorioz pertsonen bizitzari edo osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualari kalte egin izana.

3. Orobat, legearen aplikazio-eremuko giza eskubideen urraketatzat joko dira defentsa-gabezia justifika dezaketen pertsonen kasuak, defentsagabezia hori egiaztatzeke Zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bidez, legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztu diren salaketak ez ikertzeagatik.

4. Motibazio politikoko indarkeria-egoera batean giza eskubideen urraketa egiaztatu ahal izango da legez kontrako egitate horien errealitatea aitortzen duten administrazio-ebazpenaren edo ebazpen judizialaren bitartez, egitate horiek alegatzen diren kalteekin edo eskubideen afekzioarekin kausazko lotura badute. Bestela, zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango da, aurretiki prozesu judizial bat egon beharrik gabe.

5. Lege honetan aurreikusitako motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatutako giza eskubideen urraketa Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan gertatu dela ulertuko da honako kasu hauetan:

- a) Gertakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean gertatu direnean.
- b) Gertakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo gertatu arren, kalteak jasan dituen pertsonak bizilekua, une hartan, aipatu Autonomia Erkidegoko udalerriren batean bazuen.
- c) Gertakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo gertatu baziren eta biktimak 10 urtez Euskal Autonomia Erkidegoan izan bazuen bizilekua.

6. Lege honek errekonozitzen dituen eskubideak eta prestazioak lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketak zuzenean jasan dituzten biktimen esku egongo dira, kasu bakoitzean adierazitakoarekin bat etorriz.

7. Berariaz, lege honen aplikaziotik kanpo gelditzen dira indarkeriazko ekintza bat egite aldera armak edo lehergailuak erabiltzean hil edo zauritutako pertsonak, baita segurtasun-indar eta -kidegoen zilegizko jardueri erantzuteko edo jarduerak saihesteko asmoz gertatu zenean ere.

3. artikulua. Pertsona onuradunak

1. Lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketak jasan zituztela egiaztatzen duten pertsona guztiak izango dira lege honetan errekonozitutako eskubide guztien zuzeneko onuradunak.

2. Baldin eta norbaiten giza eskubideak urratu eta, urraketaren ondorio zuzen modura, pertsona hura hil egin bada, honako hauek eska dezakete biktima-deklarazioa eta izan daitezke hari dagokion ordain ekonomikoaren onuradun, hurrenkera baztertzailan:

- a) Hildako pertsonaren ezkontidea, legez bananduta ez bazeuden, edo harekin modu iraunkorrean, antzeko afektibotasun- harreman batean, gutxienez hil aurreko bi urteetan, bizi zen pertsona, bien artean seme-alabarik izan ez badute, kasu horretan nahikoa izango baita elkarrekin bizi izana; eta hildako pertsonaren seme-alabak.
- b) Aurretik aipatutakoak egon ezean, jasotzaileak hauk izango dira, elkarren segidako hurrenkera baztertzailan: hildakoaren aita eta ama, bilobak, nebaarrebak eta aitona-amonak.
- c) Aurretik aipatutakoa egon ezean, bizikidearen seme-alabak eta hildakoak familia- harrera iraunkorrean zituen adingabeak, ekonomikoki haren mendean bazeuden.

3. a) letran aurrez ikusitakoa gertatzen den kasuetan, diru-laguntza erdibituko da, erdia ezkontidearentzat edo bizikidearentzat izango da, eta beste erdia seme-alabentzat (zatiak, azken honetan, berdinak izan behar dira).

4. Ahaidetasun-harreman berdina duten pertsonak badaude, zenbateko osoa haien artean banatuko da, zati berdinetan.

5. Lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketak jasan zituen pertsona baldin eta egintzen ondoren eta egintzenak ez diren beste arrazoi batzuegatik hiltzen bada, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako pertsonak eskatu ahal izango dute biktima-deklarazioa. Kasu horretan, giza eskubideen urraketaren ondorioz lesio iraunkorrak gertatzen badira, lesio horretarako aurreikusitako kopuruaren % 65 ordainduko da, lege honen 10.2 artikuluko a) letran heriotzetarako aurreikusitako kalte-ordainaren gehienezko mugarekin.

6. 12.4 artikuluan aurreikusitako arreta psikologikoari dagokionez, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako pertsonak izan daitezke onuradun, betiere lege honen babespean biktima- deklarazioari dagokion ebazpena eman bada aurretik.

II. Kapituluak

Jarduteko printzipioak

4. artikulua. Jarduteko printzipioak

1. Euskal agente publikoek, biktimekiko solidaritate -printzipioa oinarri hartuta, beharrezko neurriak hartuko dituzte:

- a) Zorroztasun, egiazkotasun eta koherentziarik ahalik eta handienarekin dokumentatzeko, lege honek definitutako markoaren barruan, aurkeztutako kasuetan egon daitezkeen giza eskubideen urraketak, eta aintzat hartzeko kasuetan egon daitezkeen aniztasuna eta desberdintasunak.
- b) Lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimek erakundeetan eta gizartean merezi duten errekonozimendua jaso dezaten sustatzea, beraien ikusgarritasuna, beraien ohorearen berrezarpena eta beraien satisfakzio morala aldeztuz.
- c) Benetako erreparazioa bermatzeko; horretarako, beharrezko neurriak hartuko dira biktimek jasandako kalte fisikoak, psikikoak, moralak eta sexualak, ahal den neurrian, arintzeko, lege honetan aurreikusitako osasun-prestazioen eta konpentsazio ekonomikoen bitartez .

2. Prozedurak printzipio hauen arabera bideratu eta ebatziko dira:

- a) Biktimen aldeko tratua printzipioa, izan dezaketen ahultasun- eta desberdintasun- egoera berezia kontuan hartuta, eta prozedurak berak prozesu traumatiko gehiagorik ez eragitea zainduz.
- b) Azkartasun-printzipioa, biktimen eskubideak eta erreparazioa aitortzea inolako beharrik izan gabe zaildu edo luzatu dezaketen izapide formalak saihestuz. Zentzu horretan, ez zaio interesdunari agiririk aurkezteko errekerituko gertakari ezagunak edo egoerak frogatzeko, horien frogak administrazio eskudunaren artxiboetan edo aurrekarietan badago.
- c) Erakundeen arteko elkarlanaren printzipioa; erakunde horiek, legezko epean eta eran, eskatzen zaizkien datu guztiak emango dituzte, eta egitateak argitzeko zein espedienteak ebazteko beharrezkoa den elkarlana ahalbidetuko dute, hala agintariekin nola teknikariekin.
- d) Beste pertsona batzuen eskubideen bermearen printzipioa, lege honen babesean izapidetzen diren administrazioespedienteetan hirugarren pertsonak egoteak ezin die pertsona horien berme juridikoei eta konstituzionalei eragin edo kalterik ekarri; edonola ere, lege honen 7.b artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal izango da.

III. Kapituluak

Errekonozimendua eta erreparazioa

5. artikulua. Biktima-deklarazioa

Lege honen ondoretarako, motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatutako giza eskubideen urraketan biktimak deklaratzeko inplikaturik du biktima-izaera publikoki errekonozitzea. Errekonozitze publiko horrek bateragarri izan beharko du biktimak, berariaz eskatuta, bere intimitatea gordetzeko duen eskubidearekin eta, ondorioz, errekonozitze hori jakitera ez ematearekin eta hirugarrenei ez jakinaraztearekin, non eta hirugarren horiek ez duten zilegizko interesa frogatzen edo jakinarazte hori justifikatzen duen bestelako arrazoi zilegizkorik ez dagoen. Botere publikoen eskumen-esparruak ahalbidetzen duen neurrian, botere publikoek sustatuko dituzte egia jakiteko eskubidea ahalbidetzen duten jarduerak.

6. artikulua. Errekonozimendu publikorako eskubidea

Euskal botere publikoek neurri aktiboak bultzatuko dituzte lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketen biktimak gogoratzen eta errekonozitzen direla ziurtatzeko, betiere biktimei erabateko errespetua adierazita eta haien duintasuna sustatuta ekintza, sinbolo eta antzeko bestelako baliabide egokiak erabiliz.

7. artikulua. Egia jakiteko eskubidea

1. Euskal botere publikoak elkarlanean arituko dira giza eskubideen, memoriaren eta elkarbizitza demokratikoaren arloan diharduten Eusko Jaurlaritzako organoekin eta organismoekin, euren eskumenak baliatuz ahal dutena egin dezaten lege honetan aipatzen diren giza eskubideen urratzei buruz egia ezagutzen laguntzeko, honako ekintza hauen bidez:

- a) Biktima guztiak gertatu zenari buruz egiaztatuta dagoena jakiteko duten eskubidearen alde egingo dute, eta, horretarako, edozein artxibo ofizialetara edo bestelako edozein informazioiturrirara iristeko erraztasunak emango dituzte.
- b) Biktimen identitatea behar bezala errespetatuta eta kasuen aniztasuna eta desberdintasunak aintzat hartuta, ezagutzera emango dituzte Balorazio Batzordeak, lege honen arabera, motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatutako giza eskubideen urraketatik jo dituen egitateen zerrendak .

2. EAEko botere publikoek lagunduko dute, beren ahalbide eta eskumenen neurrian, biktima guztiak honako ekintza hauetarako irispidea izan dezaten:

- a) Informazioa emango diete lege honetako 3. artikuluan aurreikusitako onuradunei eskuragarri dauden baliabideei buruz, bai eta, hala dagokionean, kasu bakoitzean egoki izan daitezkeen prozesura judizialak hastea ahalbidetzen duen informazioa ere.
- b) Balorazio Batzordeak uste duenean espedientearen edukitik preskribitu gabeko legez kontrako jardueraren bat ondoriozta daitekeela, auzitegi eskudunei eta, hala badagokio, administrazio eskudunari jakinaraziko die.
- c) Halaber, lege honek errekonozitutako biktimen espedienteak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutura igorriko dira beti; hala, institutuak, betiere datu pertsonalak babesteko legedia errespetatuz, bere eskumeneko politikak gauzatu ahal izango ditu.

8. artikulua. Erreparazioa jasotzeko eskubidea

Giza eskubideen urraketak jasandako biktima deklaraturako pertsonak, lege honek aurreikusitako kasuetan, erreparazioa jasotzeko eskubidea izango dute; horrek barne hartuko ditu konpentsazio ekonomiko bat eta, kasuan kasu, jasandako giza eskubideen urraketen ondorioz pairaturako kalteak gainditzeko osasun-asistentzia, beheko bi artikuluetan ezarritako arauetara jarraituz.

9. artikulua. Kalte-ordaina

1. Lege honetan aurreikusitako arabera motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatutako giza eskubideen urraketen biktimatik jo direnek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute jasandako kalteengatik, artikulua honetan ezartzen diren arauen arabera.

2. Eskubideen urraketek eragindako kalteen heinekoa da ordainaren zenbatekoa, honako baremo honen arabera:

- a) Heriotzagatik: 135.000 euro.
- b) Baliaezintasun handiagatik: 390.000 euro.
- c) Ezintasun iraunkor absolutuagatik: 95.000 euro.
- d) Ezintasun iraunkor osoagatik: 45.000 euro.
- e) Ezintasun iraunkor partzialagatik: 35.000 euro.

f) Baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorreatatik konpentsazioen zenbatekoa kalkulatzeko, hiru hiru biderkatuko dira behin betikoak eta baliaezintasunik gabekoak diren lesio, mutilazio eta deformazioen kalte-ordainei aplikatzeko zaien araudi orokorrean ezarritako zenbatekoak. Kontzeptu horri dagokion kopuruaren zenbateko osoak ezin izango du inolaz ere gainditu aurreko letran ezintasun iraunkor partzialerako adierazitako zenbatekoa, ezta zenbateko horretara iritsi ere.

3. Tratu txar larriak zein iraunkorrak ez diren lesioak jasan dituzten pertsonak ez dute konpentsazio ekonomikorik jasoko, nahiz eta lege honek aurrez ikusten dituen gainerako ondoretarako biktima-deklarazioa jasotzeko eskubidea izango duten.

4. Konpentsazioa diru-emate bakarrean ordainduko da, betiere erreparazioa jasotzeko eskubidea aitortu ondoren.

5. Heriotzagatik onartutako konpentsazioen kasuan, Administrazioa, onuradunetatik edozeini ordaindu ondoren, libre geratuko da konpentsazioa jasotzeko eskubidea duen beste edozeinekiko obligazioetatik, onuradunek beren artean zeinahi egintza abiarazten dutela ere.

10. artikulua. Konpentsazio ekonomikoen bateragarritasunak

Kompentsazio ekonomiko horiek bateragarriak dira biktimek bai egitate berberengatik, Administrazioaren funtzionamendu ohikoa edo ezohikoa dela-eta ondare-erantzukizunari buruzko espedienteen markoan, jaso dituzten edo jasotzeko eskubidea duten zenbatekoekin bai memoria historikoari edo terrorismoaren biktimei buruzko legedian jaso dituzten edo jasotzeko eskubidea duten zenbatekoekin, baldin eta haiek lege honetan onartzen diren konpentsazio ekonomikoak baino txikiagoak badira. Kasu horretan, jasoko da dagokion araudiaren arabera jaso edo onartu diren zenbatekoen eta lege honetan aurreikusitako zenbatekoaren arteko aldea.

11. artikulua. Osasun-asistentzia

1. Lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketan ondorioz kalte pertsonal fisiko edo psikofisikoak jasan dituzten pertsonak euskal osasun-sistemaren prestazioen zorroan dauden behar adina osasun-prestazio jaso ahal izango dute, ahalik eta hobekien berreskura dezaten kalte horiek eragin zituen egitatearen aurretik zeukaten osasun-egoera.

2. Osasun-arreta Euskadiko osasun-sistemak dituen baliabideen bitartez emango da. Hala ere, gaixoaren beharrezanek hala eskatzen badute eta tratamenduaren egokitasuna objektiboki justifikatuta badago, baina osasun-sare publikoan horretarako aukerarik ez badago, esparru horretatik kanpoko mediku-tratamenduak baimendu daitezke. Eusko Jaurlaritzan giza eskubideen arloan eskumenak dituen sailak ordainduko ditu aipatu tratamenduen kostuak, baita artatutako pertsonari laguntzeak eragin ditzakeen gastuak ere.

3. Administrazioak bere gain hartuko ditu protesiak jartzeagatik eragindako gastu guztiak, eta, aldizka protesietan hobekuntzak egin behar badira, horien gastua ere beretzat hartuko du, baita Euskadiko osasun-zerbitzu publikoak diagnostikatutako errehabilitazioak dakartzan gastuak ere. Diagnostikatu den baina osasunbabearen sistema arruntak estaltzen ez duen guztia Eusko Jaurlaritzan osasunaren arloan eskumenak dituen sailak ordainduko du.

4. Motibazio politikoko indarkeria-egoera batean giza eskubideen urraketak jasan izanagatik pairatutako kalteak gainditzeko laguntza psikologikoa (laguntza psikosoziala eta psikopedagogikoa barne) eskainiko zaie 3. artikuluan aipatutako pertsona guztiei, betiere horretarako beharra dutela justifikatzen badute profesional publiko batek horretarako emandako ziurtagiri baten bitartez. Paragrafo honetan aipatzen den laguntza psikologikoa Euskadiko osasun-sistemaren parte diren bitarteko publikoen bidez emango da, eta, salbuespen kasuetan, objektiboki justifikatuta dagoenean, profesional pribatuen bidez emango da laguntza psikologikoa; bigarren kasu horretan, Eusko Jaurlaritzan giza eskubideen arloan eskumenak dituen sailak ordainduko du zerbitzu hori.

Kasu horietan, konpentsazio ekonomikoa hiru hilero ordainduko da, hiruhilekoa bukatu ondoren; horretarako, aurretik gastuen eta ordainsarien fakturak aurkeztu beharko dira (muga 3.500 eurokoa izango da pertsonako). Medikuek egindako diagnostikoak hala aginduz gero, emandako laguntza beste hainbeste handitu ahal izango da.

5. Laguntza horrekin batera ezin izango da gisa bereko laguntzarik jaso beste administrazio publiko batzuen eskutik zergati berberengatik.

IV. Kapituluia

Prozedura

12. artikulua. Organo eskuduna

Lege honetan jasotako eskubideen aitortpena egiteko prozedura Eusko Jaurlearitzako giza eskubideen arloko erakunde eskudunak tramitatuko du eta Eusko Jaurlearitzan arlo horretan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularrak ebartziko du. Izapide horrek bete egin beharko ditu administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak.

13. artikulua. Abiaraztea

1. Interesdunek prozedura honetako izapide guztiak eskatzeko, kontsultatzeko edo gauzatzeko aurrez aurreko bitartekoak edo bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte.

2. Prozedura lege honetako 3. artikuluan adierazitako pertsonen eskatu ostean abiaraziko da. Aurkeztea errazagoa izan dadin, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren ebazpenak, eskariak aurkezteko epea zabalduko duenak, eskaera egiteko eredu normalizatua izango du.

3. Pertsona kaltetua hil egin bada, eskaerarekin batera, biktimaren heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da, baita honako agiri hauek ere, hildakoaren eta eskatzailearen ahaidetasunaren arabera:

- a) Legez banandu gabeko ezkontidea edo banatzeko edo ezkontza ezereztatzeko prozesuan ez dagoen ezkontidea bada, familia-liburuaren kopia edo ezkontzaren inskripzio-ziurtagiri literala, biktima hil ondoren Erregistro Zibilak emana; eta interesdunaren erantzukizunpeko adierazpena, zeinean adierazten duen ez dagoela banatzeko edo ezkontza ezereztatzeko prozesurik abian.
- b) Eskatzailea hildakoarekin antzeko afektibotasun- harreman batean bizi izan zena baldin bada, harreman hori honako agiri hauek baten bidez egiaztatatu beharko da:
 - Izatezko bikotea zirela egiaztatzen duen agiri publikoa.
 - Elkarrekin seme-alabarik izanez gero, familia-liburuaren kopia edo jaiotza-agiri literalak, Erregistro Zibilak emanak, bai eta interesdunaren erantzukizunpeko adierazpena ere, zeinean adierazten duen hildakoarekin bizi izan dela.
 - Udalaren elkarbizitza-agiria edo heriotza gertatu aurreko bi urteetan elkarrekin bizi zirela egiaztatzeko notarioak emandako nabaritasun-akta, eta horiekin batera ezkontidearen antzeko afektibotasun- harremana egiaztatzen duen edozein agiri. Balorazio Batzordeak baloratuko ditu agiri horiek.
- c) Hildakoaren seme-alabak baldin badira, familia-liburuaren kopia edo jaiotza-agiri literalak aurkeztu beharko dira, Erregistro Zibilak emanak.
- d) Eskatzaileak hildakoaren gurasoak, bilobak edo neba-arrebak baldin badira, kalte-ordainaren kausatzailearekin ahaidetasuna zutela erakusteko agiriak aurkeztu beharko dituzte: familia-liburuaren kopia, edo jaiotzako edo ezkontzako ziurtagiri literalak, Erregistro Zibilak emanak.
- e) Onuradunen arteko balizko lehentasuna zehazteko edo eskubide bera daukaten onuradunak dauden zehazteko, honen aurreko d) letran sartzen direnek beren eskaeran adierazi beharko dute ez daukatela kalte-ordaina jasotzeko eskubide handiagoa daukan inoren berririk, edo, eskubide bera izan dezaketen hartzaileen berri baldin badute, haien izen-abizenak eman beharko dituzte.

4. Eskubidean giza eskubideen urraketa egin den inguruabarraren deskribapena jasoko da, betiera legeak aurreikusitako inguruabarren barruan. Deskribapen horretan lege honen aplikazio- eremuan jasotako gertakari horren ezaugarriak azaldu behar dira. Gertakaria Zuzenbideak onartzen duen edozein frogamotaren bidez ziurtatu daiteke, eta, bereziki, lege honetan arautzen den biktima-izaera frogatzeko baliagarritzat jotzen den edozein txosten eta agiriren bidez.

5. Lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketen biktima-deklarazioa egiteko eskaerak, Eusko Jaurlaritzan giza eskubideen arloko organo eskudunari igorriko zaizkio bi urteko epean, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren ebazpena, eskariak aurkezteko epea zabalduko duena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

6. Eskaerekin batera giza eskubideen urraketa eta eragindako ondorioa egoki baloratzea ahalbidetzen duten mediku-txosten eta -ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

14. artikulua. Instrukzioa

1. Eskabidea bera eta aurkeztu beharreko dokumentazioa jasotakoan, giza eskubideen arloko organo eskudunak, espedientea tramitatu behar duenak, lege honetako V. kapituluaren araututako Balorazio Batzordea igorriko du, eta batzordeak agiriotan adierazitako egitate edo datuak benetakoak direla egiaztatzeko egin beharrekoa egingo du ofizioz.

2. Edonola ere, beharrezkoa iruditzen bazaio, Balorazio Batzordeak aukeran izango du honako hauetakoren bat egitea:

- a) Eskatzaileari entzun, hark aurkeztu dituen agirien eta frogen gainean informazioa osatzeko. Horretarako dei egingo zaio eskatzaileari Eusko Jaurlaritzaren egoitzan edo lurralde-ordezkaritza edo bulegoren batean, edo, besterik ezean, biktimarekin adosten den lekuan, elkarrizketa bat egiteko, haren bizilekutik hurbilen dagoen lekua zein den kontuan hartuta. Balorazio Batzordeko idazkari teknikoak elkarrizketa horren akta egingo du, eta, eskatzailea ados bada, ikus-entzunezko bitartekoez ere graba daiteke haren adierazpena.
- b) Aurrekariak, datuak edo txostenak bildu, Eusko Jaurlaritzaren mendeko sail eta organismoetatik edota horiek jasota egon daitezkeen Administrazio bereko beste erregistro batzuetatik.
- c) Espedienteak tramitatzeko beharrezkoak izan daitezkeen aurrekari, datu edo txostenei buruzko informazioa eskatu beste administrazio publiko, entitate edo organo pribatu nahiz publiko batzuei, betiere datu pertsonalen babesaren eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen legeriak finkatzen dituen mugen barruan.
- d) Txostenak edo lekukotzak eskatu lekukoei eta beste pertsona batzuei, baldin eta, egitateen zuzeneko edo zeharkako ezagutza dutelako edo gaian duten esperientziagatik edo trebetasun teknikoagatik, aurkeztutako eskaeraren gaineko informazio garrantzitsua eskaini badezakete; kasu horretan ere, lekukotzak grabatu ahalko dira.
- e) Beharrezkotzat jotzen dituen urrats guztiak egin egitateak hobeki argitzeko eta aurkeztutako eskaera hobeki ebazteko.

3. Lege honen 3. artikuluan adierazitako pertsonetako batek edo batzuek aurkezten badute eskaera, eta Balorazio Batzordeak, bere eginkizuna betetzen ari dela, ezagutuko balu egon daitezkeela beste pertsona batzuk eskubide bera edo hobearekin, eskaeraren berri eman beharko die pertsona haiei, haiek ere prozeduran interesdun gisa aurkeztea izan dezaten .

4. Balorazio Batzordearen helburuak betetzearekin zerikusia duten erakunde publikoek eta pertsona pribatuek egitateak argitzeko errekeritzen zaien laguntza eman beharko diote batzordeari lege honen babesean izapidetzen diren espedienteen esparruan. Hartarako, errekeritzen zaizkien datu guztiak eta langile teknikoek laguntza emango dizkiete, garaiz eta behar bezala, eta, zitaziorik jasotzen badute, agerraldia egingo dute, pertsonalki edo baimendutako ordezkari baten bidez, Balorazio Batzordean, errekeritu zaien informazioa emate aldera. Balorazio Batzordeak, bere eskumenen barruan, beharrezkotzat jotzen dituen harremanak izan ahalko ditu edozein agintaritzarekin edo haren agenteekin, baita organismo eta erakunde publiko eta pribatuekin informazioa trukatu eta haien laguntza jaso ere .

5. Balorazio Batzordeak jakiten badu auzi judizialen bat zabalik dagoela, espedientea ebazteaz arduratzen den organoak eten egingo du prozeduraren izapidetzea, auzibidea amaitu arte. Izapidetzea eten egingo da, era berean, jakiten bada administrazio-prozedura zehatzailearen bat irekita dagoela, harik eta prozedura horiek administrazio- bidean irmoak izan arte.

6. Espediente bakoitzean txosten tekniko bat egon beharko da, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko bi auzitegi-perituk, gutxienez, Balorazio Batzordeko kide ere direnek, egina, zeinean, Balorazio Batzordeari

esleitu zaizkion funtzioen esparruan, adieraziko baitute alegatutako tratu txarrak edo lesioak bat datozen egitate kausatzaileekin. Agintaritza eskudunak emandako agiriaren bidez egiaztatutako baliaezintasun handien, ezintasun iraunkor partzialaren, osoaren edo erabatekoaren kasuan, txosten teknikoak adierazi beharko du zein lotura-maila dagoen egiaztatutako lesioen eta alegatutako egitateen artean, espediente bakoitzean. Txostenak ondorioztatzen badu badagoela agintaritza eskudunak emandako agirien bidez egiaztatu gabeko baliaezintasunaren edo ezintasun iraunkorraren maila jakin bat, Balorazio Batzordeak zehaztuko du zein den maila hori lortzea ahalbidetzeko prozedura.

7. Balorazio Batzordeari dagokio, eta ez beste inori, askatasunez eta ondo arrazoituta proposatzea eskaeren izapidetzea ez dadila onartu, bai eta onartutako eskaerak aztertzea eta arrazoituz erabakitzea biktima-izaera deklaratzeko edo aurkeztutako eskaerari uko egitea ere.

8. Horretarako, batzordeak espedienteko dokumentazioa eta froga-elementuak aztertuko ditu, eta osotasunean balioetsiko. Batzordeak txosten bat egingo du, arrazoitua, aurkeztutako eskaera bakoitzari buruz. Bertan, aztertu egingo du lege honen 2.2 artikuluan xedatutako baldintzak betetzen diren ala ez; laburbildu egingo ditu biktimaren giza eskubideen urraketa eragin duten egitateak, bere ustez frogatuta daudenak; balorazio bat egingo du egitate horien eta egiaztatutako lesioen arteko kausa-harremanari buruz, oinarritzat hartu dituen froga-bideak zehaztuta; eta, hala badagokio, proposatu egingo ditu lege honen ondorioetarako biktimadeklarazioa eta egokitzen jotzen dituen neurri zuzentzaileak.

9. Baliaezintasun handiaren, ezintasun iraunkor partzial, oso edo absolutuaren, edo baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorren arabera ordaindu beharko konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa zehaztearren, batzordeak agintaritza eskudun batek egindako ziurtagiria, halakorik badago, aplikatuko du irizpide erabakitzailerako gisa. Ziurtagiri hori modulatu da egongo da egiaztatutako lesioen eta alegatutako egitateen arteko loturaren arabera, auzitegi-perituen aginduzko txosten teknikoari jarraikiz.

15. artikulua. Ebazpena

1. Eusko Jaurlaritzan giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularrari jakinaraziko zaio Balorazio Batzordearen proposamena, eta hark dagokion ebazpena emango du aurkeztutako eskaerari buruz, eta, hala dagokionean, errekonozitu egingo dio biktima-izaera lege honetan aurreikusitako eskubideen urraketak jasan dituen pertsonari eta, hala badagokio, zehaztu egingo du zein diren errekonozimendu horretatik eratorritako eskubidea, edo baztertu zein ezetsi egingo du eskaera.

2. Organo eskudunak ebatzi beharko du planteatutako eskaera, eta ebazpena jakinarazi beharko dio interesdunari gehienez ere hogeita lau hilabeteko epean, epe hori luzatzea arrazoitzen duten egoera berezietan izan ezik. Luzapena indarreko legediak ezartzen dituen mugetara egokituko da beti.

3. Epe horretan ebazpenik izan ezean, eskaerak Administrazioaren isilbidez ezetsitzat jo direla pentsatu beharko dute interesdunek.

V. Kapitulu

Balorazio batzordea

16. artikulua. Sorrera

1. Batzorde bat sortuko da, aurkeztutako eskaerak baloratzeko eta, lege honen babespean, honako hauek proposatzeko: eskaerak ez onartzea; hala dagokionean, biktima-deklarazioa eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak edo aurkeztutako eskaeraren ezespena.

2. Giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiak edo sailburuordetzak haren zereginetarako beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu.

3. Balorazio Batzordeko kideek bete egin beharko dituzte legezketasun-, independentzia-, konfidentzialtasun-, lankidetzak- eta eraginkortasunprintzipioak euren jardunean.

17. artikulua. Osaera eta osatzea

1. Honako hauek izango dira Balorazio Batzordeko kide:

- a) Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria.
- b) Giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiaren edo sailburuordetzaren titularrak izendatutako hiru pertsona, non haietako bat Zuzenbide penaleko legelari espezializatua izango baita, beste batek esperientzia izango baitu biktimen arloan, eta hirugarrena legeak hartzen duen garaian espezializatutako historialaria izango baita.
- c) Lege honek arautzen duen gaian aditu diren hiru pertsona, haietako bat gizarte zibilaren ordezkaria izango dena, giza eskubideen jarraipena egin behar duen Eusko Legebiltzarreko batzordeak izendatuak.
- d) Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak izendatutako bi auzitegi-peritu eta psikologo bat, denak ala denak esperientziadunak biktimen arloan.
- e) Batzordeko idazkari teknikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari langile bat (zuzenbidean lizentziatutako teknikaria) izan beharko da, hitzarekin baina botorik gabe, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiak edo sailburuordetzak proposatuta

2. Balorazio Batzordeko presidentea kideek hautatuko dute gehiengoz

3. Interesdunen errekusatze-eskubidea bermatzeko, Balorazio Batzordeko kide titularren eta ordezkoen identitatea giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren ebazpenaren bidez argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

4. Hala erabakiz gero, Balorazio Batzordeak behar dituen peritu adituak deituko ditu, baldin eta haien ekarpena beharrezkotzat jotzen bada lege honen xede diren bizitzaren, osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualaren urraketarik egon den egiaztatzeko. Peritu horiek egin beharreko balorazio-, analisi- eta azterketa-lanak batzordeko idazkaritza teknikoak zuzenduko ditu.

18. artikulua. Funtzionamendua

1. Balorazio Batzordeak gutxienez hilean behin egingo du ohiko bilera, eta, lehenengo bileran, urteko bileren egutegia zehaztuko du. Salbuespenez, batzordeburuaren ekimenez bil daiteke batzordea, edo bederatzi kideetatik bostek eskatzen dutenean; hartarako deialdia gutxienez bost egun lehenago egin beharko da. Edonola ere, legez osatuta geratzeko, kideen erdiek, gutxienez, egon beharko dute bileran, batzordeburua eta idazkari teknikoa barne.

2. Bileran diren kideen botoen gehiengoz hartuko dira batzordearen akordioak; botoetan berdinketa gertatuz gero, batzordeburuaren kalitateko botoak erabakiko du. Batzordeko kideek eska dezakete aktan jaso dadila akordioaren aurka eman dutela botoa, edo, aldeko botoa emanaz gero, horren arrazoia jasotzeko. Era berean, kideren bat ez dagoenean ados gehiengoaren akordioarekin, idatziz azal dezake bere boto partikularra, akordioa onartu denetik bi eguneko epearen barruan, eta hura ere testu onartuari erantsiko zaio.

3. Balorazio Batzordeko kideek Euskal Autonomia Erkidegoan ofizial diren bi hizkuntzetatik edozein erabili ahalko dute bileretan. Orobat, bermatuko da Balorazio Batzordeak egiten dituen bileren deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta idazkietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko direla.

4. Balorazio Batzordeak bere funtzionamenduarauak osatu ditzake, indarrean den araubide juridikoko legeriak kide anitzeko organoei buruz ezarritakoaren arabera.

5. Balorazio Batzordeak urteko memoria bat egingo du. Bertan, egindako lanaren emaitzak, ikerketak, bildutako datuen ezaugarriak, aurkeztutako eskaerak eta jazotakoaren berri zehatz eta egiazkoa izaten lagunduko duen beste edozein datu azalduko ditu. Datu horiek guztiak sexuaren arabera bananduko ditu, eta emakumeen zein gizonen egoerak aztertuko ditu. Nolanahi ere, lana amaitzean, lortutako emaitzak orokorrean azalduko dituen azken memoria bat ere egingo du Balorazio Batzordeak.

6. Administrazio publikoko kide ez diren Balorazio Batzordea osatzen dutenek dietak jasotzeko eskubidea izango dute, egindako lanaren truke.

VI. Kapituluia

Onuradunen betebeharrak

19. artikulua. Giza eskubideen urraketen biktimen betebeharrak

Giza eskubideen urraketen biktimek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Aurkeztu dituen datuak eta agiriak egiaztatzen utzi beharko dio beti giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiari edo sailburuordetzari, eta eskatzen zaion informazioa eman beharko dio hari, espedienteak behar bezala kontrolatzeko eta osatzeko.
- b) Araudi orokorrak onuraduna izateko ezartzen dituen baldintzak betetzea, araudi horrek onuradunentzat ezartzen dituen betebeharrekin, biktima-izaeraren adierazpenak berekin badakar lege honetan aurrez ikusitako konpentsazio ekonomikoa.
- c) Laguntza ematen duen erakundearen egiaztatze -jardueren mende jarriko da, baita, laguntza Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura eskuratzen denean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jardueren mende ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian aurreikusitako jardueren gain.

20. artikulua. Baldintzak eta betekizunak ez betetzea

Giza eskubideen urraketen biktimek ez baditu betetzen lege honetan jarritako baldintzak, edo datu faltsuak aurkezten baditu, biktima-aitorpena galduko du, eta, hala badagokio, aitortutako ordain eta prestazio ekonomikoa galduko du, prozesu hori abiarazteko espedienteak izapidetu eta interesdunari hitz egiteko aukera eman ostean, eta, horren ondorioz, jasotako dirua Euskadiko Diruzaintza Nagusiari itzularaziko zaio; gainera, lege dagozkion interesak ere ezarriko zaizkio, kasu horretan egoki diren bestelako egintzak ere baztertu gabe. Hori guztia, betiere, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak eta 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak –Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzekoak– xedatzen dutenaren arabera.

VII. Kapituluia

Baliabide ekonomikoak

21. artikulua. Baliabide ekonomikoak

1. Lege honetan aurreikusitako ordain ekonomikoak finantzatzeko, ekitaldi bakoitzerako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako jarritako ordainketa-kredituak erabiliko dira. Eta horren ondoretarako, behar bezala zabalduko da horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren Ebazpena argitaratuta.
2. Kopurua gaurkotu egin ahal izango da, baldin eta laguntza hauen sekzioko bestelako laguntza -programa batzuk bete ondoren aurrekontuan zenbateko erabilgarriak geratu badira, onar daitezkeen aurrekontu-aldaketen arabidearen bidez edo aplikatzekoak diren kreditu-loturen bidez ezartzekoak diren heinean.
3. Urte batean horretarako bideratutako aurrekontu- zuzkidura bukatu dela-eta eskaeraren bati ezin bazaio erantzun, eskumena daukan organoak administrazio-ebazpena emango du, hurrengo ekitaldira igaro dadin eskaera.
4. Deialdi honetarako jarritako dirua agortuko balitz edo gehituko balitz, bi kasuetan, behar bezala zabalduko da horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren ebazpena argitaratuta.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria. Atzeraeraginezko aplikazioa, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak aitortutako biktimei

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, aitortza eta, hala balegokio, ordain ekonomikoa jaso dutenek lege honen 12. artikuluan araututako osasunassistenzia eskatu ahalko dute.

Bigarren xedapen gehigarria. Atzeraeraginezko aplikazioa, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak aitortu gabeko biktimei

Lege hau atzeraeraginez eta salbuespen gisa betearaziko da 1960. urtera arte, lege honen 2.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete baina ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak babestu ez zituen giza eskubideen urraketen biktimak aitortzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, aplikatzeko ezohiko epea.

Hamabi hilabeteko ezohiko epea irekitzen da, behin lege hau indarrean sartzan denetik aurrera, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak jasotako baldintza guztiak bete arren errekonozimendua eta erreparazioa eskatu ez duten edo epez kanpo eskatu duten pertsonentzat.

Laugarren xedapen gehigarria. Baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorreatatik ordainei aplikatzekoa zaien indarreko araudia

Lege honen 10.2.f artikuluan jasotako baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorreatatik ordainak zehazteko, urtarrilaren 28ko ESS/66/2013 Agindua aplikatuko da, indarrean dagoen bitartean. Agindu horren bidez eguneratu ziren behin betikoak eta baliaezintasunik gabekoak diren lesio, mutilazio eta deformazioen kalte-ordainei aplikatzekoa zaien indarreko araudiaren oroharreko zenbatekoak.

Bosgarren xedapen gehigarria. Balorazio Batzordearen eraketa

Balorazio Batzordea presidentea eskatuta eratuko da, gehienez, hilabeteko epean, batzordea osatzen duten pertsonen identitatearen ebazpena Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Seigarren xedapen gehigarria. Legearen aplikazioa giza eskubideen urraketa horiek eragin dituzten egitateen gainean erruduntasun-lotura jakinik argitzez ez duten giza eskubideen urraketari.

Lege honen ondoretarako, giza eskubideen urraketatzen joko dira botere-abusuek edo motibazio politikoko egoera batean izandako polizia indarkeriaren lege kontrako erabilerak eragindakoak, non funtzionario publikoek parte hartu ahal izan duten, hala beren zereginen exekuzioaren baitan nola beren zereginen exekuziotik kanpo, edo norbanakoek parte hartu ahal izan duten, hala taldean jardunez nola era isolatuan, bakarka eta kontrolatu gabe jardunez, eta non ez den beharrezkoa erruduntasun-lotura jakin bat egotea urraketatzen hartutako ekintza horietan, betiere urraketaren ondorioz pertsonen bizitzari edo osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualari kalte egin bazaio.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Erregelamenduzko garapena

Eusko Jaurlaritzak erregelamendu baten bidez garatuko ditu biktima-izaera errekonozitzeko aurkezten zaizkion eskakizunetako kasuei heltzeko erabiliko dituen prozedurak, Balorazio Batzordeak hartzen dituen ebazpen administratiboek erabateko segurtasun juridikoa izan dezaten.

Azken xedapenak

Azken xedapenetatik lehena. Legea betetzea

Lege hau garatzeko eta betetzeko behar adina ebazpen emateko baimena ematen zaio giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularrari.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 28a



10. dokumentua

Batera Konpromisoa

Batera Konpromisoa

Biktimen inguruko politika publikoetan
beste aurrerapauso bat egiteko oinarriak

Gasteiz, 2015eko irailaren 15a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

2013ko azaroaren 26an onartutako Bake eta Bizikidetzaren Planaren lehentasunetako bat biktimen politika kudeatzea eta bultzatzea da. IV. Ekimenean, bi ardatz ezartzea aurreikusten da: batetik, biktimei laguntzeko ildo nagusiekin jarraitzea eta, bestetik, politika hauek berritzea, uneko testuinguruaren bilakaerara egokitu-ta. Jarraitzearen eta berritzearen artean kokatu behar da, bada, Batera Konpromisoa

Biktimen inguruko politika publikoetan hainbat fase pasa ditugu dagoeneko. 70eko eta 80ko hamarkade-tan, ez zitzairen konturik batere egiten; 90eko hamarkadan, gero eta sentsibilitate handiagoa pizten zuen gai honek, eta 2000. urteko aurreneko hamarkadan orain arte ez bezalako euskarria ematen hasi zaio, araudiz nahiz erakundeen aldetik, biktimen eskubideei babes aktiboa eman nahian.

2015a ere iritsi zaigu honela. 2011. urtean ETAk indarkeria eten zuenetik, abagune ezin hobea daukagu orain arteko bide malkar honetan, egindakoa ondo aztertzeko eta hemendik aurrera biktimen inguruko poli-tiketik nondik nora joan behar duten argitzeko. Izan ere, aurrera egiteko moduko baldintzak dauzkagu.

Pasa den ekainaren 5ean, terrorismoaren biktimei erakundeen errekonozimendua erakusteko ekitaldi hartan esan nuen: oraindik ere aurrerago jo nahi du Eusko Jaurlaritzak bide honetan. Eta, hain zuzen, kontzeptuz eta ekintzez testuinguru berria zehaztuz, agiri honetan bertan. Eta agiri hauxe izango dugu konpromiso berria.

Batera Konpromisoa ez da oraintxe hutsetik sortu. Azkeneko urteetan biktimen inguruko politiketan egin-dako lanaren fruitua da. Oraindik ere lanean ari baikara, gero eta sendoago; azkeneko legegintzaldietan, gobernu eta talde sozialek, politikariek eta han-hemengo parlamentariek gero eta gehiago parte hartu eta lagundu dutelako.

Hiru printzipio

Benetakoa izatea: autokritika egin beharra egokitu zaigu, eta egingo dugu

Biktimen kontuetan iraganean zer egin dugun kritikoki aztertuta, ez da zaila oker batzuk hautematen: berandu ibili gara biktimei behar zuten elkartasuna eta erantzuna ematen; gehiago erreparatu diogu bate-raezintasun politikoari, biktimen inguruko batasunari baino; biktimak bereizi izan ditugu, pairatu izan duten indarkeriaren arabera, eta biktimen auzia bakoitzaren alderdikierietarako tresnatzat hartu dugu.

Eusko Jaurlaritzak autokritika egin du, eta horietako bi oker egin dituela ametitu du. Hasteko, 90eko hamarkadaren lehenengo urteak arte, erakundeak beti berandu iritsi garelako biktimen kausara. Eta ja-rraitzeko, hurrengo urteetan, bateraezintasun politikoak zirela-eta, ez garelako gai izan elkar hartuta denok biktimekin solidario izateko eta denok batera indarkeria errefusatzeko.

Egin du, ba, egin beharreko autokritika Eusko Jaurlaritzak, eta eskatu die barkamena indarkeriaren eta terrorismo ororen biktima izan direnei, egindakoengatik eta egin gabe utzitakoengatik, batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadan ez genielako konturik egin, batere. Lehenago erreakzionatu behar genuen, eta hobeto erantzun, denok batera. Autokritika hauxe da Batera Konpromisoaren abiapuntua.

Egia esatea: minimo etikoa argi eta garbi definitzea

ETAren amaierak ezin du ekarri besterik gabe orria pasatzea gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe. Memoria-politikek ezinbestean dakarte edozer indarkeria- edo terrorismo-mota bidegabeak direla errekonozitzea; hortaz, baita ETAren indarkeria eta terrorismoa ere.

Indarkeriaren justifikazio ororen eta giza eskubideen urraketa ororen kontra altxatuko gara. Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik. Horixe da gure minimo etikoa, etorkizuna eraikitzeke ezinbestekoa, horretan oinarritzen da Batera Konpromisoa.

Berdintasuna gauzatzea: biktimen eskubideak betetzea

Biktimen inguruko politika publikoak egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubideetara begira taxutuko dira aurrerantzean ere, eta, aurrerantzean, biktimei emango zaien arreta harik eta pertsonalizatuena izaten saiatuko gara bereziki.

Horretan, gogoan izango dugu biktimen eskubideek berdinak izan behar dutela beti, hau da, berdin kontu egin behar zaiela denei, jasandako indarkeria edonolako izanda ere. Printzipio honek bi adierazpen izango ditu: batetik, biktimen artean egindako bereizkeria okertzat ematea, eta zuzentzea; eta, bestetik, biktima batzuk daudelako beste batzuk egotea justifikatu nahia erabat gaitzestea.

Paradigma zabalagoa: biktimak etorkizunari ere lotzea

Biktimen inguruko politikak atzera begira landu izan ditugu orain artean. Nola ez ba, ezinbestekoa da eta izango da atzera begiratzea. Hala ere, atzera besterik ez begiratzea oso murrizta da bai biktimentzat eta bai biktimizazioa gainditzeko lanerako. Paradigma hori zabaldu nahi du, hortaz, Eusko Jaurlaritzak.

Izan ere, biktimei erreparatuz, etorkizuna ere begi aurrean dakusagu. Begira diezaiozun ba etorkizunari; hala, biktimei buruz pentsatzen dugunean, iraganean jasan izan zuten kaltearen gaitza ez ezik, gaur egungo eta etorkizuneko elkarbizitza eraikitzen denekin batera daukaten papera ikusiko dugu.

Gure bitxi preziatuena: biktimak eta gizartea bat eginda

Terrorismoaren edo indarkeriaren biktimek pairatzen duten bizipen traumatikoak ez du parerik gizartean. Horrek lubakia eragin du biktimaren eta gizartearen artean. Biktomologiaren ikerketek erakutsi dute, bai hemen eta bai munduko beste edozein txokotan, biktimen eta gizartearen arteko harremana hurbil-urrun ardatzean kokatzen dela.

Denboraren joanean biktimak eta gizartea hurbildu edo urrundu egiten dituzten faktoreak agertzen dira. Politika publikoek badute gaitasuna distantzia hori txikitu edo ezabatzeke. Eusko Jaurlaritzaren ardura den kontuetan, biktimekin lotutako ekintza guztietan, bitxi preziatu bat irabazi nahian jokatzeko dugu beti: biktimen eta gizartearen artean batasun eta konfuzientzia lortu nahian, etorkizunera eta elkarbizitza hobera begira.

Konpromisoak mamia behar du

Eusko Jaurlaritzak gaur egun bultzatzen dituen programa guztiak Batera Konpromisoaren ildotik doaz, nola orain hala aurrerantzean:

- Adi-adian programa: etorkizunera begira taxutzen da, eta biktimak eta gizartea elkarrengana batu nahi ditu, hezkuntzaren bitartez elkarbizitza hobea eraiki nahian.
- Gertu programa: etorkizunerako batasun hori bera nahi du lortu, biktimek ere parte hartuz memoriaren eraikuntza sozialean.
- Bizitzeko eskubidearen urraketen udal-argazkiek ere herritarrek eta biktima hurkoak elkarrengatzen ditu, udalen bitartez.
- Eraikiz programak biktimek eta herritarrek iragana eta etorkizuna banatzeko egiten du lan.
- Gogora Institutua: biktimentzat eta gizartearentzat memoria partekatzeke espazioa da; iraganetik elkarbizitza eraiki nahian.

Batera Konpromisoak etapa berriak ekarriko ditu biktimen inguruko politiketara, iraganera ez ezik, etorkizunera ere begiratu dezaten, eta biktimen eta herritarren batasuna bultzatuko du, denak elkarrekin hobeto bizi gaitezen.

Joan den ekainaren 5ean, biktimen eta gizartearen arteko topaketan, urrats bat eman genuen, gaur Batera Konpromisoaren bitartez jarraitutasuna eta urrats berriak dakartzana. Konpromiso honek lau hitz lotuko ditu: biktimak, gizartea, etorkizuna eta elkarbizitza. Denen ahalegina beharko du horretarako. Erakundeena, alderdi politikoena, komunikabideena, gizarte eragileena, biktimena eta herritarrena.